HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE ETA IKERKETA SAILA
*DPTO. DE EDUCACION, UNIVERSIDADES E INVESTIGACION*

# e.g.a.

1(079.1)

## 8 eta 1989 ko
## azterketak

35
**Euskara Zerbitzua**
**Glotodidaktika-lanak**

eima
katalogoa
Eibarko Hezkuntza Esparrua
943.20.27.48
20600 EIBAR

# GLOTODIDAKTIKA-LANAK 35

Eibarko Hezkuntza Esparrua
943.20.27.48
20600 EIBAR

**Euskara Zerbitzua**
**Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila**

© EUSKAL HERRIKO AUTONOMI ELKARTEAREN ADMINISTRAZIOA
Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila
Argitaratzailea: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia
Wellington Dukeraren Kalea, 2 - 01011 GASTEIZ
Fotokonposaketa: RALI, S.A. Particular de Costa, 12-14 - 7.º Bilbo
Inprimatzailea: Itxaropena, S.A. - Araba Kalea 45 - Zarautz
I.S.B.N.: 84-7542-837-1
Legezko gordailua: S.S. 618/90
Lehenengo Argitaraldia: 1990ko Uztaila
Alea Kopurua: 3.000

# E. G. A.

## 1988 eta 1989ko AZTERKETAK

Eibarko Hezkuntza Esparrua
943 20 27 48
20600 EIBAR

Gasteiz, 1990
EUSKO JAURLARITZAREN ARGITALPEN-ZERBITZU NAGUSIA

# AURKIBIDEA


Orrialdea

HITZAURREA .......... 9

1. AHOZKOAREN ULERMENA
   1.1. AUKERA ANITZEKO GALDERAK .......... 13

2. MINTZAMENA
   2.1. AZALPEN LIBREA .......... 69
   2.2. TESTU BATEN AHOZKO LABURPENA .......... 73

3. IRAKURMENA
   3.1. AUKERA ANITZEKO GALDERAK .......... 89

4. IDAZMENA
   4.1. IDAZLAN GAIAK .......... 135
   4.2. ESKUTITZAK .......... 141
   4.3. ESALDIAK BERRIDATZI .......... 145
   4.4. SINONIMOAK EMAN .......... 181

5. ERANTZUNAK .......... 209

# HITZAURREA

Lau dira, liburuki honekin, Euskararen Gaitasun Agiria (EGA) eskuratzeko prestatu eta argitara eman diren azterketen bilduma-liburuak. Oraingoan 1988 eta 1989ko deialdi irekietako azterketen material-sorta eskaintzen da: azterketa horietatik idatzizko galdera-orriak, entzutezko eta irakurriaren ulermenari buruzko galderak eta idazmena neurtzeko ariketak hain zuzen, osorik jaso dira; ahozko azterketa-materialen artetik, aldiz, aukera bat baino ez da aurkezten, jadanik ohizko bihurtu den jokabideari jarraiki. Bide beretik, eta gelarako ikasmaterial erabilgarriak eskaini nahi izan direnez, azterketa-materialok ariketa-motaka sailkatu dira, erantzun-proposamenak ere bertan eskainiz.

Material guzti hau prestatzeak (eta urtero-urtero prestatzen jarraitzeak), jakina, ahalegin eta lan sendoak eskatzen dizkio hainbat jenderi: EGAko Azterketa Batzorde Ofizialaren Zuzendaritzakideei lehen-lehenik eta, horien gidaritzapean, baita Batzordekide zenbaiti eta Administrazioko hainbat lankideri ere. Bihoazkie hauei denei, beraz, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailaren eskerrik beroenak.

Liburu berri hau aurkezteko aukera emateaz gainera, EGAren helburuen luze-zabalez gogoeta xume bat edo beste egiteko parada ematen du hitzaurre honek.

Zortzi bat urte pasa dira Eusko Jaurlaritzak bere Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailaz EGA sortu zuenetik. Jaurlaritzaren lan-esparruan diharduen zenbait erakunderen eta, nagusiki, Euskaltzaindiaren agiri-emankizunen tradizioari eutsiz egin zen hori. Ordurarteko emankizunon tradizioa erreferentziatzat harturik, zerbitzu arrakastatsua eskaini die EGAk euskararen oinarrizko agiria behar duten herritarrei, Euskal Herriko euskal gaitasun-agiri emankizunik handiena izatera iritsi delarik: 22.500 inguru EGA agiri luzatu da 1982tik egungo egunerarte.

Bestelako agiridun baliokideen kopurua 12.000 ingurukotzat jo daiteke: horietariko gehienak Euskaltzaindiko D tituludunak dira; beste batzuk Zaragozako

eta Bilboko Hizkuntza Eskola Ofizialen agiria eskuratutakoak, edota Nafarroako Gobernuaren EGAdunak. Hor daude, azkenik, beste zenbait lorbidez EGArekiko baliokidedun edo balio-aitormendun izatera iritsitako jende-kopuru txikiagoak ere.

EGAk, dena den, hiritarrek euskara-maila egiaztatzeko eskatzen zuten zerbitzua eskaintzeaz gainera bazituen bere sorreran beste zenbait helburu. Hiru ditugu oraingoan aipagarri: bata, euskara batuaren arauak aintzakotzat hartzeari zegokiona; bigarrena, euskara-irakaskuntzan lortu nahi zen eragina; eta, hirugarren, indarrean zeuden agiri desberdinen arteko bateratasun-maila indartzea.

Euskaltzaindiaren D tituluak, neurri apalean bada ere, batasunerako eskainitako arauen hedapenean lagundu zuen jadanik. Bestalde, Euskaltzaindiak D titulua Eusko Jaurlaritzara eskualdatzeko egin zuen eskutitzean hala eskatu zuelako eta Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak hala nahi izan zuelako, bateratze-kezka horren islada ere iritsi zen EGAra: EGAren funtzioetako bat, hizkuntz plangintzazko asmo zabalago baten markoan, hizkuntzaren batasun-prozesua bultzatzea izan da: horrela, hasieratik praktikan eta handik gutxira programa ofizialean espresuki jasoa, batuaren ezagupena azterketan nonbait adieraztea eskatzen zaie azterketariei. Ez dago oztoporik beste euskalkiren bat ortografia bateratuaz (aukera honetaz jende gutxi baliatzen da; baliatzen denean gehienetan bizkaiera da euskalki aukeratua) ere erabiltzeko, baina beren ekoizpenetan batua ere erabiltzeko gai direla frogatu behar dute azterketariok. Horrela, eta beste euskalkietako idatzizko erabiltzaileak baztertu nahi gabe, euskaldun guztien arteko komunikazio-tresna izan nahi den hizkuntz eredu bateratua ezagutzea (eta ezagupen hori azterketaldian zehar frogatzea) eskatzen zaie azterketariei. Idatzizko zereginei begira egiten da hori, jakina, oraingoz kode idatzirako soilik bait dago euskara batua finkatua: ahozkoan, azterketariek zenbaitetan besterik uste izan arren eta batua euskaldun alfabetatuen mintzairan jadanik halako neurri batean eragiten ari bada ere, ez dago horren pareko eskakizunik.

EGAk irakaskuntzan izan dituen ondorioak begien bistakoak dira: horren inguruan antolaturik daude, oro har, alfabetatze-euskalduntze prozesu desberdinak. Azterketa-ereduan erabilitako ariketa-motak, hizkuntzen irakaskuntzan gertatzen ari ziren metodologi aldaketak ahal zen neurrian kontuan hartzeko aukeratuak, espero bezalaxe askotxo hedatu dira honez gero euskararen irakaskuntzan. Egia da, halaz ere, alde honetatik lortu asmo zen guztia ez dela zoritxarrez lortu: horrela, EGArako ezarri den azterketa-eredua ez da beti nahi bezain malgua gertatu eta, agian, zenbait ariketa-motaren arrakasta gehiegizkoa izan da, azterketa-mota horiek bezain bidezko eta onuragarri diren beste zenbait baztertzera iritsiz inoiz.

Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak betidanik izan du, EGAren inguruan, euskal gaitasunezko agiri-emankizun desberdinen bateratze-asmo bat. Agiri desberdinen kopurua ugaritzera baino areago, mailaz eta balio-indarrez parekoak diratekeenak batera biltzera jo izan du. Kezka hau EGAren funtzionamenduaren oinarri diren bi Aginduetan aski era zuzenean isladatzen da: biek berariaz aipatzen dute gai hori eta bigarrenak zenbait baliokidetza (Hizkuntza Eskola Ofizialaren 5. mailako gaitasun agiriarekin, Labayru Institutuko 3. mailakoarekin, Euskaltzaindiaren D Tituluarekin) finkatzen du eta beste zenbaitetarako bidea irekita uzten. Egin ere aurrerapenik egin da, urteotan zehar, agiri desberdinen arduradunekin maila-batasuna eta baliokidetza administratiboa ziurtatzeko neurriak hartuz.

Gasteizen, 1990eko martxoaren 12an.

Xixa GARDNER
Euskara Zerbitzua

# 1. AHOZKOAREN ULERMENA

## 1.1. ENTZUNDAKO TESTUEI BURUZKO AUKERA ANITZEKO GALDERAK

Azterketariek lehenik, hiru minutu izango dituzte 1-5 galderak aurrez irakurtzeko, informazio gisa. Gero, testu bat irakurriko zaie abiadura normalez, bi aldiz, eta bertatik jaso beharko dituzte erantzunak testua entzun ahala. Bigarren testuarekin beste hainbeste egingo da.

## AHOZKOAREN ULERMENA-1

### 1. TESTUA

Ezinezkoa omen zen. Bi gau zeramatzaten 8.100 metrotan eta burua dendatik ateratzen zuten bakoitzeko, eguraldi goibela ageri. Nekea, tontorrean 39 gradu zero azpitik, elurrezko ekaitzak, egundoko haizea, indarrik eza. Honela zioen Kaiku entrepesara igorritako telexak: «8.000 metrotik gora bi egun Norton iraganbidera daraman inguruan jasan ondoren, baldintza txarrek tristaturik eta nekaturik, 6.400 metrotan dagoen kanpamendu nagusira jaitsi dira, material guztia etxera eramaten lagunduko dieten «yak» direlako abereen zain».

Kontutan hartu behar gainera aurtengoan Himalaiara joandako 28 espedizioetatik, seik bakarrik lortu zutela tontorren batera igotzea. Everest mendiari dagokionean, berriz, aurtengo udaberrian bertan, kanadiar bat hila Iparraldeko mazelean, suediar batek hanka hautsi, beste batek tronboflebitis eta beste batek buru barneko trenputxartzea. Izan ere, nafarrak izan ditugu Everesten aurtengo udaberrian kalterik izan gabeko bakarrak. Bide berean, Everestera saioa egin duten sei espedizioetatik bat bera ere ez da heldu.

Bukatzeko, bi datu. Inguru hartan bertan 85. urtean Juanjo Navarro kidea zendu zitzaiela mendian. Bestea, bi nafarrek goi menditan ez zutela ez karreatzeko eta ez laguntzeko xerparik izanen.

I. CAMINO,
*Argia,* 1157 zkia. (1987/VI/28) - (moldatua)

1. *«Nekea, hotza, elur ekaitzak, haizea...» hitzen erreferentzia nork egiten du?*

   *a) Kaiku-ra bidalitako telexak.*
   *b) Kontalari-narradoreak.*
   *c) Mari Abregok.*
   *d) Juanjo Navarrok.*

2. *Kaiku entrepresara bidalitako telexak zera dio:*

   *a) era horretako espedizioetarako diru-laguntza handiagoa behar dela.*
   *b) bi egun barru egingo dutela ahalegin berria.*
   *c) baldintza txarrengatik etsi egin dutela.*
   *d) «yak» abereek porrot egin dietela.*

3. *Himalaiara joandako zenbat espediziok lortu zuten tontorren batera igotzea?*

   *a) Seik.*
   *b) Hogeitazortzik.*
   *c) Batek ere ez.*
   *d) Denek.*

4. *Aipatu espedizio honetan zenbat nafar ziren?*

   *a) Sei.*
   *b) Bi.*
   *c) Bi eta xerpa bat.*
   *d) Sei eta xerparik ez.*

5. *Kanadiar bat hila suertatu omen. Non?*

   *a) Himalaian.*
   *b) Everesten.*
   *c) Norton-en.*
   *d) Lhotse-n.*

## 2. TESTUA

Bi espedizioak —nafarrena eta suediarrena, alegia— bateratsu ziren Everestera igotzekoak; horregatik elkarrekin jokatu beharra gertatu zitzaien, hobari guztiak suediarrendako zirelarik. Suediarrekin ituna egin zen, bi nafarrei gora heltzeko azken eguna ekainaren 9a ezartzen zitzaielarik. Bestalde, nafarrak ezin has zitezkeen saioa egiten, suediarrek aurretik bi saio egin arte.

Hasieran nafarrek materiala igotzeko behar zituzten hiru garraio-abereak suediarrek ukatu egin zizkieten eta harremanak hotzak ziren. Beranduago gauzak konpontzen hasi ziren, suediarrek Mari eta Josema bazkaritara eta afaritara gonbidatuaz. Azkenik, 8.100 metrotan denda ipintzen ere lagundu zieten. Mendi goietan entzefalograma ere egin zieten. Bere adierazpen guztietan, Mari oso eskerronekoa agertu da suediarrekin.

Esatekoa da baita ere mendigoizaleek suediarren hedadura sareari esker jasotzen zituztela gutunak eta telefono deiak. Jasotako gutunak anitz ziren, eta mendigoizaleek gehiago eskatzen zuten, beren animoa indartzen zuten eta.

I. CAMINO,
*Argia,* 1157 zkia. (1987/VI/28)-(moldatua)

6. *Bi espedizioek elkar hartu behar izan zuten. Zergatik?*

   a) *Talde-lanak ondorio hobeak dakartzalako.*
   b) *Agintariek horretara behartu zituztelako.*
   c) *Bi espedizioek elkarrekin prestatu zutelako igoera.*
   d) *Biak fetxa beretsuetan igotzekotan zirelako.*

7. *Itunaren ondorioz, nafarrak hasten zirenerako, zein bentaja zuten suediarrek?*

   a) *Nafarren tresneria erabil zezaketela.*
   b) *Ekainak 9 arte euren saioak ez besterik izango zirela.*
   c) *Bi igoera saio egin zitzaketela.*
   d) *Itunak ez zuen alde onik.*

8. *Harremanak, haseran, hotzak ziren islada da:*

   a) *Itunaren beraren sinaketa.*
   b) *Ez da horrelakorik aipatzen.*
   c) *Suediarrek ez zizkietela nafarrei garraio-abereak utzi.*
   d) *Mendi goietan zeudela entzefalogramak egin zizkietela.*

9. *Zein gertakari konkreturekin hasi ziren konpontzen gauzak?*

   a) *8.100 metrotan denda ipintzeko laguntzarekin.*
   b) *Nafarrak bazkari eta afaritara gonbidatzean.*
   c) *Ez zegoen ezer konpondu beharrik, erlazioak onak ziren eta.*
   d) *Gorago aipatu dugun itunaren sinaketarekin.*

10. *Mendigoizaleak eskutitzen eske ziren...*

   a) *mendiko bakardadea uxatzeko.*
   b) *animoa indartzen zutelako.*
   c) *telefonorik ezin erabil zezaketelako.*
   d) *ez dute era horretako eskerik egiten.*

# AHOZKOAREN ULERMENA-2

## 1. TESTUA

### Bertsolaritzaz

Hamaika aldiz esan eta aipatu izan dut txapelketak duen indarra eta ahalmena, bertsolari batzu gora igo eta beste batzu ia erabat desagertarazteko. Jaialdi edo saio arruntetan oso ongi jardun ohi dutenak ere, askoz gutxiago ibili ohi dira txapelketan nabarmendu izan ez diren urteetan. Eta horrelako zerbait gertatzen zaie txapelketan parte hartzeari utzi ziotenei ere.

Joxe Agirre, Joxe Lizaso, Lazkao-Txiki, Mitxelena, Txomin Garmendia eta abarrek utzi egin diote txapelketan izena emateari, eta ez zaie agian, arrazoirik falta. Aspaldi hasi ziren bertsotan, aspaldi irabazitako izena dute eta badakite txapelketa 'leoncastillo' bat dela, eta urte askotako izena egun bateko gorabeheragatik ez dute jokoan jarri nahi.

Baina erabaki horrek ez ditu denak alderdi onak. Txapelketan izenik ematen ez duen jendeaz pixka bat ahaztu egiten da jendea. Eta niri gehiegi gustatzen ez zaizkidan zortzi bertsolaritako saio grandioso horietara, txapelketan ibilitako jendea eraman ohi dute gehienbat, zergatik ongi ulertzen ez dudan arren.

Lehen aipatu ditudan bertsolari horietako batzu, ondorioz, mindu samarturik daude, edo penaturik bai behintzat, saio horietarako deitzen ez zaielako.

X. EUSKITZE,
*Eguna* 1987-X-29 (moldatua)

1. *Bertsolari txapelketak, idazlearen iritziz*

   a) *indar eta ahalmen handia du bertsolari baten karreran.*
   b) *min handia eman izan dio bertsolari bati baino gehiagori.*
   c) *urtero egin beharko lirateke bertsolari gazteak promozionatzeko.*
   d) *luzeegiak direlako bertsolari edadetuak ez dira joaten.*

2. *Txapelketan parte hartzen ez duenak nolabaiteko galerarik ba al du?*

   a) *Bai, gutxiago deitzen diote eta.*
   b) *Bai, gutxiago ordaintzen diote eta.*
   c) *Ez, lehen adina saio egiten jarraitzen baitu.*
   d) *Ez, lehen baino saio gehiago egiten baitu.*

3. *Joxe Agirre, Joxe Lizaso, Lazkao-Txiki, Mitxelena eta abarren erabakia, idazleak...*

   a) *ez du ulertzen.*
   b) *oso ondo ulertzen du.*
   c) *erabat kritikatzen du.*
   d) *zeharo goratzen du.*

4. *Zortzi bertsolaritako saio handi horiek, idazleari...*

   a) *ez zaizkio batere gustatzen.*
   b) *gehiegi gustatzen zaizkio.*
   c) *sistima oso ona iruditzen zaizkio.*
   d) *ikaragarrizko beldurra ematen diote.*

5. *Gorago aipaturiko bertsolari horietako batzu mindurik ote daude?*

   a) *Ez, osterantzean ere deitzen zaie eta.*
   b) *Bai, baina autoreak ez du esaten zergatik.*
   c) *Bai, ez zaie deitzen eta.*
   d) *Ez, nahi beste deitzen zaie eta.*

## 2. TESTUA

### Olinpiadak

Olinpiadak, Olinpismoaren filosofiaren zatitxo bat baizik ez dira. Olinpismoa, Pierre de Coubertin baroi frantsesak aldarrikatu zuen XIX. mendearen amaiera aldera, herrien arteko bake, batasun eta adiskidetasun bezala. Eta bide horretatik, ideal horien agerpen nagusi izango ziren Olinpiar Joko Modernoak sortu zituen 1896an.

Olinpiar Jokoak, ordea, lehenagokoak dira. Kristo aurreko 776. urtean ospatu ziren lehen Olinpiadak Olinpia izeneko herriskan. Baina, halere, ez ziren ospatzen ziren Joko bakarrak; Greziako beste zenbait herritan ere, beste hirutan zehazki, Joko Pitikoak, Ismikoak eta Nemekoak ospatzen ziren, Apolo, Poseidon eta Zeus-en omenez.

Jokoak ez ziren prestakuntza fisikoa agertzeko soilik, ospakizun erlijiosoak ere baziren eta beren helburua, gorputza eta arima elkartuz, greziar gizon perfektoa, indartsua, jakintsua eta ederra lortzea zen. Xede hauen inguruan hartu zuen garra eta indarra heleniar zibilizazioak, eta historia osoko arkitektura eta eskultura garrantzitsuenetarikoak egin ziren.

A. ELOSEGI,
*Argia* 1163 zkia., 1987-IX-6 (moldatua)

6. *Pierre de Coubertin baroi frantsesaz zer EZ da esaten?*

   *a)* *Olinpiar Joko Modernoak sortu zituela.*
   *b)* *Olinpismoa aldarrikatu zuela XIX. mende bukaeran.*
   *c)* *«Garrantzizkoa ez dela irabaztea, partehartzea baino».*
   *d)* *Olinpismoak herrien arteko bake, batasun eta adiskidetasuna nahi duela.*

7. *Lehen Olinpiar Jokoak noiz ospatu ziren?*

   *a)* *K.a. 766. urtean.*
   *b)* *K.g. 1896. urtean.*
   *c)* *K.g. 766. urtean.*
   *d)* *K.a. 776. urtean.*

8. *Autorearen esanetan, Grezian zenbat herrik zituzten beren jokoak?*

   *a)* *Lauk.*
   *b)* *Hiruk.*
   *c)* *Hainbatek.*
   *d)* *Denek.*

9. *Greziako Jokoen azken helburua zein zen?*

   *a)* *Greziar gizona jainkotzea.*
   *b)* *Erabat fisikoa zen.*
   *c)* *Greziar gizon perfektoa lortzea.*
   *d)* *Gorputza eta arima elkartuz gizona salbatzea.*

10. *Greziar arkitektura eta eskulturari buruz honako hau esaten da:*

   *a)* *historian garrantzitsuenetarikoak izan zirela.*
   *b)* *helburu erlijiosoak zirela beti ere horien eragile.*
   *c)* *Olinpiar Jokoen ondorioz sorturikoak direla.*
   *d)* *ez da horren aipamenik batere egiten.*

## AHOZKOAREN ULERMENA-3

## 1. TESTUA

### Juan Luis Larraza: hamar urte Nafarroako Ikastolen Federazioaren Idazkari

EGUNA: Hamaika ikusita zaudete mundu honetan mugitzen zaretenok. Hamaika eta gorriak, gainera, Nafarroan. Azken bolada honetan erasoaldien aurrean —hala nola «vascuence»aren legea—, ez al zaituzte jan azken mohikano konplexuak?

JUAN LUIS LARRAZA: Azken mohikano konplexu hori hau bezalako egunak pasatakoan iristen da, zeure buruari «eta orain zer?» galdetzen diozunean, eguneroko lan isilean. «Nafarroa oinez» bezalako egunak izugarrizko indar injekzioa izaten dira guretzat, eta behar bada zuek uste baino garrantzi handiago edukitzen du hainbat jende inguruan eta lagundu nahirik ikusteak. Hemen, Zangozan, datorren asteko bileran jendea pozik egongo dela imajinatu nahi dut. Lehenengo pausoa eman dute. Ez zuten uste honelako zerbait antolatzeko gauza izango zirenik, eta egin dute. Baina hemen dator galdera: eta orain zer? Ikastola berria eraikitzeko terrenoak erostearekin hasi baizik ez da egiten...

Amejoramenduaren 9garren artikuluaren ondorioz onartu zen Legeari dagokionez, oraindik ez da hasi aplikatzen. Baina Lege horren azken muga ikastolak desager eraztean dagoela argi dago.

E.: Lege horren alde agertu ziren nafar agintariak, ordea, Zangozara agertu ziren, eta milioi bateko txekea eskutan zutela...

J.L.L.: Bai, eta ni beldur nintzen... Baina etorri dira, eta pozez hartu ditugu. Batetik, dirutza hori garrantzitsua delako eta, bestetik, jarrera aldetik aldaketa susma daitekeelako. Agian ez dira zorrotzegiak izango Legearen aplikazioan...

N. AZURMENDI,
*Eguna,* 1987-10-15

1. *Kazetariak aipatzen duen konplexua*

   a) *ez da inondik azaltzen.*
   b) *eguneroko lanean ematen da.*
   c) *honelako egunak prestatzean azaltzen da.*
   d) *urtero ematen da.*

2. *Hainbat jende inguruan ikustea(k)*

   a) *arazoak sortzen ditu.*
   b) *erantzukizun haundia da.*
   c) *garrantzi haundia du.*
   d) *harrigarria da.*

3. *Zangozako ikastolakoek, «Nafarroa oinez» antolatzean*

   a) *hori egiteko gai direla frogatu dute.*
   b) *erabateko arrakasta izan dute.*
   c) *bidearen zati haundia egin dute.*
   d) *ez dute arazo haundirik izan.*

4. *Amejoramenduaren 9. artikulutik sortu zen legea*

   a) *laster hasiko dira aplikatzen.*
   b) *ikastolen onerako izango da.*
   c) *ikastolen kalterako izango da.*
   d) *aplikatzen hasi dira.*

5. *Lege horren alde agertu ziren nafar agintariengan*

   a) *beldurrezko jarrera susma daiteke.*
   b) *aldaketaren bat gertatu dela dirudi.*
   c) *jarrera zabala nabari da.*
   d) *aldaketa nabaria gertatu da.*

## 2. TESTUA

### Juan Luis Larraza: Hamar urte Nafarroako Ikastolen Federazioaren Idazkari

Zangoza eta Irunberriko ikastoletako arduradunen arazoak haur eta diru kopuru eskasetan oinarritzen dira. Bi herri hauek Nafarroaren «euskalduntasuna» erabakitzen duen marratik behera gelditzen dira. Legeak, beraz, erdaldun bilakatu ditu. 60 ikasle ditu Zangozako ikastolak, eta 8 iristen zaizkie egunero Irunberrikotik. Juxtu-juxtu eserita egoteko tokia omen daukate haurrek gaur eguneko etxe eskasean.

Zangozako ikastolako arduradunetako batek esaten zuenez, «gaur behintzat herrikoek zoro hutsak ez garela ikusi ahal izan dute. Euskaraz hitzegiten duen kanpoko jende asko etorri zaigula. Ez dakizue norainokoa izan daitekeen honen eragina...».

EGUNA: Zenbaki hauek, kopuru hauek, arazo hauek, urrun gelditzen zaizkigu askotan...

JUAN LUIS LARRAZA: Bai, mundu desberdinak dira. Gipuzkoa edo eta Bizkaian orain dela hamar urte planteatzen ziren problemak dira hauek. Nafarroan bertan ere egoera desberdinak daude, Iparraldean, ingurune euskaldunetan, ikastolaren arazoa, finkatzea da. Hemen ordea, gogorragoak dira gauzak.

Ikastolako gurasoek antolatu dute egun hau, eta ezinezkoa iruditzen zitzaien aurrera ateratzea. Baina eurek egin dute, eta horrek izugarrizko inportantzia dauka. Konfederakundearen bidez, harreman handia daukagu Euskal Herriko gainerantzeko ikastolen mugimenduarekin, baina, orokorki, urtean zehar ez da lortzen igandekoa bezalako egunekin lortzen den harreman eta lotura giroa. Eta, berriro diot, oso garrantzitsua da hori guretzat.

Medio aldetik ere argi gelditu dira gure ahalbideak. Ezin izan dugu publizitate kanpaina handirik egin. Baina deia larria izan da, beharrak ere larriak direlako. Termino horietan luzatu dugu deialdia, laguntza behar-beharrezkoa genuelako. Eta erantzunak asko poztu gaitu.

N. AZURMENDI,
*Eguna,* 1987-10-15

6. *Zangoza eta Irunberriko ikastolak/ek*

   *a) haur nahikoa dute baino dirua eskas.*
   *b) dirua badute baina haurrak gutxi.*
   *c) haurrak eta dirua falta zaie.*
   *d) egoteko tokirik ere ez dute.*

7. *Zangoza eta Irunberri «erdaldunak» dira*

   *a) legeak hala esaten duelako.*
   *b) ikastola txikiak dituztelako.*
   *c) inork euskaraz ez dakielako.*
   *d) legeak bestela badio ere.*

8. *Gipuzkoa edo Bizkaiarekin konparatuz, Nafarroan*

   *a) arazoa euskara finkatzea da.*
   *b) hamar urtetako atzerapena dute.*
   *c) arazoak ez dira hain gaitzak.*
   *d) arazo berdintsuak dituzte.*

9. *Igandekoa bezalako egunaren antolaketa*

   *a) konfederakundearen bidez egin zen.*
   *b) ikastolako haur eta gurasoen esku egon zen.*
   *c) Nafarroako federazioaren esku egon zen.*
   *d) ezinezkoa iruditu zitzien ikastolako gurasoei.*

10. *«Nafarroa oinez» egunak*

   *a) baliabide ugariak izan ditu.*
   *b) pozteko moduko erantzuna izan du.*
   *c) nahi baino erantzun eskasagoa izan du.*
   *d) publizitate kanpaina egokia izan du.*

## AHOZKOAREN ULERMENA-4

### 1. TESTUA

### Pablo Muruarekin hizketan

ZABALIK.— Aurrera komentatu beharko dugu zer den buzkantza eta zer odolkia, oraingo jendeak ez daki eta.

PABLO M.— Odolkia txerrikiarekin egiten da. Eta nahasten zaio ardiki pixka bat ere, eta txahalarena ere bai. Hori da odolkia. Eta buzkantza da ardikiarekin egiten dena. Buzkantza edo odolkia, nahi duzuna, hola ere esaten zaio.

ZABALIK.— Noiz hasten zarete zuek odolkia egiten?

PABLO M.— Bada, irailaren azkeneko astean hasten gara gu. Garai batean harakinak Santa Fe inguruan hasiko ziren, urriaren 6an, edo akaso urriaren erdi aldera. Ez naiz garbi akordatzen, baina hamabost egun goiti-beheti, hor izango zen.

ZABALIK.— Eta makinaria sartzea ze urtetan izango zen?

PABLO M.— Makinari kontua geu orain hamar-hamabi urte hasiko ginen. Eta besteak ere halamoduz hasiko ziren.

ZABALIK.— Orain odolkiak egiteko fabrikatik ekartzen da tripa.

PABLO M.— Bai, «moños chinos» esaten zaie. Aspaldi hasi ziren. Dena dela, orain ere ibiltzen da kamioi batean Tolosako Cortés txahalen tripa saltzen; baina «moño» horiek buelo txikiagoan etortzen dira eta askozaz hobe lanerako.

ZABALIK.— Jeneralean harakinek gurasoei entzundako sistemaz egingo dituzte odolkiak, baina bere esperimentu txikiak ere egingo dituztela pentsatzen dut...

PABLO M.— Bai, hemendik gehiago nahastu, handik gehixeago nahastu. Guk ia jarrita daukagu: hemendik hainbeste, hemendik hainbeste, hemendik hainbeste, eta kitto.

ZABALIK.— Osagarriak uste dut hauek direla: odola, manteka, sebo puskak, oreganoa, tipula eta porrua. Eta handik aurrera besterik?

PABLO M.— Bai, beste bat: piper mina. Guk geuk ez diogu besterik botatzen; beste batzuk anisa eta kanela botatzen diote.

ZABALIK.— Eta arrozik? Irudipena daukat Donostian nahasten diotela.

PABLO M.— Donostian bakarrik ez. Legazpian ere bai, eta baita beste toki askotan ere. Eta hobeto, esaten dute batzuk, baina guk sekula ez diogu nahastuko, ezta pentsatu ere gainera.

F. IBARGUTXI,
*DV Zabalik* 1987-XI-11

1. *Buzkantza eta odolkia bereizteko:*

   a) *Odolkiak txerrikia bakarrik du.*
   b) *Buzkantzak ardikia bakarrik du.*
   c) *Buzkantzak ez du ardikirik.*
   d) *Odolkiak ez du txerrikirik.*

2. *Odolkiak egiten,*

   a) *lehen baino beranduago hasten dira orain.*
   b) *lehen baino arinago hasten dira orain.*
   c) *orain Santa Fe inguruan hasten dira.*
   d) *lehen Urriaren 6an hasten zirela seguru dago.*

3. *«Moños chinos» deitzen zaio,*

   a) *fabrikako tripari.*
   b) *makinariari.*
   c) *Tolosako Cortés-ek ekartzen duen txahalen tripari.*
   d) *fabriketako odolkiari.*

4. *Esperimentuak direla eta, ...*

   a) *ez diote lehengo sistema zaharrari eutsi.*
   b) *ez dago odolkietan esperimenturik egiterik.*
   c) *Pablo Murua eta amorratuak dira esperimentuak egiten.*
   d) *Pablo Muruak eta ez dute jada esperimenturik egiten.*

5. *Ormaiztegitar hauek odolkiari*

   a) *batzutan arroza nahasten diote.*
   b) *sekula nahastu ez dioten arren, nahastu ez nahastu pentsatzen ari dira.*
   c) *ez diote sekula nahastu, ezta nahastuko ere.*
   d) *arroza nahastea hobe dela pentsatzen dute.*

## 2. TESTUA

### Odolkiaren urrezko garaian sartu gara

Hemengoa ez den baten bati kontatu ezkero, nazka emango dio seguru aski odolkiak edo mondejuak nola egiten diren jakiteak. Gaurko pentsamoldetik begiratuta ez bait da oso lojikoa heste batean odola, seboa eta zenbait berdura sartzea, hura egosi eta gero jatea. Erosle gazteen eraginez xerra nagusitu den honetan, bada jenero asko eta asko harategietako apaletatik ia-ia desagertu dena, konparazio baterako arkumeburua, txerriburua, urdaia eta txerri-gibela. Baina odolki eta buzkantzei ez zaie oraindik krisirik ailegatu; areago, esan liteke gora doan gauza dela. Ikusi besterik ez dago nola ugaldu diren azken urteotan txapelketak. Hasiak gara odolkiari merezi duen estimazioa ematen.

Denetan famatuena Beasaingo Odolki Txapelketa da. Iaz hasi zen eta urtarrilaren azkeneko astean egiten da. Gero, otsailaren 5ean, Tours-eko San Martin egunean, hango Odolkiaren Kofradiakoak biltzen dira elizatarian eta irabazleak egindako odolkiak jaten dituzte. 130 lagun badira kofradia horretan. Aurreneko urtean Pablo Murua ormaiztegiarrak irabazi zuen, aurten berriz Beasaingo Olanoren alargunak.

Bestetik, aurten lehenengo aldiz, Ormaiztegiko udalak ere bere txapelketa antolatu du herriko jaietarako, Sanandresetan, hil honen 30ean.

Baina bada lehendik datorren beste txapelketa bat, Zumarragakoa hain zuzen, iaz ezkero «Memorial Jose Maria Busca Isusi» izena duena. Santalutzietan egiten da, abenduaren 13an, udalak antolatua berau ere. Ez da odolki-txapelketa, buzkantzarena baizik. Aurten laugarren ediziora ailegatuko den lehiaketa hau orain artean gehienbat Goierri mailan izan bada ere, aurrerantzean gehiago zabaltzeko asmoa dute. Iaz 11 partaide izan ziren eta behin baino gehiagotan Iñaki Campos ormaiztegiarra gertatu da irabazle.

*D.V. Zabalik* 1987-XI-11

6. *Odolkiak nola egiten diren jakiteak*

   a) *gure sekretua izan behar du.*
   b) *ez dio inori nazkarik zertan eman.*
   c) *kanpotarrei nazka emango die seguru asko.*
   d) *bertokoei nazka emango die seguru asko.*

7. *Harategietako apaletan gaur,*

   a) *ez da ia-ia odolkirik ikusten.*
   b) *lehengo hainbat jenero ez da ikusten.*
   c) *odolkia ikusten da, baina gero eta gutxiago.*
   d) *krisiak ez du eraginik izan.*

8. *Beasaingo odolki Txapelketa.*

   a) *Beasaingo elizatarian egiten da.*
   b) *Urtarrilean hasi eta Otsailaren 5ean amaitzen da.*
   c) *Beasaingo odolkiaren kofradian egiten da.*
   d) *Irabazlearen odolkiak jateko biltzen dira odolkiaren kofradiakoak.*

9. *Odolki txapelketen tradizioa.*

   a) *Ormaiztegikoa Zumarragakoa baino lehenagokoa da.*
   b) *Iaz ezkero dago Zumarragan odolki txapelketa.*
   c) *Ez da iaz arte odolki txapelketarik izan Zumarragan.*
   d) *Zumarragako txapelketak badu Ormaiztegikoak ez duen tradizioa.*

10. *Zumarragako txapelketa*

    a) *odolki eta buzkantza txapelketa da.*
    b) *buzkantza txapelketa da, ez odolkiarena.*
    c) *hemendik aurrera Goierri mailara mugatuko da.*
    d) *Santalutzita da txapelketa ospatzen den lekua.*

## AHOZKOAREN ULERMENA-5

### 1. TESTUA

### Manuel Lasarterekin hizketan

Urte asko egin ditu Manuel Lasartek nekez bertsotan, kantari hasteko ordua heldu eta hori baino beste edozer nahiago. Eta azkenean, mila aldiz pentsatu zuena egin zuen: gehiago ez kantatzeko erabakia hartu.

EGUNA.— Manuel, urte asko izan dira plazarik plaza, herririk herri ibiltzeko. Zu aspaldiko bertsolaria zara.

MANUEL LASARTE.— Bai, hain aspaldikoa ere! Hamazazpi urterekin hasi nintzen kantari eta atera kontuak. Lehen saioa Zaldibarren egin nuen, Eibarren lanean ari nintzelarik. Asteasuko Joxe Lamitegik tentatu ninduen. Nik ez nuen inondik joan nahi eta hasieran ezetz esan nion baina gero, hobeto pentsatu nuen. Hamarna duro jasoko genituela agindu zidan eta hileko hemezortzi irabazten zituen batentzat bazen zerbait. Egin genuen goizeko jarduna eta larri ibili nintzen. Arratsaldez hobeto. Eta bukaeran, pozik geratu omen zirela eta, hogeina duro eman zizkiguten. Haiek ez dakit pozik geratuko ziren, baina ni behintzat, bai. Gero berehala hasi nintzen Basarri, Uztapide eta abarrekin kantari.

E.— Zaletasuna nondik zetorkizun?

M.L.— Neuk ere nola ez dakidala sortu zitzaidan. Leitzan anaiarekin artzai ibiltzen nintzen eta asko kantatu ohi zidan. Bestalde, bazen inguru haietan tren txar bat ere, Plazaolako trena deitzen genionа. Trenbideetako langileetako batek ere maiz kantatzen zuen eta ni tentatzen ere egin ohi zituen ahaleginak. Mendian ibiltzen ziren bi mandazaik ere izan zuten eraginik. Biak ziren kantore izugarriak eta bertso zahar asko zekiten. Ni beti inguruan izaten ninduten. Bidera irteten nintzaien eta nik eskatu ahala, haiek kantatu.

X. EUSKITZE,
*Eguna* 1987-XI-5

1. *Gehiago ez kantatzeko erabakia*

   a) *hartzea ez zitzaion azkenera arte bururatu.*
   b) *kostata baina hartu du azkenean.*
   c) *bertso txarrak kantatzen aspertu delako hartu du.*
   d) *beste lanbide batean hasi eta astirik ez duelako hartu du.*

2. *Manuel Lasarte aspaldiko bertsolaria dela esatean, esan nahi da*

   a) *bertsolari tradizionala dela.*
   b) *bertsolari gaztea dela.*
   c) *ez dela bertsolari gaztea.*
   d) *aspaldi kantatzen zuen bertsolaria dela.*

3. *Lehen saioa.*

   a) *Desiratzen zegoen kantatzen hasteko.*
   b) *Joxe Lamitegik jarri zituen bertsotarako gaiak saio hartan.*
   c) *Agindu zioten diruagatik, ez zuen merezi hara joatea, baina hala ere joan.*
   d) *Agindu zioten diruak hobe pentsaerazi zion, eta joan egin zen.*

4. *Zaldibarko saioan,*

   a) *goizeko jardunean arratsaldekoan baino hobeto ibili zen Manuel.*
   b) *ez zuen Manuelek asko pentsatzen etxera 20 durorekin itzuliko zenik.*
   c) *hogei durokoa eman zieten bien artean partitzeko.*
   d) *bukaeran, batzuk ez zirela pozik geratu pentsatzen du Manuelek.*

5. *Manuelen bertsotarako zaletasuna*

   a) *ez zen bere familian batere zaletasunik.*
   b) *Leitza inguruko tren txar hark kalte baino ez zion egin bere zaletasunari.*
   c) *mendiko mandazaiek asko lagundu zioten, sarri etortzen bait zitzaizkion bertsoak entzutera.*
   d) *mandazaiak somatu orduko, han joaten zen Manuel bertso eske.*

## 2. TESTUA

### Manuel Lasarterekin hizketan

E.— Bertso zahar asko ikasiko zenuen haiengandik.

M.L.— Ez, bertso zaharrik apenas inoiz ikasi dudan eta dakidan. Inoiz ez zait gustatu besterenik ikastea. Bertso zahar asko dakienak haiek kantatzeko arriskua izaten du. Afizioa orduan indartu zitzaidala uste dut baina, ez nuen ia bertso zaharrik ikasi. 63an hartu nuen eskutan lehen bertso liburua, 36 urte nituela baina, ez nik erosita, Aian apaiz zegoen Andoni Lekuonak utzita baizik.

E.— Bertso liburuak irakurtzeko ere ez al duzu afiziorik izan?

M.L.— Ez egundo. Lehen denbora faltaz ez nuen ezer irakurtzen, orain gogo faltaz. Etxean ere badut zenbait bertso liburu baina, gehienak oraindik ikutu gabe. Neurea ere ez dut osorik irakurri. Asti gutxi beti izan dut, baina arreta gutxiago.

E.— Plazetan ez kantatzeko erabakia hartu zenuenetik ez dugu inon zure ahotsik sumatu, irratiz grabazio zaharren batetatik izan ezik. Zergatik hartu zenuen erabaki latz hori?.

M.L.— Kantuari uzteko erabakia latza zen noski baina, ez kantari jarraitzea bezain latza, inoiz probatu al duzu zer den kantuan hasteko orduan barruko tristura izugarri baten menpe egotea?. Ba, behin probatzea ez da ezer. Nik hamar urte baino gehiago egin ditut horrela eta ez da posible. Iazko Ekainaren batean hartu nuen uztearen erabakia. Usurbilen goizez eta Anoetan arratsaldez oso larri ibili nintzen, botako-ez botako. Uztea latza izan zen, baina latzagoa hainbeste urtez horrela ibiltzea. Oraindik ere izaten ditut abisuak. Ez dakit erretiratu naizela ez dakitelako ala berriro hasiko naizela uste dutelako. Nik, dena den, egin beharrekoak egin ditut.

Triste aurkitu nuen bai Manuel Lasarte, oso triste. Eta beti eredu nagusi bezala izan dudan honi gehiago bertsorik entzungo ez diodala jakiteak, neu ere tristetu egin ninduen. Manuel ikaragarria izan da, historian haundien haundienetakoa. Bere dohain guztietatik bat aipatuko dut. Inor ez daiteke neka berari entzuten. Ez al da dohain haundia? Oraindik pozik entzungo genuke bere ahotsa baina, hori biloba txikiarentzat erreserbatutako ohorea izango da, tamalez hemendik aurrera.

X. EUSKITZE
*Eguna 1987-XI-5*

6. *Bertso zaharrak.*

a) *Ez zuen apenas ikasi, ezta ikasi nahi ere.*
b) *Bertso zaharrak ikasteko afizioa mandazaietatik datorkio.*
c) *Ez du bertso zaharrak ikasteko gaitasunik izan.*
d) *Ez du bertso zaharrik ikasi Andoni Lekuonak utzitako liburua irakurri arte.*

7. *Bertso liburuak*

a) *Orain arte izan ez badu ere, orain badu horiek irakurtzeko afiziorik.*
b) *Irakurtzen hasi egiten da baina aspertu egiten da berehala.*
c) *Bere liburua ere ez da irakurtzen hasi.*
d) *Ez du ez astirik ez gogorik izan irakurtzeko.*

8. *Plazetan ez kantatzeko erabakia*

a) *ez da plazetan jarraitzea bezain latza izan.*
b) *ez da erabatekoa izan, harrez gero irratian kantatu bait du.*
c) *behin barruko tristura izugarri baten menpean egon zelako hartu du.*
d) *hartu arren, kantari jarraitzea nahiago izango zuen.*

9. *Utzi ondoren, izaten ditu abisuak*

a) *eta joaten da kantatzera batzutan.*
b) *baina ez da joan kantatzera, ezta joango ere.*
c) *oraindik erretiratu ez erretiratu zalantzan dagoelako.*
d) *eta berriro hasiko dela pentsatzen du.*

10. *Elkarrizketagilearentzat, Manuel Lasarte*

a) *triste dago, baina ez horrenbeste.*
b) *handia izan den arren, batzutan nekagarria ere gertatu da.*
c) *bertsotan entzunda, ez dago aspertzerik.*
d) *biloba txikiarekin agertuko da plazan kantari.*

## AHOZKOAREN ULERMENA-6

### 1. TESTUA

#### Euskal nekazaritzaren etorkizuna (mahai ingurua)

A. LEKUONA: Profesionaltasuna inportantetzat jotzen da Sindikatu aldetik. Eta profesional izateak baditu bere eskakizun eta oinarriak. Bat, prestakuntza da; prestakuntza, gainera, bi eratakoa: batetik, eskolan egiten dena dago, bere garai batean eta ordu jakin batzutan eta metodo jakin batzurekin egiten dena; eta bestetik, eguneroko prestakuntza dago, heziketa etengabe deitua. Biak behar ditugu profesional izateko.

Prestakuntza eta heziketa horren barruan, puntu bat aipatu behar da: eskolak. Eskolak nola dauden, edo nola ikusten ditugun, nolakoak izan beharko luketen. Nire ustez, berezitasun batzu behar ditu eskolak: badira hor eztabaidak, gaztetan egiten den eskola horrek nekazari-eskola izan behar duen, nekazarientzat bakarrik, nekazariak aparte hartuta, ala mundu zabalago batean sartua egon behar duen, hau da, lanbide-eskolak nekazaritzakoa bakarrekoa izan beharko lukeen ala beste sektoreetakoekin batera egon beharko lukeen. Nik neure eritzia (eta are esperientzia) agertuko dut: nire ustez, nekazari-eskolek izan behar dute, nekazarientzat bakarrik. Zergatik? Batez ere, nekazari-giroak segi dezan eskola horietan; bestetik, sektore desberdinetako ikuspuntuak nahas ez daitezen. Nik behintzat daukadan esperientzia hau da: nekazariak bakarrik zirenean, giroa sortzen zen eta gauzak sakontzen ziren; nekazariak eta nekazari-herrietako jendeak nahasten zirenean, berriz, nekazaritza beti bigarren mailan geratzen zen. Nire ustez, beraz, nekazarientzat soil eta nekazari-munduari begira egina behar du izan eskolak. Hala erakutsi digu esperientziak.

K. ENBEITA: Nik ez dakit gaur posible den Administrazioaren aldetik guk izan dugun esperientzia berritzea: txikitan, eskolara joaten ginen, eta etxean lana zegoenean, etxean egon beharra izaten genuen; edo goizean eskolara eta arratsaldean lanera ibiltzen ginen. Horrela, baserriko lan guztietan parte hartzen genuen. Gaur gure umeak baserrian bizi dira, baina kanpoan ikasten dute, eta ez dute bizi baserriko lana; eta lehen kaletarrek ikusten zuten bezala ikusten dute baserria. Hori konpontzeko, herriko eskola haietara itzultzerik bai ote? Ez dakit. Profesionaltasuna, nolanahai ere, unibertsitatean ere lor daiteke. Dena dela, hori baino lehenagoko arazoa daukagu baserritarrok: nolabait bizi egin behar dugu.

*Jakin, 35 zkia., 1985*

1. *Profesionalen prestakuntzak nolakoa izan behar du?*

   *a) Eskakizun eta oinarriak dituena.*
   *b) Bere garaian eta orduekin.*
   *c) Eskolakoa eta egunerokoa.*
   *d) Ordu eta metodo jakin batzuetan egitekoa.*

2. *Zer eztabaidatzen da nekazaritza-eskolen inguruan?*

   *a) Nola dauden eta nola ikusten diren.*
   *b) Zein berezitasun behar dituen.*
   *c) Gaztetan egin behar ote den.*
   *d) Lanbide eskolak izan behar ote duten.*

3. *Hizlaria nekazarientzat bakarrik izango den eskolaren alde dago. Zergatik?*

   *a) Ikuspuntu desberdinak nahastu ez direlako.*
   *b) Herrietako jendearekin nahastea aberasgarri delako.*
   *c) Eskola munduari begira egoteko.*
   *d) Besteekin nahastea nekazari giroaren kalterako delako.*

4. *Enbeita txikia zenean baserriko umeak noiz gelditzen ziren lanean.*

   *a) Goizean.*
   *b) Arratsaldean.*
   *c) Goiz eta arratsalde.*
   *d) Lana zegoenean.*

5. *Zerk kezkatzen du gehien Enbeita?*

   *a) Bizi beharrak.*
   *b) Profesionaltasunak.*
   *c) Kaletarren ikuspegiak.*
   *d) Baserriko haurren egoerak.*

## 2. TESTUA

### Euskal Nekazaritzaren etorkizuna (mahai ingurua)

JAKIN: Zein da baserri-eskolen egoera une honetan?

J.M. ZEBERIO: Hiru Lurraldeetan daude nekazari-eskolak: Araban bat, 90 ikaslerekin; Bizkaian aurten jarri da, 15 ikaslerekin; Gipuzkoan dago bestea, 50 bat ikaslerekin: Fraisoro. Eta, gero, Zabalegi dago: lehen ere nekazari-eskola izana da (nahiz ez «arautua», tituluak emateko eta): urte batzuren ondoren, berriro ekin dio Zabalegik ikastaldiak prestatzeari.

P. IRALUR: Iparraldean badira bi eskola-mota. Bata gazteentzat da: gazte batek eskolak segitu nahi baditu, badu horretarako bide bat, eta, bidearen buruan, tekniko izango da: nekazari-batxilergoari edo goimailako teknikoari dagokion diploma lortu ondoren, edo segitzen ahal du tekniko bezala edo lan egiten ahal du nekazari bezala. Bigarren bidea, eskolan ibilia ez denarentzat da: batek bere baserria hartu nahi baldin badu, edo laguntzak jaso nahi baditu bai Bankutik bai Estatutik, behar ditu edo 600 edo 400 edo, gutxienez, 200 oren egin eskolan.

Hemen esan da, beharrezkoa dela laborari bezala hezia izatea. Ez dakit: orain arte gizon oso berezia zen laboraria: berezia zen, nekazaria zelako; eta anitz aldiz nekazari zen, besterik egiten ahal ez zuelako. Iruditzen zait, besteekin nahasteak gauza onak ere badituela, nekazaritza beste lanbideen hein berean jartzen bait da.

Bestalde, heziketa horretan zer laborari-mota prestatzen digute egun? Ohartzen ari gara, eskolan jasotzen den heziketa arrunt alderdikaria dela. Bada orain laborari-tipo bat: 20 urteko gazteak, eskolatik ateratzen direlarik, lehen baino biziki berdinago dira denak: alimaleko sinestea dute teknikan, ez dute bide bat baizik ezagutzen, eta bide hori da egia bakarra. Erran nahi bait da: izpiritu kritikorik gabe ateratzen dira eskolatik.

*Jakin* 35 zkia. 1985.

6. *Zenbat nekazari eskola daude Autonomi Elkartean?*

   *a) Hiru.*
   *b) Lau.*
   *c) Bost.*
   *d) Zazpi.*

7. *Iparraldean, zertarako dira aipatzen diren bi ekola motak?*

   *a) Gazteek nekazaritza ikasteko.*
   *b) Goi mailako tekniko izateko.*
   *c) Batxilergoa egiteko.*
   *d) Nekazaritza ikasketak egiteko.*

8. *Nork eman behar ditu 200etik 600era oren eskolan?*

   *a) Aurreko ikasketak egin ez dituenak.*
   *b) Edozein gaztek.*
   *c) Baserria hartu nahi duenak.*
   *d) Gizon helduek.*

9. *Elkarrizketatuaren ustez onuragarria da laboraria*

   *a) berezia izatea.*
   *b) besteekin nahastea.*
   *c) besteekin ez nahastea.*
   *d) nekazari izatea.*

10. *Zer dio nekazari eskolatu gazteei buruz?*

    *a) Teknikatik aparte ez dute askorik sinesten.*
    *b) Lehengoak bezalakoak dira, denak berdinak.*
    *c) Egiaren bidetik doaz.*
    *d) Izpiritu kritikoa lantzen dute eskolan.*

## AHOZKOAREN ULERMENA-7

## 1. TESTUA

### Egunero perretxiko artean

Kastor Naldaiz, berrogeita hamabost urteko lazkaotarra, umetan hasi zen perretxiko biltzen eta orain Goierri aldeko espezialista sonatuena da. Ia egunero joaten da perretxikotara, batzutan etxe inguruko mendietara, bestetan urrutiagora. CAFen lan egiten du eta Iñaki, bere semea, bera bezalakoa dator.

ZABALIK.— Nora joaten zara?

K.N.— Mendi askotara joaten gara. Enerio, Maomendi, Aralar parte hori ibiltzen dugu, baita San Migel aldea eta San Donato, Urdiain, Etxarri eta San Adrian. Eta baita inguruko mendi txikiok, jakina.

Hasieran dezente bildu genuen, baina gero patatari bezala, lurrari gorriña sartu zaio, gaixotu egin da. Ataungo goi haietan piska bat salbatu egin da. Zenbat eta gorago hobeto, Enerio eta Urrutiko paraje haietan hobeto. Goi haietatik hogei kilo ere ekarri izan dugu egun batzutan. Bi egunetik bi egunera ibili izan gara.

ZABALIK.— Eta gero saldu.

K.N.— Bai, jatetxeei saltzen diegu. Argiñano, Arzak, Subijana, Roteta eta Castillorekin lan egiten dugu. Ferietara ez dugu eramaten, sukaldari horiekin prezioa jartzen dugu urte hasieran eta hasi eta buka egiten dugu prezio horrekin, perretxiko asko izan, gutxi izan.

ZABALIK.— Eta aurten zenbat kilo bitu dituzue?

K.N.— Villafrancako eguna baino lehenago (Irailaren 7a) 750 kilo, mendira ia-ia egunero joanda. Gu ondo ibili gara eta jendea gaizki ikusi dugu. Urte txarra izan da, ze iaz 1.500 kilotik pasatuta ginen.

A. IPARRAGIRRE,
*Zabalik D.V.,* 92. alea 1888-IX-21. (moldatua).

1. *Zer da Kastor Naldaiz?*

   a) *Perretxiko biltzea du bere lan bakarra.*
   b) *Lehen perretxiko biltzaile, orain CAFeko langile.*
   c) *Orain CAFeko langile espezialista sonatuena da.*
   d) *Perretxiko biltzaile eta CAFeko langile.*

2. *Nolakoa dator bere seme Iñaki?*

   a) *Perretxiko biltzaile amorratua.*
   b) *Noiz behinkako perretxiko biltzaile.*
   c) *Ez dio aitaren bideari inondik ere eutsi nahi.*
   d) *CAFeko lanarekin nahikoa du.*

3. *Aurten perretxikoa non eta zenbat bildu dute?*

   a) *Gorrinak jo ondoren, goietan gutxiago.*
   b) *Gorrinak jo aurretik, batere ez.*
   c) *Gorrinak jo ondoren, goietara jo behar.*
   d) *Gorrinak jo aurretik, inguruko mendi txikietan bakarrik.*

4. *Ze preziotan saltzen diete perretxikoa jatetxeei?*

   a) *Prezio jakina dute urte guztirako.*
   b) *Ferietako prezioan.*
   c) *Biltzen dutenaren araberako prezioan.*
   d) *Sukaldariek nahi duten prezioan.*

5. *Nolako perretxiko urtea izan da aurtengoa?*

   a) *Ona, iaz baino gehiago bildu bait dute.*
   b) *Txarra, jendea beraiek bezala ibili delako.*
   c) *Txarra, beraiek izan ezik, jendea gaizki ibili delako.*
   d) *Ona, asko bait da 750 kilo biltzea.*

## 2. TESTUA

### Egunero perretxiko artean

ZABALIK.— Jendea joaten da basora eta gabe bueltatzen da. Zuk, berriz, beti zerbait. Nolatan?

K.N.— Ez dakit, ba. Horretarako jaioa bezala behar du. Nik terrenoari segituan antz ematen diot non dagoen eta non ez dagoen. Nere semea ikusita dago gauza hori; behin semearekin diskusioa izan nuen: nik egunean egiten zela perretxikua eta semeak ezetz; ikusi arte ez zuela sinistuko gainera. Halaxe joan gara behin Lazkaoko mendi batera goizeko bostak aldera, egunsentian, eta ontto-mordotxoa bilatu genuen. Hantxe saskia bete genuen eta hurrengo egunean bueltatu eta toki hartantxe beste saskikada bat. Hurrengo egunean beste saskikada bat, eta laugarren eta bosgarren egunean igoal-igoal.

Perretxikoak irtetzeko klimatologiak asko esan nahi du. Behar du beroa eta humedadea. Horrek mugitzen du perretxikoa. Eta gaua garbia izanda, hobe.

ZABALIK.— Eta ilargia?

K.N.— Ilargiak ere asko egiten du. Aurten nahastuta ibili da, dena dela. Jeneralean, perretxikoa goian dagoenean behean ez da izaten eta behean izaten denean goian batere ez. Tenporadaren hasieran fruta bezala izaten da: Lazkaon sagarra izaten da, Aralarren oraindik ezer ez.

ZABALIK.— Zenbat perretxiko klase biltzen dituzu?

K.N.— Garai batean biltzen zirenak orain ere errege daude: kuletroa, gibelurdinak (lau-bost klase), ontto zuria, ontto beltza, ontto gorria, ziza horia, nikaloa, galanperna... Jatetxeetarako perretxiko beltz bat ere biltzen dugu, ‹‹trompeta de muertos›› esaten zaiona.

ZABALIK.— Aspaldi hasiko zinen zu perretxiko biltzen.

K.N.— Bai, bai. Umetan hazaña egin nuen. Zortzi urte nituela, ordurako jendeak jakin nola ibiltzen nintzen perretxikotara eta herriko alkateak, Patxi Albisuk, bazuen familiar bat bakailo-barku bateko kapitaina, Arrinda, eta hura etortzekoa zela eta harendako perretxikoak behar. Deitu zidan eta: ‹‹Kastor, arratsalderako saskia perretxiko ekarri behar didak››. Segituan bitu nituen. Orain berrogeita zazpi urte da hori. Hamar pezeta eman zidan eta Espainiako errege nintzen diru horrekin.

A. IPARRAGIRRE
*Zabalik D.V.,* 92. alea 1988-IX-21. (moldatua.)

6. *Nolatan bueltatzen zara zu beti zerbaitekin?*

   a) *Aralarren jaioa delako.*
   b) *Berezkoa behar duela dio.*
   c) *Semearen bista onari esker.*
   d) *Perretxikoa egunean egiten delako.*

7. *Perretxikoak irtetzeko, ba al du klimatologiak eraginik?*

   a) *Hutsa.*
   b) *Batere ez.*
   c) *Erabatekoa.*
   d) *Handia.*

8. *Non izaten da perretxikoa, jeneralean?*

   a) *Goian denean, behean ere bai.*
   b) *Lazkaon denean, Aralarren ez da izaten.*
   c) *Sagasti inguruetan.*
   d) *Aralarren ez dagoenean, Lazkaon ere ez.*

9. *Kastorrek zortzi urte zituen garaian, zer zekien jendeak?*

   a) *Umetan azaña egin zuela.*
   b) *Zortzi urte zituela.*
   c) *Perretxikoak biltzen zituela.*
   d) *Patxi Albisuren familiar hori kapitaina zela.*

10. *Zenbat urte ditu Kastorrek?*

   a) *Zortzi.*
   b) *Berrogeita zazpi.*
   c) *Hamar.*
   d) *Berrogeita hamabost.*

## AHOZKOAREN ULERMENA-8

### 1. TESTUA

### J. Mülder andereñoarekin elkarrizketa

ZABALIK.– Elkarrizketa hasi aurretik Edeko Udaletxean lana egiten zenuela esan diguzu. Zehazki, zer egiten zenuen?

J.M.– Nire eginbeharra txakurren zentsua kontrolatzea zen. Holandan zergak, nahiz eta biltzea oso txikia izan, kontu handiz zaintzen dira. Adibidez, gure herrian txakur zentsuaren erregistroan egon zitezkeen iruzur edo fraudeak topatu asmoz inspektore batek egunean zortzi ordu egiten zituen kalean.

ZABALIK.– Europako gizarte paketsu eta ordenatuenetariko baten bizitzen ohituta, Donostiara iristean zerbait traumatikoa sentituko zenuen, ezta?

J.M.– Ez, benetan. Txikitatik oporrak pasatzera Espainiara etortzen nintzen eta, nolabait behintzat, bizimodu latindarra ezagutzen nuen. Donostiako kaleen garbitasunak atentzioa eman zidan. Holandar gehienek bizimodu aspergarri eta serioa daukate, eta aldaketa gustora hartzen da. Beste gauza bat da hemengo arazoak beti berandu eta inprobisatuz egite horretara ohitzea. Hori zailagoa da.

ZABALIK.– Holandar guztiei iruditzen zaie dagoeneko gizarte zeharo garatua dagoela han eta aurrerapen posible guztiak lortu dituztela?

J.M.– Ezta gutxiagorik ere. Holandarra solidaritatean hezi da, ez harrokerian. Honela, oporretan Espainiara etortzen denean, eskaintzen zaion kontrasteekin harritzen da, nahiz eta inpresioa ez beti ona izan...

ZABALIK.– Ze zentzutan?

J.M.– Ez zait ondo iruditzen nirea ez den herrialde bat kritikatzea, oso gustora nago hemen gainera, baina aitortu behar dut jendeari kalean eskean ibiltzen uzteak harritu ninduela... Holandan laguntza sozialeko zerbitzuek herritar guztien beharrak betetzen dituzte eta langabetuentzako laguntza ekonomiko iraunkorra dago.

ZABALIK.– Bizitza guztirako?

J.M.– Bai, bai. Eta hortik aparte Estatuak diru gutxi irabazten dutenei babestutako etxebizitzak erosteko erraztasunak ematen dizkie.

ZABALIK.– Beraz, pobreziarik ez da egongo?

J.M.– Horrela da. Eta holandarrak harro gaude horrekin, nahiz eta hemen poztasun gehiagorekin, espontaneitatez, bizi.

*El Diario Vasco. Zabalik,* 1988-11-9.

1. *Zergatik egin zaio atsegina aldaketa?*

   a) *Donostia polita delako.*
   b) *Donostia garbia delako.*
   c) *Holandako bizimodua aspergarria delako.*
   d) *Holandako bizimodua gogorra delako.*

2. *Zertara ezin da hain erraz moldatu?*

   a) *Arazoak hain motel konpontzera.*
   b) *Hemengo bizimodu seriora.*
   c) *Arazoak presaka konpontzera.*
   d) *Gauzak ondo aztertu gabe eta berandu egitera.*

3. *Holandako gizarteak aurrerapen guztiak lortu al ditu?*

   a) *Inola ere ez.*
   b) *Neurri haundi batean bai.*
   c) *Urte gutxi barru eskuratuko ditu.*
   d) *Ez du inoiz lortuko.*

4. *Zerk harritu zuen elkarrizketatua?*

   a) *Kalean eskaleak ikusteak.*
   b) *Kalean eskean ibiltzen lagatzeak.*
   c) *Eskaleekiko jendearen jarrerak.*
   d) *Eskaleen ugaritasunak.*

5. *Holandan, Estatuak diru gutxi irabazten dutenei*

   a) *etxebizitzak ematen dizkie.*
   b) *laguntza ekonomiko iraunkorra ematen die.*
   c) *babestutako etxebizitzak erostea errazten die.*
   d) *babestutako etxebizitzak ematen dizkie.*

## 2. TESTUA

### J. Mülder andereñoarekin elkarrizketa

ZABALIK.– Halere, badirudi Holandak Espainiak baino berezko ondasun gutxiago daukala. Non dago, bada, bere bilakaeraren giltza?

J.M.– Ziur aski merkatalgoan eta ondasun horien banatze egokiago batean oinarritzen da. Ezin dugu ahaztu XVI. mendean Gaztelako nobleek beren produktuak, adibidez artilea, Flandriara bidaltzen zituztela. Hemen, Flandrian, produktuok birlaboratzen ziren eta ondoren lehengaiak lantzearekin gehiegi arduratzen ez ziren noble beraiei saltzen zitzaizkien.

ZABALIK.– Baina merkatal pentsamolde hau ez al da materialistegia?

J.M.– Agian, holandarrak badauka aurretzaile eta zeken fama; bidezkoa nire ustez. Baina kontzientzia soziala oso zabaldua dago eta hori ona da.

ZABALIK.– Holandak dauzkan hamalau milioi bizilagunetatik, milioi bat inguru emigranteak dira. Nolakoa izan da hauen integrazioa?

J.M.– Orohar ona. Holanda lana egiteko prest dagoenarentzat herri zabala da. Nahiz eta azkenaldian egoera soziala onena ez izan, batez ere ipar afrikar bizilagunena. Dena dela, ez dago beste herrialde batzutako arraza arazorik.

ZABALIK.– Hemen harridura eta kezka sortzen duena 92ko Europaren muga desagertze hori da. Nola bizi izan da Holandan Benelux-aren esperimentua?

J.M.– Ondo, nahiz eta Belgika gure artean ez oso ondo kontsideratuta egon. Izan ere, ez da ahaztu behar bere independentzia gutatik banatzean lortu zuela... Gaur egun bi herrialdeen arteko muga semaforo bat da. Eta belgiarrek Holandan dauden ala ez jakitea oso erraza dela diote... behi usaiagatik!

Eta bere errepideen aparteko kalitateagatik... Autopistak eta debaldekoak. Bakarrik ur azpiko hiru tunel erraldoitatik pasatzea kobratzen da eta hori zeharo amortizatu arte.

ZABALIK.– Baina guzti horrek bere alde txarra ere izango du...

J.M.– Bai, zergak handiak dira. Sistema fiskala progresiboa da, baina gogorra. Dena dela, emaitzak ikustean min gutxiagoz ordaintzen da.

*El Diario Vasco. Zabalik,* 1988-11-9.

6. *Zein da Holandaren garapenaren gakoa?*

   *a) Berezko ondasun haundia.*
   *b) Merkataritza.*
   *c) Gizartearen antolamendua.*
   *d) Laborantza.*

7. *XVI. mendean, Gaztelako lehengaiak*

   *a) gorde egiten ziren.*
   *b) bertan lantzen ziren.*
   *c) kanpora bidaltzen ziren.*
   *d) Frantziara bidaltzen ziren.*

8. *Holandarrek etorkinekiko*

   *a) jarrera arrazista dute.*
   *b) jarrera zabala dute.*
   *c) ikuspegi estua dute.*
   *d) portaera ulertezina dute.*

9. *Zergatik ez du Belgikak izen ona Holandan?*

   *a) Holandatik bananduz lortu zuelako bere burujabetza.*
   *b) Holanda Belgikaren zati izan zelako lehen.*
   *c) Muga gogorra ezartzen duelako.*
   *d) Holanda bereganatu nahi izan duelako.*

10. *Belgikarren esanetan, nola daki batek Holandan dagoela?*

   *a) Loreen ugaritasunagatik.*
   *b) Zerga haundiengatik.*
   *c) Behien usaiagatik.*
   *d) Autobideen ugaritasunagatik.*

## AHOZKOAREN ULERMENA-9

### 1. TESTUA

Euskal Herrian artzantza, aintzinatik datorren langintza dugu, baina gaurko artzain-txakurren laguntza ez zen mende honen hasiera arte ezagutzen. Garai batean txakurrak, artaldea otso eta azeriengandik babesten zuen, ugariak bait ziren harrapakari hauek gure mendi eta basoetan. Txakur handi eta indartsuak, ‹‹mastin›› arrazakoak gehienetan, arantzadun lepokoak edukitzen zituzten borrokan aurkakoa zauritzeko.

Gaur egun oraindik ere ikusten dira horrelakoak Gaztela eta Extremadura aldeko artaldeak zaintzen. Hemen, ordea, ardien etsai horiek galdu ahala, txakur-mota hau bere garrantzia galtzen joan zen eta beste bati utzi behar izan zion lekua.

1920. urte inguruan ekarri zituzten lehen txakurrak ‹‹Labrit›› arrazakoak ziren eta Frantzia aldeko Pirinioa zen beren sorlekua.

Denbora asko zeramaten lurralde menditsu haietan artaldeak zaintzen. Mastinak baino iletsu, txiki eta bizkorragoak; beti jabeak agindutakoa betetzeko prest. Mantenu aldetik ere askoz gutxiago behar izaten zuten eta hau, janaria eramatea zaila den paraje horietan, kontutan edukitzekoa zen.

Txakur hauek egiten duten lana, lehen artzainak berak egin behar izaten zuen, artaldea txikia zenean; buru asko zituenean, berriz, Nafarroa aldean batipat, morroi antzeko mutiko batzuek, ‹‹rapatanes›› izenekoak, biltzen zituzten galdutako ardiak eta baita jaisterako orduan zaindu ere.

Orain ia ez dago txakurrik gabeko artzainik, baina hasieran batzuk ez ziren gehiegi fidatzen, ardiei eraso egingo zietela pentsatzen zuten. Eta gertatu izan dira horrelakoak; zein artaldetan ez ote du noizbait txakurrak arkume, ardi edo ahariren bat akabatu! Dena den, eta akatsak akats, txakur hauek izugarrizko aurrerapena ekarri diote artzainari lanean, makina bat ibili eta izerdi kenduz.

*Habe* 140. zkia. 1988-XI-1

1. *Noiz hasi zen euskal artzaina gaur ikusten den txakur mota erabiltzen?*

   a) *Artzantza langintza bezala sortu zenean.*
   b) *Mende honen hasieran, «mastin» arraza ezagutu zenean.*
   c) *Gizaldi honen hasieran.*
   d) *Aintzinako mendeetan.*

2. *Txakur handi eta indartsuen galtzeaz honako hau dio:*

   a) *harrapakari handiak eta indartsuak ezkutatu ahala desagertu ziren.*
   b) *txakur mota hau Extremaduran eta Gaztelan bakarrik erabili ohi zen.*
   c) *leialtasun eskasa eskaintzen zutelako baztertu egin zituzten.*
   d) *Pirinio aldean txakur txikiak sortu zirenean baztertu zituzten.*

3. *«Labrit» arrazako txakurren ezaugarri hauek goraipatzen ditu:*

   a) *bizkortasuna, leialtasuna eta mantenu errezekoak izatea.*
   b) *bizkortasuna, ausardia eta mantenu errezekoak izatea.*
   c) *leialtasuna eta parajerik zailenetara joateko trebetasuna.*
   d) *Pirinio aldea ongi ezagutzea.*

4. *Nork egin izan du gaur txakurrek egiten duten lana?*

   a) *Artzainen mutikoek.*
   b) *Txakur ankerren mesfidantzaz, mutiko batzuek.*
   c) *Nafarroako baserrietako morroiek.*
   d) *Artzainek eta morroi antzeko mutikoek.*

5. *Idazki honetan zein arrazatako txakurrak aipatzen dira?*

   a) *Otso txakurrak eta «Labrit» arrazakoak.*
   b) *«Rapatanes» izenekoak eta Pirinio aldekoak.*
   c) *«Mastin» eta «Labrit» arrazetakoak.*
   d) *«Rapatanes» izenekoak eta «Mastin» handi eta indartsuak.*

## 2. TESTUA

### Karlos Otegi: euskal literaturan irakurlegoa aurretik doakigu

ARGIA: Oraindik literatur kritiko kontsidera al zaitzakegu?

KARLOS: Ni funtzio legez ez naiz inoiz izan hori. Nire lana batipat gelan egin izan dut, ikasleekin. Eta hortik at, nire iritziak ere zabaldu ditut eskatu izan zaizkidanean. Duela zenbait urte literatur testuen azterketa eta kritikak egiteko klaseak ere eman nituen UEUn. Testuen azterketa klaseko lanetara mugatzen dut gehienbat. Horrek ez du esan nahi sakonago sartzeko asmorik ez dudanik. UEU ere ez dut bazterturik.

ARGIA: Nola dakusazu gaur egun euskal literatura?

KARLOS: Orohar eta, irakurlearekin gonbaratuz, ez dago bere mailan. Nire ustez 3 irakurle mota daude. Lehenik alfabetatzen eta euskara ikasten ari direnak, literatura mota propioa dutenak. Bigarrengoz, literatura entretenigarritzat dutenak, eta hauentzat niretzat literatura gutxiago dago. Azkenik badago gero eta landuago den irakurlegoa, sortzen ari dena.

Garai batean gure literaturan neurtzen zena, euskaraz ongi idatzia egotea, herri mailako gauzak kontatzea... zen. Honekin irakurlego bat ase zen, baina gaur egun beste zerbait gehiago behar da.

Hau onuragarria da. Kalitate maila noski igon dela, baina irakurlegoa azkarrago doa nire ustetan. Agian minoria den talde honek, orohar ez du gure ekoizpenean halako kalitaterik topatzen. Salbuespenak baditugu, Inazio Mujikaren ‹‹Azukrea Belazeetan››, adibidez, baina orohar, irakurlegoa aurretik doa.

ARGIA: Ez ote dago nolabaiteko kontrajartzerik, batetik minoria batentzat den literatura goregia egitean, eta bestetik hizkuntza ikasten ari direnak merkatuan duten indarra dela eta, maila oso txirokoa?

KARLOS: Niretzat bide oro dira baliagarri, ez bakarra. Eredu guztiak ziren eta dira beharrezkoak, beharrezkaok ziren Txirrita eta baita Lizardi ere. Alfabetatzeko literatura apala eta minoria batentzat datekeena berdin dira baliogarri. Gainera, literatura ona bada ez da halabeharrez gutxiengo batentzat izanen. Euskara maila onekoa bada, atsegina eta erakargarria bada eta teknika literario landuak badarabiltza, ez da elite batean geratuko.

*Egin* 88-11-7.

6. *Zer dio Karlos Otegik egungo bere literaturarekiko lanaz?*

   *a) Kritiko funtzioa aspaldi bete izan zuela.*
   *b) Klasetik at zabaltzen dituela bere iritziak.*
   *c) Egun, bere ikasleekin egiten duen lanera mugatzen duela.*
   *d) Ikasleekin sakonkiago aztertzen duela literatura.*

7. *Zein irakurle mota daude gaur Euskal Herrian?*

   *a) Landua, alfabetatua eta alfabetatu gabea.*
   *b) Ikasten ari dena, dena entretenigarritzat duena.*
   *c) Bereizketa hori idazleekin egiten du.*
   *d) Ikasten ari dena, entretenigarritzat duena eta gutxiengo landua.*

8. *Literatura aztertzerakoan, garai bateko erizpideak eta gaurkoak*

   *a) bat datoz, gaur ere herri mailako gauzak kontatzea eskatzen bait da.*
   *b) ez dira berdinak, ez bait da nahikoa herriko gauzak kontatzea eta euskara aberatsa erabiltzea.*
   *c) betikoak gaur ere nagusi; euskara aberatsean idazten ez duenak jai dauka.*
   *d) minoria landuak erabat aldatu ditu.*

9. *Karlos Otegik Lizardi eta Txirrita aipatzean:*

   *a) bi literatur eredu bereizi nahi ditu.*
   *b) literatur historian bi garai bereizi nahi ditu.*
   *c) bi euskara mota bereizi nahi ditu.*
   *d) bi literatur eredu hauetatik hautatu beharra adierazi nahi du.*

10. *Nolakoa da Karlos Otegirentzat Inazio Mujikaren «Azukrea belazeetan»?*

   *a) Gehiengoak irakurtzeko modukoa.*
   *b) Kalitate onekoa.*
   *c) Irakurlegoa aurretik doala adierazten duen adibidea.*
   *d) Irakurlegoa aspertzeko modukoa.*

# AHOZKOAREN ULERMENA-10

## 1. TESTUA

### Hegatsez liburuaren aurkezpena

Aspaldiko asmoa da hauxe, lehenago idazle zaharrena eta gero gaur bizi direnen hitz-lauzko bildumak egin nahia. Baina zaharrena Etxenagusiak ondo bete zuen *Euskal Idazleen Lorategia*-z, lehendik Lafittek eskaini zigun *Eskualdunen Lorategia*-z osatzen dena. Arrazoi honegatik gaurkoari soilki heldu diogu.

Holako lan bat burutzeko beharrezkoa genuen lehendabizi *Escritores euskéricos* bezalako katalagoa egitea. Euskal literatura hain zabala ez bada ere, uste baino zabalagoa eta sakabanatuagoa da. Aberatsegia ez bada ere, dituen frutuak behar bezala aprobetxatzea zail zaio, duen sakabanatze horregatik. Zer esanik ere ez, erdara indartsuago dagoela eta leku asko jaten digula literaturaren alorrean, baina lekua jatetik aparte, bada holako euskal literatura baztertze bat, intentziozkoa eta ustegabekoa, bietarik. Eta ez gutxi joko horren lagungarri, erdaraz idazten duten euskaldun askok euskal literatura behar bezala ez ezagutzeagatik. Honegatik, *Escritores euskéricos*-ekin, gaur gure literaturaren xoko bazterretara begiratuaz, lehen inbentario honekin, gaurko egoeran euskaraz idazten duten guztienganа hurbildu gara. Neurriak behartu gaitu nahi genituen idazle guztiak ezin sartu izatera. Hala ere, bilduma honek gaurko euskal literatura bere egoera zabalean adieraziko duela iruditzen zaigu. Eta, era berean, gure ideal-gogoak, desiratzen dugun helburura geroago eta indartsuago eramaten laguntzen digula.

Baina, euskaraz zer idazten da? Hau da askoren galdera. Gure artean baliozkorik ezer ote den jakin nahiez kezkaturik, anitzek egiten duen galdera.

Lehenago galdetzen zen, euskaraz ba ote zen literaturarik. Eta duguna aberatsa ez bada ere, maiz esana dugu, euskaldunok irakurtzen dugunagatik, merezi dugun baino literatura aberatsagoa dugula.

J. SAN MARTIN eta S. BASAURI,
*Hegatsez*, Zarautz, (1971).

1. *Gaurko idazleen bilduma egin nahi izan dute soilki*

   a) *idazle zaharrena egiteke badago ere.*
   b) *idazle zaharrena egitekotan direlako.*
   c) *gaurkoak ezagutzen dituztelako soilki.*
   d) *zaharrena burutua delako.*

2. *Euskal literatura*

   a) *oso zabala da.*
   b) *uste baino zabalagoa da.*
   c) *ez dago hain sakabanatua.*
   d) *oso aberatsa da.*

3. *Euskal literatura baztertua dago, beste gauzen artean*

   a) *aberatsegia ez delako.*
   b) *zenbaitek hala nahi duelako.*
   c) *etorkizunik ez duelako.*
   d) *euskal idazleek behar bezala ezagutzen ez dutelako.*

4. *Bilduma honetan*

   a) *gaurko euskal literaturaren ikuspegi zabala eman nahi da.*
   b) *gaurko euskal idazle guztiak sartu dituzte.*
   c) *nahi adina euskal idazle sartu dituzte.*
   d) *gaurko euskal idazle gutxi batzu sartu dituzte.*

5. *Zer jakin nahi da euskal literaturaren inguruan?*

   a) *Nola idazten den.*
   b) *Zer idazten den.*
   c) *Zenbat idazten den.*
   d) *Noiztik idazten den.*

## 2. TESTUA

### Hegatsez liburuaren aurkezpena

Gaur ostera, zer idazten den eta euskara gauza ote den, egungo gaiak eta goimailako teknikak erabiltzeko, galdetzen da. Nahiz eta honek erantzun errazagoa izan: euskara kulturarako gai da, euskalduna kulturarako gai den mailaraino. Euskara ondo dakien euskal idazleak kultura badu edo zientzietan barneratua badago berdin; ezinik ez da. Berdin da edozein espezialitatetan edo teknika gaitan. Jakina, lanak argitaratzeko, euskaldunen artean espezialitate bakoitzean nahiko irakurle ez bada, honetan izango dira problemak, baina ez idatzi ezinean. Hemen dago kontua, eta ez hizkuntzak gaiok menderatzean.

Baina gure asmoak ez dira hain goi-mailakoak. Hobeto esan, ez dira espezialitate bati begira bildu ditugunak, baizik kulturaren ideia zabalagoetara goaz. Askok ulertu eta bereganatu ahal izango duten erako idazlanez. Euskaraz, gaur zer idazten da? galdetzen dutenentzat erantzunez, beste zenbait beharren artean, noski. Eskuetan duzun liburu hau, irakurle, gaur euskaraz erabiltzen diren gai ororen muestrario bat duzu. Era zabalez, kultura orokorrez, gaurko prolemak eta kezkak. Irakurgai goxoen ondoan pentsamendu sakonak ere bai; gai herrikoietatik intelektualetara arte: saiakeraz, ipuiez, artikuluz; baita ere kontuan izan dugu zenbait gutun sartzean, eskutitzak zelan egin ikasi nahi duenak eredutzat har dezan. Erakus-aldirik ez da falta: literaturaz, arteaz, munduko politikaz, ekonomiaz, zientziaz, gaurko pentsaerak, erarik ugarienean.

Bestalde, euskal Alfabetatze taldeetakoak ere, une batetan irakurtzeko bezalako gai laburrez, gaur egungo gai biziez osatua litzatekeen oraingo idazleen antologia baten premia agertu izan dute. Batez ere irakurgai biziak komeni direla ikusten dutelako.

Une honetan, Euskal Alfabetatze taldeek, berek multikopiaz eratutako lanez baliatu izan dira. Lan horiek aurrerantzean ere beharrezkoak izango dituzte beren kursilloetan, baina hauetatik kanpora etxerako irakurgaiak gomendatzean ez dute orain arte aukera handirik izan. Arestian aipatu dugun Etxenagusiaren *Euskal Idazleen Lorategia*-k ematen die laguntza baliosa, eta hutsune hori betetzera datorkie. Izan ere, liburu honek, ezagutzea hain komenigarri diren idazle zaharrengatik ditu bere alderik hoberenak. Baina ohartzen dira horiek soilki ere ez direla aski. Gainera, irakurgai biziagoak ere komeni direla, praktikak berak erakutsi du. Eta gainera, gai osatuez hornituak. Honegatik, liburu hau ez da Etxenagusiarenaren ordezko, baizik lagunkide. Gaurkoaren ideia sakona emango zuen bat behar zen, eta HEGATSEZ izeneko honekin, hori bete nahi dugu.

J. SAN MARTIN eta S. BASAURI,
*Hegatsez,* Zarautz, (1971).

6. *Edozein gaitan euskaraz idatzi ahal izatea ala ez*

   *a) euskara beraren baitan dago.*
   *b) gaien zailtasunean dago.*
   *c) idazlearen ezjakintasunean dago.*
   *d) arazo teknikoa da.*

7. *Non egon daiteke arazoa?*

   *a) Gai espezializatuak idatzi ezinean.*
   *b) Irakurlego urria egotean.*
   *c) Idazleen jarreran.*
   *d) Argitaletxeen jarreran.*

8. *Prestatu duten bilduman*

   *a) kultura orokorreko gaiak azaltzen dira.*
   *b) euskal kulturaren gaiak ez dira aztertzen.*
   *c) goi-mailako gaiak ematen dira.*
   *d) irakaskuntzarako gai aproposak eskaintzen dira.*

9. *Euskal Alfabetatze taldeen beharrizanei erantzungo die*

   *a) klase-emanaldietan, batez ere.*
   *b) klase-emanaldien osagarri gisa.*
   *c) irakasleen prestakuntzarako.*
   *d) multikopiaz egindako lanen ordezko gisa.*

10. *HEGATSEZ bilduma/k*

   *a) lehengo eta gaurko literaturaren ikuspegia eman nahi du.*
   *b) «Euskal Idazleen Lorategia» ordezkatzen du.*
   *c) gaurkotasunaren bizitasuna eman nahi du.*
   *d) gaurko problematikaren agiri bat ez du izan nahi.*

# AHOZKOAREN ULERMENA-11

## 1. TESTUA

Euskal Kazetarien Elkartea beharrezkotzat jotzen dut. Oraindik ez sortua izanak biziro harritzen nau gainera, Euskal Idazleen Elkartea eta Euskal Itzultzaileen Elkartea aspaldi samar eratu bait ziren.

Behar bada, erdal kazetarien elkarterik ez nuke hain erraz onartuko, taldekeriaren arriskua bait du. Nik ez dut inolako elkarterik nahi kazetarien kontratuak, soldatak, lan-orduak eta baldintzak aldezteko. Hori sindikatuen lana da.

Euskal kazetariek euskarazko kazetaritzan dituzten zailtasun berezigaitzak gainditzeko nahi dut elkarte baten beroa eta babesa. Euskal kazetaria etsipen arriskuan bizi da etengabe. Batetik gaztelania eta frantsesa baino herdoilduagoa dagoen erreminta batekin egin behar du lan. Bestalde, bere eginkizunari mugak jartzen dizkion hizkuntzaz baliatu behar du. Kazetaritzaren izaerak eta joerak, bere mezua, bere albistea ahal denik eta gehien zabal eta heda dadin eskatzen dio kazetariari. Euskaraz diharduenak badaki ehunetik 90ekin ezin dela komunikatu. Gaztelaniaz, berriz, ehunetik ehunekin komunikatuko litzateke.

Euskaraz aritu beharrak bigarren mailako kazetari izatera mugatuko du gure gizartean. Ia inork ezagutu eta aintzakotzat hartu gabe egin beharko du lan bizitza osoan. Inoiz ez dio erdal kazetariari albiste garrantzitsu batekin aurrea hartuko eta hartzen badio inor ez da ohartuko. Berak sortzen duen hori norbaitek erdaratzen ez duen bitartean, ezezaguna gertatuko da.

Aldiero gutxietsia bizi den profesional honek beste pozbide batzuk bilatu behar ditu etsi gabe irauteko. Euskal Herria euskalduntzen eta euskara normaltzen eta euskaraz bizi nahi duenari laguntzen ari dela jakiteak eutsi behar dio zutik adoretsu. Eta hori elkarterik gabe zail da.

M. ATXAGA
*Eguna*. 252. zenb., 1988-11-24

1. *Zergatik harritzen da idazlea?*

   *a) Euskal Idazleen Elkartea oraindik ez delako sortu.*
   *b) Euskal Kazetarien Elkartea berandu sortu delako.*
   *c) Euskal Kazetarien Elkarterik oraindik ez dagoelako.*
   *d) Euskal Idazleen Elkartea oraintsu sortu delako.*

2. *Zergatik ez du onartzen erdal kazetarien elkarterik?*

   *a) Sindikatuen lana delako.*
   *b) Konpetentzia sortuko lukeelako.*
   *c) Euskararentzat arriskua litzatekeelako.*
   *d) Taldekeria ekar lezakeelako.*

3. *Zergatik da zailagoa euskal kazetarien lana?*

   *a) Hizkuntzak berak jartzen dizkion mugengatik.*
   *b) Euskaraz inork irakurtzen ez duelako.*
   *c) Bere irakurleak ulertzen ez diolako.*
   *d) Euskaraz idazteko erraztasunik ez duelako.*

4. *Euskal kazetaria bigarren mailakoa da gizarte honetan, zergatik?*

   *a) Besteen albisteen itzultzaile delako.*
   *b) Ezezaguna delako.*
   *c) Albiste garrantzitsuak inoiz ematen ez dituelako.*
   *d) Lanpostu finkorik ez duelako.*

5. *Zertarako nahi du Euskal Kazetarien elkartea?*

   *a) Kazetari erdaldunei aurre egiteko.*
   *b) Laneko baldintzak hobetzeko.*
   *c) Euskal kazetarien zailtasunak gainditzeko.*
   *d) Euskarazko egunkaria bideratzeko.*

## 2. TESTUA

### Jehovaren lekukoak ez dira mundu honetakoak

Biblia, Jainkoaren Hitza, dute beren sinesmen eta bizimoduaren ardatz. Ez dute bost minutuz hizketan jardungo Bibliaren aipamenik egin gabe. Batzuetan hitzez hartuko dute; beste batzuetan, ordea, zeinu-gisa. Nolanahi ere, beste erlijio kristau gehienek ez bezala, aintzinako kristauetatik gaurdainoko tradizioari muzin egiten diote, Bibliaren irakurketa makurrak egin dituztelako.

«... Jainkoaren Erreinua benetako gobernua dela sinisten dugu. Ez da gure bihotzeko edo Zeruko zerbait, batzuek dioten bezala. Jesukristo erreinu honen Errege da eta laster, Lur planeta osoan aginduko du.»

«Munduko gobernuak, gizakiak ezarri dituen sistema soziopolitikoak, sasierlijioak, maltzurkeria, komertzioa... ezabatuko ditu eta Lurra paradisu bihurtuko du. Jainkoaren agindupean gaitzik, zahartzarorik eta heriotzerik gabe biziko gara, betiko bizitza...» dio Francisco López, komunitate batetako arduradunak.

Mundu honen bukaeran gaude, Jehovaren Lekukoen ustez. 1914etik, Lehen Mundu-Gerra piztu zenetik, etengabe ari da betetzen Jesukristok agindutakoa. Apostoluek, mundua noiz bukatuko zen jakin nahi zuten, eta Jesukristok zeinu batzuk eman zizkien. Gerrateak, jan-edan eskasia, lurrikarak, izurriteak eta abar izango zirela. Baita mundu guztian bere Erreinuaren berri emango zela ere. «1914ez gero, iragarritako gauza guzti horiek betetzen ari direla ikusten dugu. Lehen Mundu-Gerra sortu zen, lehenbizi; gero, bigarrena; milioika lagun hiltzen ari dira munduan pizten diren gerrateetan; izurriteak izan dira; nahiz eta medikuntzak aurreratu, gaitz berriak sortu dira, berriena HIESa. Bestalde, berrehun eta hamar estatu baino gehiagotan ari gara Ebanjelioa ezagutzera ematen. Jesukristok guzti hau gizaldi batean gertatuko zela esan zuen. 1914ean hasi bazen, munduaren bukaera gertu dago...», jarraitzen du Francisco Lopezek.

*Habe,* 139. zkia. 1988-10-15

6. *Nola gauzatzen da Jehovaren Lekukoen eta Bibliaren artean dagoen lotura?*

   a) *Bost minututan agertzen dute Bibliaren esanahi nagusia.*
   b) *Etengabe aipatzen dute beren ihardunetan.*
   c) *Hitzez hitz adieraziko dute beti bere edukia.*
   d) *Bost minututako iharduna eskatzen dute Bibliaz mintzatzeko.*

7. *Nola jokatzen dute Jehovaren Lekukoek tradizioarekin?*

   a) *Baztertu egiten dute, Biblia ez bait da behar bezala irakurri.*
   b) *Muzin egiten diote, aintzinako kristauak makurtzat jotzen bait dituzte.*
   c) *Bibliaren irakurketa tradizioan oinarritzen dute.*
   d) *Baztertu egiten dute, Munduaren bukaera gertu bait dago eta aurrera begiratu behar da.*

8. *Zer da Jesukristo Jehovaren Lekukoentzat?*

   a) *Gure bihotzeko maltzurkeria ezabatzen saiatzen dena.*
   b) *Lurrean eta planeta guztietan paradisua sortuko duena.*
   c) *Gizakiak ezarritako sistema soziopolitikoak zuzenduko dituena.*
   d) *Mundu honetako Erregea eta, laster, bertan aginduko duena.*

9. *1914. urteak zer adierazten die Jehovaren Lekukoei?*

   a) *Lehen Mundu-Gerra piztu zela.*
   b) *Munduaren bukaera iragartzen duten zeiñuen hasiera.*
   c) *Munduaren bukaera gertu dagoela.*
   d) *Munduaren bukaera iragartzen duten zeinuak argitara eman ziren urtea izan zela.*

10. *Bi zeinu nagusi aipatzen dituzte Munduaren bukaera iragartzeko:*

   a) *gerrateak eta HIES bezalako izurrite berriak.*
   b) *gizakiaren era guztietako hondamena eta mundu guztian bere Erreinuaren berri ematea.*
   c) *mende honetako bi guda nagusiak.*
   d) *gerrateen, izurriteen eta HIES bezalako gaisotasunaren bidez Erreinuaren berri ematea.*

## AHOZKOAREN ULERMENA-12

## 1. TESTUA

### Aurtengo ehizaldia zabalik

Euskal Herrian dauden ehun milatik gora ehiztariek urriaren erdialdera dute aurtengo ehizaldiari ekiteko aukera. Gipuzkoa eta Bizkaiko mendietan hasi dira dagoeneko tiroka bazterrak izutzen. Araban, datorren igandean entzungo dira ehizaldi honetako lehen dunbadak. Aurtengoaren ezaugarriak santzioen gehikuntza eta murrizte-neurri berri batzuen ezarpena izango dira.

Euskal Komunitate Autonomoko diputazioek ehunen bat mila lizentzia luzatu dute dagoeneko. Bizkaian bakarrik, ekologisten esanetan, kilometro karratuko 15 eskopeta daude eta urtean 1.230.000 txori hiltzen dituzte. Kexu dira halere aurtengoan Bizkaiko ehiztariak, ehizarako egunak astean hirura mugatu zaizkiela eta; ostegun, larunbat, igande eta jai egunak bakarrik izango bait dira Bizkaian ehiza egunak.

Bestalde, Komunitate Autonomoan ez da bi kartutxotik gorako eskopeta automatikorik erabiltzerik izango; eta ehiza eta ibai arrantzuaren arloetako diru-zigorrak aldatzeko legetasmoa prestaturik du Eusko Jaurlaritzak. Indarrean dirauen araudiak, izan ere, 1943an ezarri zenetik ez du aldaketarik jasan. Euskal Herriko Nekazarien Elkarteak bere aldetik, Komunitate Autonomoan zozoa eta bidigarroaren ehiza debekatu dezan eskatu dio Ehizarako Lurralde Kontseiluari. Bi hegazti mota autoktono eta onuragarri horiek baserrien inguruetan bizi dira eta ehiztariak paraje horretara arriskua, zarata eta kaltea besterik ez du ekartzen.

Estatu espainiarrean ere bada ehiza arloan zenbait aldaketa egiteko asmorik, izadia hobeto babestu nahian. Gaur egun, oraindik, eskopeta erosi, nola disparatu ikasi, 2.500 pezeta ordaindu eta gai zara, beste gabe, ehizarako lizentzia eskuratzeko. Hala joaten dira hirietako asfaltotik «eskopetero» koadrilak, baso, zelai, mendietan mugitzen den oro tirokatzeko prest. Hori ez da ehiza, ez eta ehiztarientzat ere. Lizentzia lortzeko, azterketa gainditu beharra izango da luzaro baino lehen, autoa gidatzeko karnetaren kasuan bezala.

Ekologista eta ehiztari jatorren arteko eztabaida garaia izaten da urtearen sasoi hau. Aurten ere hasi dira ekologistak azalpenetan eta manifestapenetan. Ehiztarien izenean, joan den astean, Juan Carlos Perez Ellakuriak honako azalpenak egiten zizkion Bilboko egunkari batetako kazetariari: «Haiek ekologista eta anti-ehiztari diren bezalaxe, gu ehiztari eta ekologista gara. Txorien desagertzea dela eta, inork ere ez du sentitzen guk beste. Faunaren oreka mantentzearren guztiz arduraturik gaude ehiztariok. Gure artean arduragabeko «eskopeteroak» gertatzen dira, zoritxarrez, auto gidarien artean mozkorrak eta ganberroak gertatzen diren bezalaxe».

M.G.
*Eguna,* 1988-X-13.

1. *Ondorengo hauetako zein ez da aurtengo ehizaldiaren ezaugarri?*

   a) *Murrizte-neurriak jarriko dira.*
   b) *Ez da probintzia guztietan egun berean hasiko.*
   c) *Ehun milatik gora dira ehiztariak.*
   d) *Zigor gutxiago jarriko da aurten.*

2. *Bizkaian kexu dira ehiztariak. Zergatik?*

   a) *Eskopeta gehiegi dagoelako.*
   b) *Txori gehiegi hiltzen delako.*
   c) *Ehiza egunak mugatu egin direlako.*
   d) *Ehizaldia Araban baino beranduago hasi delako.*

3. *Zer nahi du Nekazarien Elkarteak?*

   a) *Zozo eta bidigarrorik ez harrapatzea.*
   b) *Isun handiagoak jartzea.*
   c) *Baserri inguruetan bi kartutxotik gorako eskopetak erabiltzea.*
   d) *Ehizarako Lurralde kontseilu bat osatzea.*

4. *Zer da ehizean egin nahi duenak egin beharrik ez duena?*

   a) *Ez du ezer ordaindu beharrik.*
   b) *Ez du azterketarik egin beharrik.*
   c) *Ez du lizentzia atera beharrik.*
   d) *Ez du arau eta neurririk ezagutu eta errespeta beharrik.*

5. *Zer dela dio Juan Carlos Perez Ellakuriak?*

   a) *Kazetaria, ez ehiztari ez ekologista.*
   b) *Ehiztaria, ez ekologista.*
   c) *Ekologista, ez ehiztaria.*
   d) *Ekologista eta ehiztaria.*

## 2. TESTUA

### Leopoldo Arsuaga: «Kultura Diputatuak hartu ere ez gaitu egiten»

Leopoldo Arsuaga, SADE (Sociedad Anónima de Deportes y Espectáculos) elkarte donostiarreko zuzendaria, kezkaturik dago krisialdi gogorrean bait dago zinea gure artean.

L.A.:– Ohizko zine-aretoa hiltzear dago. Ohizko zine-emanaldiak mundu osoan daude krisian. Erreminta lantokiak bezalaxe birmoldaketaren premian daude. Eta ez dugu inongo laguntza ofizialik. Eskatu ere zergarik ez ordain arazteko bakarrik eskatzen dugu. Urtebete da Gipuzkoako Kultura Diputatuari elkarrizketa eskatu geniola. Erantzun ere ez digu egin. Ez gaituzte aintzakotzat hartu ere egiten.

EGUNA:– Ba al du irtenbiderik?

L.A.:– Espainiara eta Euskadira beranduago heldu da krisia. Estatu Batuetan, Frantzian eta abarretan aurkitu diote irtenbidea. Zineak berak ez du krisirik, inoiz baino pelikula gehiago behar da. Inoiz baino aukera gehiago du zinegintzak. Telebistak eman ahala irentsiko luke. Zineak berak ez du galtzeko arriskurik, beraz. Zinea ikusteko era dago krisian. Areto haundia dago desagertzeko zorian. Herri aurreratuetan ez dago areto haundirik. Multzoan dauden areto txikiak ugaldu dira. Nahi duen zinea ikusteko aukera hobea du horrela zinezaleak.

EGUNA:– Zinezaletasun gutxi dagoela esan nahi al duzu?

L.A.:– Ez, ez, zinezaletasuna badago. Baina bat ona eskaintzeko bost txar ematera behartzen gaituzte. Amerikanoen mende gaude erabat. Guk ez dugu itxurazko programazio bat egiteko aukerarik ere. Zein pelikula eskaini ere amerikarrek erabakitzen digute. Frantzian, Italian eta abarretan hortzak erakutsi dizkiete. Espaniako kultura Ministeritzak, ordea, ez du ezer egiten. Espainiako Gobernuak gogorrago egiten ez badu jai dugu. Dena den, gu astelehen honetatik hasi gara Kulturako Ministeritzari parteak ez bidaltzen. Honela ez dago jarraitzerik.

EGUNA:– Donostia turismo haundiko hiria da, hala ere, hiru antzerki bakarrik ekarriko dituzte aurten.

L.A.:– Halaxe da. Ez genuen zaborreria eskaini nahi. Egia esan itxurazko gutxi eskaini zaigu. Eta ez gaude edozer onartzeko prest. Jakin dezatela Madrilen gurekin ez dutela jolasik egingo, gauza bat aginduz eta azken orduan beste bat bidaliz. «Principe» antzokian emango dira hiru antzerkiak. Pepe Rubiok eskainiko duen Ray Galton eta John Antrobus britaniarren komediarekin hasiko gara.

EGUNA:– Udalak hondartzan ematen dituenak osagarri al dira?

L.A.:– Gure kaltetan dira. Afalondoan pelikula bat ikusi nahi duen jenderik bada. Baina hondartzan debalde baldin badute ez dira sarrera ordainduz areto batean sartuko. 375 pezetan ez dago beste ezer, baina ezer ordaindu beharrik ez duen hondartzakoa merkeagoa da, noski. Gure aretoak hutsik uzteko modua egiten du udalak udan.

M.A.
*Eguna.* 1988-VII-21

6. *Zine enpresariek zer eskatzen dute?*

   *a) Krisialditik ateratzeko diru-laguntzak.*
   *b) Zergarik ordaindu beharrik ez izatea.*
   *c) Kultura Diputatuak zinezaleekin elkarrizketak izatea.*
   *d) Zinea egiteko moduak birmoldatzea.*

7. *Telebistak kalterik egiten dio zineari?*

   *a) Bai, filmeak eman ahala irentsiko dituelako.*
   *b) Bai, ugaldu diren areto txikiei bereziki.*
   *c) Ez Estatu Batuetan eta Frantzian, bai gure artean.*
   *d) Ez zineari berari, bai ohizko zine-aretoari.*

8. *Zergatik ez dituzte parteak Ministeritzara bidaltzen?*

   *a) Emango dutena aukeratzeko eskubiderik aitortzen ez zaielako.*
   *b) Amerikarren pelikulak emateko trabak jartzen dituztelako.*
   *c) Espainiako Gobernuak zine enpresak gogor tratatzen ez dituelako.*
   *d) Itxurazko programazioa eskaini ezean, Ministeritzak zigorrak jartzen dituelako.*

9. *Antzerki askorik ez aurten Donostian. Zergatik?*

   *a) Donostia hiri handia izan arren, oso turistikoa delako.*
   *b) Itxurazko antzerki gutxi egiten delako.*
   *c) Madriletik antzerki onik bidali nahi ez dutelako.*
   *d) Ikuslea itxurazko gauzak onartzeko prest ez dagoelako.*

10. *Udalak hondartzan ematen du zinea*

   *a) 375 pezetatan.*
   *b) dohainik.*
   *c) afalondoan pelikula bat ikusi nahi dutenen kaltetan.*
   *d) ohizko aretoak hutsik gera ez daitezen modua eginez.*

## AHOZKOAREN ULERMENA-13

### 1. TESTUA

**Bertsolaritzaz galdeketa. Gai-jartzaileen eragina**

GALDERA: Bada eztabaida sozialik gaien eta gai-jartzaileen eraginari buruz. Hona gure galdera: Gai jartzaile eta gaiek mugatu al dute bertsolaritza gaur den honetara edo/eta industri giroko kultur mundu honetan ezinbestekoa da?

X. AMURIZAren erantzuna: Gai jartzailea ezinbestekoa da lau bertsolaritik gorako jaialdietan. Beste arazo bat da —oso latza, gainera— eredu hori bertsoketa librea irensten ari dela, bai jende artean eredu horrek zabalpide gehiago daukalako, baita bertsolarientzat erosoagoa edo erantzukizun gutxiagokoa delako ere. Bertso-saio libreek —binakakoek edo hirunakakoek— hein haundiagoa behar lukete eta guztiz alderantziz gertatzen ari da.

A. EGAÑA: Dena da aldatu dena. Txirritaren garaian, herri batera joan eta pare bat egun pasa gabe, ez omen zuten lanik berdintzen. Orain, aldiz, kotxea, autopista eta gure bemolak medio, etxetik saioa baino ordu-erdi lehenago irteten badakigu, eta, edozein plazatara iristean, erreferentziarik gabe, zer eta nori kantatu jakin gabe aurkitzen gara. Horrelakoetan —litekeena da gazteon arazoa izatea batipat— gai jartzailea ia beharrezkoa gertatzen zaigu.

M. ITZAINA: Nire eritziz, bertsoa kantutik sortu da. Uste dut askotan kantuz hasten den bertsolaria, hasten dela, ez baitezpada zerbaiten erraiteko, baina isilik ez bait dagoke. Bestalde, erraiten duena bera hurbildik hunkitzen duena da edo ongi ulertzen duen gertakaria. Gaia, kanpotik heldu den zerbait da. Besteak dakarrena. Lehen moldean luzaz har daiteke, nahiz gauza berak errepikatu. Badu molde horrek inkautaziotik zerbait. Bigarren moldeak gaiarekin, kultura zabalagoa eskatzen du.

M. LEKUONA: Ez da dudarik bertsolarien lana mugatzen ahal dutela, eta bertsolaritzari hegalak mozteko arriskurik badagoela. Ez du industri munduak horretara bortxatzen, baina mania bilakatu da gaiak ezartzea edozein bertso-saiotan, neurketa edo zein-gehiagoka baizik ez ikusiz bertsogintzan.

I. SARRIUGARTE: Galdera zaila, zinez. Edozein modutan ere, ez dirudi industri giroan gaurko dinamika derrigorrezkoa denik. Bertsolaritzaren garapenak berak sorterazi zukeen gai-jartzailearen beharra. Saioak ugaldu ahala, zail egiten zaio bertsolariari tokian tokiko gai eta aipamen aproposak bilatzea. Gaia eskainiz gero, ardura bat kentzen du bertsolariak, nahiz eta batzutan trantze larrian jarri.

*Jakin,* 44. 1987ko Uztaila-Iraila.

1. *X. Amuriza. Zer da gutxiegi dagoena?*

   a) *Gai-jartzaileak.*
   b) *Bertso-saio libreak.*
   c) *Bertsolarien erantzukizuna.*
   d) *Bertso-zaleak.*

2. *Egaña. Gai-jartzailea beharrezko, zertarako?*

   a) *Inguruaren berri izateko.*
   b) *Erreferentziak ezkutatzeko.*
   c) *Herrietan pare bat egun pasatzeko.*
   d) *Kotxea edo geure moduak erabili beharrik ez izateko.*

3. *M. Itzaina. Nork behar du kultura zabalagoa?*

   a) *Kantuan berez hasten den bertsolariak.*
   b) *Gairik jarri gabe ari den bertsolariak.*
   c) *Gaia ematen zaion bertsolariak.*
   d) *Gaiak hurbildik hunkitzen duen bertsolariak.*

4. *M. Lekuona. Zer da gehiegi dagoena?*

   a) *Industri-gaiak.*
   b) *Bertso-saioak.*
   c) *Saio-libreak.*
   d) *Neurketa edo zein-gehiagoka.*

5. *I. Sarriugarte. Gai-jartzailea zergatik agertu da?*

   a) *Industri-munduak bultzatuta.*
   b) *Bertsolaritzaren berezko desarroiloak eskatuta.*
   c) *Toki bateko eta besteko pasadizoak ezagutzeko.*
   d) *Bertsolaria trantze larrian zegoelako.*

## 2. TESTUA

### Bertsolaritza: izenaren arazoa

Dema, kirol, apustu eta neurketa guztietan berdina gertatzen da. Gazteak, ia dena erakutsi eta demostratzeko dutenak, ausart joaten dira horrelakoetara, zer galdu askorik ez duenak izaten duen abantaila nabarmenari esker. Ilusio eta itxaropen apur bat galtzeko arriskua denek dute baina, dena den, ezin gonbara liteke hori beste zenbaiten zamarekin. Lehen aukeran porrot dexentea jasanik ere, ez zaio nork bere buruarekin hartutako konpromezuari besterik huts egiten, gehienetan. Eta hori, izena hartu arte konturatzea zail den arren, gauza handia da.

Besterik izaten da pelotaleku, zelai, zirkuito edo, gure kasuan, plazetan urte asko daramatzatenekin, demostratzekoak neurri haundi batean demostratuta daudenekin, duten ia dena galtzeko dutenekin. Batzuren amets, zerbait haundia egin eta gero atseden hartzea izan ohi da. Beste batzuk, ahal den arte ahaleginean jarraitzea nahiago izaten dute. Batzu eta besteek, lan ikaragarriak.

Txomin Garmendia eta Azpillaga izan dira suerterik gehien izan dutenetakoak. Ausartu direnetan, azken saiorako zortzi hautatuen artean sartzea lortu izan dute. Azken boladako txapelketetan ere, bertsolaritzaren transizio aroaren hastapenetan, neurria ongi eman zuten, orain hurrena antolatutakoan entzule soil bezala joan eta puntu asko irabaziz.

Patxi Etxeberriak ez du bere neurririk eman ahal izan azken bi txapelketetan. Dena gaizki irten beharreko egunak izaten dira batzutan eta horrelakoxeak tokatu izan zaizkio. Oraingoan zer egiteko asmotan den ez dakit, baina ondo pentzatzekoa luke. Dena den, ez dut uste zerbait demostratzeko kezkarik behar lukeenik.

Joxe Joakin Mitxelenak 79koan hartu zuen parte azken aldiz. Ondoezak galerazi zion saio batetan kantatzea, eta, geroztik, ez du izenik eman. Baina badakit maiz izaten dituela zenbaitekin neurtzeko tentaldiak.

X. EUSKITZE,
*Eguna,* 1988-XI-3

6. *Zer galdu dezake ia dena demostratzeko duen gazteak neurketan?*

*a) Asko.*
*b) Izena.*
*c) Gazte ez denak bezalaxe.*
*d) Beti galtzen da zerbait, baina ez gauza handirik.*

7. *Zer lortu nahi luke neurketan plazetan urte asko daramatzanak?*

*a) Bere balioa demostratzea.*
*b) Erretiratu baino lehen bere izena ahalik eta gorenen jartzea.*
*c) Kantatzen segitzeko bidea irekita gordetzea.*
*d) Lan ikaragarrietan aritzea.*

8. *Nolako suertea izan dute Txomin Garmendiak eta Azpillagak?*

*a) Garai bateko txapelketetan ondo, gero eskasago.*
*b) Izena emandakoetan, hutsik gabe izan dira azken saioan.*
*c) Transizioko txapelketetan gaizki ibili eta orain entzule izan behar.*
*d) Azken boladako txapelketetan, puntu asko irabazi dituzte.*

9. *Zer esan daiteke Patxi Etxeberriaz?*

*a) Bertsolari txarra dela.*
*b) Bertsolari aparta bihurtzen dela txapelketetan.*
*c) Bertsolari ona dela demostratu beharrik ez duela.*
*d) Hobe lukeela hurrengo txapelketan aurkeztea, izen ona mantentzearren.*

10. *Zer uste du X. Euskitzek J.J. Mitxelenari buruz?*

*a) 79ko txapelketan azkena izan zela.*
*b) Txapelketak gorrotatzen dituela.*
*c) Kantatzea galerazia daukala.*
*d) Neurketa zale dela.*

# 2. MINTZAMENA

## 2.1. AZALPEN LIBREA

### GAI JAKIN BATI BURUZ HITZ EGIN

Ondoko lau gaien artean bat aukera eta presta ezazu. Gero bost minutu izango dituzu gutxi gorabehera zure ideak aztertzaileei azaltzeko. Azalpenak ez du zertan ongi borobilduriko esaldiez osatua izan behar, baina egokia eta zuzena bai.

Beste paper batean idatz dezakezu zenbait puntu gero ahoz garatzeko, baina mintzatzeko orduan ezin izango da testu jarraitu bat irakurri.

Hona hemen, adibide gisa, ipini diren zenbait gai multzo:

1. Amnesty International.
2. Frantsesen %20ak ez du liburu bakar bat etxean.
3. Aurpegi serioak ikusten dira kaleetan.
4. Baleki gazteak, baleza zaharrak.

1. Bat baino gehiagok eman behar izaten du odola diru truke.
2. Benetan lan gogorra ertzainek dutena!
3. Abenturak ezagutzeko ez duzu zeure herritik atera beharrik.
4. Gaztetxoa igandean, gurasoekin ala lagunekin?

1. Sukaldea dut etxeko lekurik kuttunena.
2. «Norberaren etxe zaharra Erregeren etxe berria baino hobea».
3. Jendearekiko harremanetan nortzu dituzu lehenengo: senideak, lagunak, ezagunak, lankideak, ikaskideak, ...
4. Zein da ofiziorik zailena?

1. Nori emango zenioke lehentasuna bekak eta diru-laguntzak banatzeko orduan?
2. Osasunaz arduratzea garestiegia da gure gizartean.
3. Zer deritzazu Europa batu eta bakar bati?
4. Itsu jaio, ikusi ezin eta kamioiak gidatzen ikasi nahi luke madrildar batek.

1. ETB 1 jende gutxik ikusten du.
2. Sinesten al diezu eguraldi igarleei?
3. Zenbait kirolarik diru asko irabazten du.
4. Kupel txarretik ardo onik ez.

1. Boxeoa kirola ote?
2. Zer pentsatzen duzu zinemako artistei buruz?
3. 'Yuppie'ak.
4. Ligatzea gero eta gauza errazagoa omen.

1. Zertarako kartzelak?
2. Geroz eta jende gehiago joaten da eskiatzera.
3. Zarata artean bizi gara.
4. Errezo luzea, eta afari motza.

1. Israel eta Palestina, amaierarik gabeko borroka.
2. Abesbatzak ugari dira Euskal Herrian.
3. Arropatan diru asko gastatzen da.
4. Lan egiteko mutiko, jateko gizonko.

1. Zer da Soviet Batasunean aldatzen ari dena?
2. Dalí, hilezkor.
3. Berrogei urte dituena, zahar ala gazte?
4. Eman al duzu inoiz gau osoa lo egin ezinik?

1. Ba al du etorkizunik trenak Espainian?
2. Lanera kanpora joan beharra duzu; nahiago lankideekin ala bakarrik bizi?
3. Espero zitekeen neurriko aurrerapausua eman al du Medikuntzak azken urteetan?
4. Sanjuanetako suak: ohitura, tradizio, jai eta herriaren denborapasak.

1. Zein da Sindikatuen betebeharra gizartean?
2. Eusko Jaurlaritza txiroentzako soldata ordaintzen hasi da.
3. Gero eta dotoreago jazteko joera.
4. «Autobidean istripu bat izan nuen».

1. Errusiarrak eta amerikarrak adiskidetu direnetik gerra gutxiago dago munduan.
2. Sevillanak dantzatzen ikasteko eskolak hasi dira Bilbo aldean.
3. Kondeak eta Dukeak gaurko munduan zertarako?
4. Zer dakizu Koldo Mitxelenaz?

1. Goi mailako kirolaria izatera iritsi nahi nuke.
2. Erromeriak, trikitixa, bertsolaritza... aspaldiko kontuak?
3. Sindikatuak: Lehengo eta gaur egungo zeregina eta garrantzia.
4. «Neska zaharrak izen txarra, mutil zaharrak azken txarra»
   Komenta itzazu atsotitz honen esanahia eta sortarazten dizkizun burutazioak.

## 2.2. TESTU BATEN AHOZKO LABURPENA

### EMANDAKO TESTU BATEN AHOZKO LABURPENA

Irakur ezazu ondoko testua arretaz —apunte laburrak jasoz nahi baduzu—. Gero, haria aztertzaileei azalduko diezu, testua berkontatuz. Bigarren mailako xehetasunak bazter ditzakezu, helburua nondik-norako nagusiak ematea bait da. Idatzizko laburpena besterik gabe irakurtzea ez da onartuko eta testua bera zatika irakurtzea ere ez, testua han edo hemen lagungarri gisa erabiltzea zilegi bada ere. Ahozko laburpen autonomoak gehiago puntuatuko dira.

Hona hemen ipinitako testu batzu, adibide gisa:

## AHOZKO LABURPENA-1

### Urrearen hotsa

Fernando kalean zihoala apaiz egin berri batekin aurkitu zen, mutikotako laguna bera.

— Kaixo, Xanti! Aspaldian ez zaitut ikusi ere egiten. Nondik nora zabiltza?

— Badakizu, meza eman nuen eta Bizkaiko herri koxkor batetara bidali ninduten. Izena esatea ere ez du merezi, ezezaguna egingo zaizu eta.

— Eta ondo samar?

— Hainbestean ere. Jendea ona da baina bideak hain dira zikinak... Etxetik irten orduko lokatzaz belauneraino blai gelditzen naiz.

— Higiene kontuko sermoiak egin, Xanti! Higiene kontukoak!

— Alperrik baina! Buru gogor horietan ez da horrelakorik sartzen.

— Ez dira zuk uste bezain kaskagogorrak izango. Ni han banengo, laster gorde eragingo nieke kolko barruan auzoko lokatza guztia. Jokatuko nizuke ni hara joango banintz gau batetan bide guztiak garbitu baietz.

— Hori egiteko gauza bazina, eskertuko nizuke, Fernando.

Egun batez Fernando, korbata eta sonbrailu, dotore-dotore jantzi zen. Bete zuen maleta bat botikario jaunari eskatutako kristalezko ontziz eta, Praixku zeritzan adiskide bat lagun harturik, abiatu zen Xanti jauna apezgoan zegoen herri koxkorrera.

Aurrenengo lokaztegian geldialdi bat egin zuten jendeak ondo ikusteko moduan eta maletatik kristalezko ontziak atereaz, hasi zen Fernando lohiz betetzen, aldizka lokatza ontzi batetik bestera aldatzen, ur puxka bat nahasten eta noizik behin ontzia gorantz jasoz, argitan luzaro aztertzen.

Honetan, auzoko guztiak ohartu ziren gure gizonek misterioren bat bazerabiltela esku artean. Zenbait begiluze ere inguratu zitzaien:

«Gizon dotore horiek zertan ote dabiltza?», zioten bere artean. Fernandok eta, kasorik ere ez autu-batzaileei eta beren lanari jarraitu zioten.

Geroxeago, Fernandok eta Praixkuk elkarrizketa isil bat egin zuten eta geroxeago beste lohitegi batetara aldatu ziren. Halako baten, auzoko begiluzeak inguruan zituztelarik, botila txiki batetatik bota zuen lokatz pixka bat eskura eta luparekin begira jarrita, hotsegin zuen bapatean:

— Hemen, hemen!

— Bai ote, ingenari jauna? —galdetu zion Praixkuk ozenki.

Baserritarrak, jakin minez irrikitzen, Praixkurengana hurbildu eta galdezka hasi ziren.

— Zer bilatzen duzue lohitarte horretan?

— Ez zait zilegi esatea. Injenari jaunak debekatu egin dit gure lanaren berri ematea.

Azterketa lanak bukatu zituztenean auzoko ardandegira jo zuten bazkaltzera. Sukaldean eskuak garbitzerakoan, ixilmixilka eta misterio antzean baina bidebatez etxekoek entzuteko eran, esaten dio Fernandok bere komedia lagunari:

— Bai, Frantzisko. Nik uste bezalaxe, hemen bertatik igarotzen zen erromatarren galtzada zaharra. Eta hain zuzen ere, auzo koxkor hauxe da Octaviano enperadoreari, urrez betea zihoalarik, kantabroek eraso zioten toki berbera. Historiak esaten digunez, Octavianok gudua galdu zuen eta ihesari eman zion, gainean zituen urre guztiak bertan utzita. Horregatik, nire ustez, lokatzarte hauetan urre asko aurkituko dugu. Baina argi! Isilik ibil gaitezen inor aurreratu ez dakigun.

Fernandok eta Praixkuk bapo bazkaldu zuten eta arratsaldean, maleta bizkarrean hartuta aldendu ziren auzo lohitsu hartatik.

Biharamonean Xanti apaizak ez zuen ezagutu bere auzoa. Bide bazter guztiak garbi-garbi agertu ziren. Zer mirari zen hura? Luzaro gabe jakin zuen. Baserriz-baserri hasi zenean ohi zituen bisitak eginez, bertako sabaietan bilduak aurkitu zituen bideetako lohi guztiak.

J.M. ELEXPURU
Fernando plaentziarra (moldaturik)

## AHOZKO LABURPENA-2

### Bibliatik konputagailura

Asher Stern Israelgo ‹‹Akiva›› ulpaneko irakaskuntza programetako zuzendaria da. Ulpanak hebraiera irakasteko zentruak dira, Israelen garrantzi haundia izan dutenak. Ez da ahaztu behar Israelgo estatua sortu zenean, 1948.ean, kanpoko judu asko joan zena bertara bizitzera. Jende horrek ez zekien hebraierarik, baina ulpan hauei esker miraria gertatu zen eta hebraiera nagusitu zen handik eta hemendik etorritako juduen artean.

Asher Stern hizkuntzalaria da, Tel-Aviv eta Jerusalengo unibertsitateetan ikasia, eta baita soziologoa ere.

Hizkuntz Politikarako Idazkari den Mari Karmen Garmendiak gonbidatuta, Euskal Herrira etorri zen maiatzaren erdi aldera eta egokiera hori aprobetxatu genuen Israelgo kasu harrigarriaz hitzegiteko.

GALDERA.— Lehendabiziko galdera ‹‹Akiva›› ulpana-ri buruzkoa da, galdera tipiko bat. Zer da ‹‹Akiva›› ulpana? Zenbat jende ari da ulpanean bertan eta inguruan eta zein eratako jendea?

ERANTZUNA.— Ulpan hau 1951ean sortu zen. Eta poliki-poliki ulpanaren zuzendaritzak zuen ideia aldatuz joan zen. Ulpan hori Shulamith Katznelson andereak sortu zuen; baina geroztik hasierako ideia, izpiritua eta metodoa ere aldatu egin dira.

Poliki poliki —hau beste galdera bati dagokion erantzuna baliteke izatea, ez dakit— bertako ateak beste jende bati ere zabaltzen saiatu ziren, ez Israelera iritsi berriei bakarrik; eta gaur egun, edozein pertsonak, mundu guztian, jentilak, badakizu —izan liteke kristaua, izan liteke budista, izan liteke musulmana ere—, hebraiera ikasi nahi baldin badu, aski du Israelera idatzi, ordaindu, etorri eta ikastea.

Gero, 1967az geroztik, Sei Egunetako Gerratik hona, arabierazko ikastaro trinkoak hasi genituen, arabiera mintzatua juduentzat, nazioa bi aldeetatik irekia bait zegoen. Harremanak zuzenekoak ziren arabiarren eta juduen artean eta premia handia zegoen garai hartan juduak arabieraz ere mintza zitezen, eta arabiarrentzat ere bai hebraieraz mintzatzeko.

Gaur egun, beraz, ikastaro trinkoak ditugu hebraierarako, eta ikastaro trinkoak arabierarako. Hebraiera hiru eratako ikasleek ikasten dute, gutxi gorabehera. Bat, munduko alde guztietatik datorren jendea, turista bezala, ikastera, eta ondo ikastera hala ere. Interes berezia duen jendea da. Bigarrena, iritsi berriak —gaur egun gutxi dira, baina etortzen dira oraindik ere ulpanera—. Eta zaharrak, edadekoak, Israelen hogei edo hogeitamar urte ere badaraman

jendea, baina ikasteko aukera egokirik izan ez duena —badakizu, lanean aritu den jendea eta horrela—; eta orain ikasteko astia du.

Bestetik badira ikastaro bereziak, oso maila altukoak, normalean hebraieraz hitzegiten badakien jendearentzat, baina idatzi eta abar egin behar duenarentzat.

Guk daukagun beste talde batean arabiarrak daude, lurralde arabiarretatik datozenak —Jordanez ezkerraldekoak, Gazako pasadizokoak eta Golango goialdeetakoak—. Gobernuaren bidez iristen dira, Gobernuko enplegatuak bait dira.

G.— Hebraieraren berpizkundeaz orain. Berpizkunde hori egiazkoa da? Gizarte alor guztietan gertatu da? Finantzetan, adibidez, zientzian...

E.— Bai, hebraieraren berpizkundea osoa izan da; normaldua dago, nik uste. Berpizkundea oraintxe ehun urte hasi zen. 1880. urte inguruan, eta berrogei-berrogeitamar urtetan burutu zen. Baina, begira, gaur egun hebraierak duen egoera beste hizkuntza handi askorena baino hobea da; ez ingelesarena baino hobea, jakina.

Eta eman nahi dizudan adibidea konputagailuen mundukoa da: konputagailuen terminologia arazo larria da hizkuntza askotan, hizkuntza asko ingelesezko terminologiaz ari bait da baliatzen. Ez dakit euskarak honetan zer arazo dituen, baina badakit zelako arazoak dituen arabierak: ikaragarriak! Terminologia ingelesezkoa da; frantsesez ere arazoak dituzte. Hebraieraz, hasiera-hasieratik, hizkuntzalaririk gabe, berez, konputagailuetan ari zen jendearen eraginez, konputagailuetako terminologia guztia, azkeneko hogei urte inguru honetan, hebraieraz da; ez zenuke sinestu ere egingo.

Baina kotxeen edo garajeetako terminologiari erreparatzen badiozu, «frenua» edo «enbragea», adibidez, «garaje» hitza bera, mende honetako hirurogeigarren urte ingurura arte, ingelesetik hartuta ziren gehienak. Hitzak badaude, Akademia hitz berriak sortzen ari da. Baina bizitza arruntean, garajean adibidez, joaten zinen eta «frenuak» konponduko al zizkizuten eskatzen zenuen. Baina azkeneko hogeitabost urte honetan hori dena aldatu egin da. Eta ez da izan norbaitek aldatzea erabaki duelako; ez dakit nola gertatu den, baina gaur egun auto eta garaje gauzetako terminologiaren ehuneko larogeita hemeretzia hebraieraz dago. Garajezale guztiak ia denak analfabetoak badira ere, hebraierarekin harro sentitzen dira eta ez dira publizitatean eta erabiltzen den ingelesagatik, «minis-tore», «drugstore», «boutique» eta horrelako zenbait hitzekin.

Berpizkundea osatua dago. Eta konputagailuena horren gailurra besterik ez da.

*HABE,* 90. zkia.

# AHOZKO LABURPENA-3

## Elhuyar anaiak

Lotsa apur batez bada ere, Euskal Herriak zientziaren eta ezagumendu zientifikoaren garapenari ekarpen baliotsu gutxi egin diola aitortu beharra dugu euskaldunok. Zientziaren ortze zabalean berezko distira izan duten euskal izarrak urriak izan dira, eta hauen artean, argitasun nabariaz, Juan Jose eta Fausto Elhuyar eta Zubize kokatu behar dira.

Logroñon jaiotako bi ‹‹euskaldun›› hauek duela berrehun urte, 1783.ean alegia, une hartan astiro handitzen ari zen elementu kimikoen zerrendari izen berri bat erantsi zioten, wolframioa.

Nahiz eta, esan bezala, Fausto eta Juan Jose Logroñon jaio, bi arrazoi funtsezko daude haren burua euskalduntzat jotzeko. Alde batetik, gurasoak euskaldunak zituzten; aita, Juan izenekoa, Hasparrengo Elizalde baserrikoa; eta ama, Ursula, Donibane Lohitzungo Grantxanenekoa.

Bestalde, eta bigarrenez, beren bizitzaren garai oparoena Euskal Herriarekin, Bergarako Erret Mintegiarekin hain zuzen, lotuta dago. Bertako irakasle izanik, wolframioaren isolaketa egin zuten, alde batetik; eta bestetik Real Sociedad Vascongada de Amigos del País delakoaren partaide izan ziren.

Garai hartan ohigabekoa zen hausnarketa sakon eta zabala izan zen Elhuyar anaien ondorengo lanen zutabe eta oinarri. Bere aitak bultzatu eta sortu zuen, era berean, zientziarako zaletasuna. Juan Elhuyar, ezpairik gabe, ikusmira zabal bezain zuhurreko pertsonaia izan zen, eta ez zuen erreparorik jarri bere semeei egokia ikusten zuen heziketa emateko.

Elhuyar-tarrek Oionen (Araba) egin zituzten lehen ikasketak, dirudienez, hortik Logroñoko Jesuiten Ikastetxera pasa zirela. Adina izan zutenean, aitak, ahalegin ekonomiko ikaragarria eginez, Parisera igorri zituen beren ikasketa zientifikoak zabal zitzaten.

Pariseko klaseak (1773-1777) ederki eta egokiro aprobetxatu zituzten Elhuyartarrek irakasle ospetsuengana joanez. Bertan, alde batetik, orduko zientzilari famatuenetarikoekin, D'Arcet eta Rouelle; eta bestetik, Antonio de Munibe, Peñafloridako Kontea-ren semea eta Francisco Xabier de Egia, Narroseko Markes-aren semearekin jarri ziren harremanetan. Bi azkeneko hauen bidez, Juan Jose eta Fausto, Real Sociedad Vascongada de Amigos del País-ko partaide izendatu zituzten, Irakasle Bazkide gisa 1778.etik aurrera.

Parisetik, eta elkartearen beka batekin Freiber-era joan ziren bertako Mea-Eskola-n ikasketak zabaltzera. 1781. urterarte Abrahan Werker, Carpentier, Rechster, Ubern, Klotseh eta Gelter irakasle ospetsuen klaseetara joan ziren.

1781. urtearen erdialdera bi anaiak aldendu egin ziren. Fausto Bergarara itzuli zen bertako Erret Mintegiko Mea-Eskola-ko katedra hartzera eta Juan Jose, ikasketak sakondu asmoz, Uppsala-ko (Suezia) unibertsitatera abiatu zen. Juan Josek, Uppsalan Bergman irakasle famatuaren ahotik azido tungstikoaren berri izan zuen eta bertan bururatu zitzaion, dudarik gabe, hauen osagai metalikoaren isolatzearen ideia eta asmoa.

1782.eko Urrian, Juan Jose Bergarara itzuli zen eta bere anaia Fausto-rekin batera, honek egokiro prestatuta zeukan laborategian, azido tungstikoaren osagai metalikoaren isolaketari lotu zitzaion, eta baita lortu ere! Isolaketaren berri 1783.eko 'Extractos de las juntas generales abreviadas por la Real Sociedad Vascongada de Amigos del País en la ciudad de Vitoria por setiembre de 1783' delakoan ematen da argira.

Zientziari ekarpen handi hau egin ondoren bi anaion bizitza aldatu egin zen. Honela, 1784. urtean Juan Jose, Cadiz-en, untziratu zen Nueva Granada-rako bidea hartuz. Amerikan, meategi-inspektore ibili ondoren, 1790.ean Bogota-n hil zen.

Fausto 1821. urtean Madrilera joan zen bertan Injineru-Eskolako zuzendari izateko eta 1823.ean hiltzeko.

Izan bitez biok, bada, euskal zientzilari eta ikerlarien helburu eta ispilu.

*Jakin,* 28. 1983.
(moldaturik)

## AHOZKO LABURPENA-4

### Egarria: alarma-seinale bat

Gure gorputzaren osagai nagusienetariko bat (nagusiena ez esateagatik) ura da; neurri edo muga batzuen barnean konstante mantentzen den osagarria. Pertsona heldu baten gorputzeko pisuaren %60 gutxi gorabehera ura da. Portzentaia hau ezberdina da gorputzeko gantzaren arabera: pertsona mehar edo argaletan %65 den bitartean, pertsona lodietan %55eraino jaisten da. Gorputza guztiz gantzik gabe hartuko bagenu (ia ezina gertatzen da, bestalde), uraren proportzioa askoz ere konstanteago mantenduko litzateke: %75.

Ura, gorputzean, bi espazio handitan banatzen da: bi heren zelulen barnean dagoena, eta gainerantzekoa zelulaz kanpoko likidoetan (odola, linfa, etab.). Eta banaketa hau uraren gatz mineral eta gai organikoen edukinari oso lotua dago; zelula-barnea potasioaren ioitan aberats den bitartean, zelulaz kanpoko likidoak sodioaren ioitan dira ugari. Sodioa eta potasioa beren espazio propioetan mantentzen dira, baina urak mintzak zeharka ditzake, zelula-barneak kanpora eta alderantziz igaroz.

Zelulaz kanpoko espazioan ur-galera bat gertatzen denean, zelulek beren ur-zati bat eskaintzen dute, konpentsazio gisa. Egoera honetan zelulek nolabaiteko deshidratazio bat jasaten dute; EGARRI ZELULAR izenda genezakeena. Gure gorputzeko zelulek oso aldaketa txikiak onartzen dituzte ur-kopuruari dagokionez, eta horrexegatik bizi-egoera normala mantendu ahal izateko, kanpora irteten den ur horren ordainez gorputzak likidoa behar du eta normalean edarien bidez ahoratzen da.

Baldintza normaletan, gurea bezalako klima batean eta gurea bezalako bizimodu batekin, egunero bi litro t'erdi ur galtzen dira: litro t'erdi gernuaren bidez (pix egiterakoan), 30 ml arnasketarekin, beste litro erdi bat larruazalean zehar (nahiz eta izerditu ez) eta gainerantzekoa eginkaietan. Dena den, galdutako ur guzti hori egunero berreskuratzen du gorputzak, edaten dugunarekin (litro bat gutxienez), jaten dugunak duen urarekin (beste litro bat gutxi gorabehera), eta gure metabolismoko erreakzioetatik sortzen den uretik (300 bat ml).

Baina zenbait egoeratan (beroa, ariketa, etab.) ur-galera hau normala baino handiagoa suertatzen da. Beraz, eta beti pertsona osasuntsuei buruz ari garela, oso ingurugiro beroetan eta lan-baldintza gogorretan egun batean 5-10 kg gal daitezke izerdituz, eta noski honek edariak ugaltzea eskatzen du derrigor, gorputza egoki mantendu nahi bada (10-14 litro ur egunero).

Ur-oreka hori ur-ekarpenak (edariak) gutxitu direlako, edo ur-galerak ahoratutako ura baino handiagoak direnean hausten denean, gorputza EGARRI da. Ahoa lehorra sentitzen da eta egarri-sentsazio hau gorputzarentzat argi gorria piztea bezalakoa da; geure erreserbak ahitu egin direla

eta gorputzak gehiago eskatzen duenaren lehen seinalea. Gorputzeko ur guztiaren % 10 galtzeak, aldaketa larriak suposa ditzake, eta %25 galtzen bada, heriotza berehala dator.

Klima epeletan, pertsona heldu bat urik batere edan gabe 10-14 egunetara hiltzen da. Baina iraute-epe hori asko murrizten da basamortu beroan baldin badago; egoera honetan, itzalean 30°Cra adibidez, inolako ariketarik egin gabe gorputzak 4 bat litro galtzen ditu eguneko eta 4 egun t'erdiz iraun dezake ezer edan gabe. Ariketarik egiten badu (gauez ibiltzea, adibidez), bizirik gutxiago iraungo du (3 egun t'erdiz).

Zer da gauzarik hoberena egarria kentzeko?. Ura, inolako zalantzarik gabe, eta gatz mineralak baldin baditu, hainbat hobe. Nahiz eta oso atsegina ez izan, itsasoko ur-baso bat izotz-puska batzuekin diluituta oso eraginkorra izan daiteke. Eguneroko ur-galerak konpentsatzeko garagardoa, esnea, zukuak edo infusioak (tea edo kafea, adibidez) uraren ordain egokiak izan daitezke. Edari freskagarri azukredunei dagokienez, azukre-kopuru jakin batetik aurrera —litroko 25-50 g.tan dago ezarria muga— likido horiek ez daukate ehunetara sartzerik, eta horregatik ez dute inolako eraginik egarria kentzeko. Eta esan dezagun, adibide gisa, soda batek litroko 100 g azukre baino gehiago duela.

J. AGIRRE
*Elhuyar* 1987, 7. alea.
(moldaturik)

## AHOZKO LABURPENA-5

### Emakumeak, gizasemeen pareko, baita tabakoak eragindako kalteetan ere

Estatu Batuetan 1957an %33 emakume helduk erretzen zuen. Handik 25 urtetara, emakumeetan sekulan gertatu ez zen biriketako kantzerra izan da heriotze gehien ekarri duen minbizia, emakume eta gizonezkoen artean berdintasun triste honetara iritsiz. Estatu Batuetatik berdintasun hori Britainia Handira eta Europako beste zenbait herritara esportatu da, komunikabideek eragindako publizitateari esker. Osasunaren Munduko Antolakuntzak (OMA) egindako kalkuluen arabera, bi milioi t'erdi pertsona hiltzen da urtean, tabako kontsumoaren eragin zuzenez. Egunero hogei «Jumbo-Jet» bidaiariz beteta airean lehertu eta bizirik inor irtengo ez balitz bezala.

Euskadin duela 20 urte indar hartu zuen emakume erretzaileen arrakastak. 1980-90 hamarkada hasieran detektatzen dira gure artean biriketako minbiziaren lehen kasuak emakumeen artean. Kontutan hartu behar da, 12 urte behar duela minbiziak gizakiarengan ernemuintzeko. Hemen ere, sexuen arteko berdintasun tragikorantz goaz, beraz.

Tabakozaletasunak erakarri dituen kalteen berri jendeak jakin ondoren, mendebaldeko herrietan askok utzi dio erretzeari. Zenbaki batzuk, eredu gisa: Kanadan sei milioi erretzaile-ohi, Britainia Handian hamar milioi, Estatu Batuetan berrogei milioi. Euskal Herrian, 1982an hasi ziren tabakoaren aurkako kanpainak Eusko Jaurlaritzako Osakidetzaren eskutik. Ondorioak bistan dira: 42 urtetik gorako erretzaileen artean gaur egun ez erretzea positibotzat jotzen da. Gehienek uzteko ahalegina ere egin dute noizbait.

Gaztetxoen artean osasunaren aldeko propagandak ez du horrenbesteko eraginik izan. OHO 8. - BBB 1. mailetako ikasleen artean neska-mutiko ugari hasten da erretzen, neskak mutilak baino ugariago. Gizartearen presioak, nonbait, erakundeen aholkuak baino indar handiagoa du. 12 urtetako %89 neska-mutilek aitortzen dute, erretzeko eskaintza zuzena izan dutela nagusiagoengandik. Famili giroak eragin zuzena du gaztetxo erretzaileongan: guraso erretzaileen seme-alaben artean %80 erretzaile bihurtu da. Famili giroan erretzailerik ez dagoenean, arrisku zenbakiak % 40ra jaisten dira.

Estatu Batuetan hasi ziren emakumezkoen zigarrilloen propagandak 1920-30 hamarkadan. 1937an Philip Morrisek Londresen emakumeentzako «Marlboro» berezia sortu zuen kolore gorrizko filtroz. Propagandak honela zioen: «errubi kolorezko ezpainentzat filtro gorria». Porrot komertziala izan zen.

«American Tobacco» konpainiak, psikologo eta publizista ospetsuen laguntzaz estrategia berri bati ekin zion 30eko hamarkadan. Lucky

Strike-ri, lehendik ere merkatuan zegoenari, publizitateak erabat itxura aldatu zion. Paketeak berde-menta kolorez agertu ziren merkatuan, eta aktoresa eta modelo famatuak kontratatu ziren, filmeetan eta modazko lekuetan erre zezaten. Ondoren Estatu Batuetako iragarpenbide guztietan kanpainari ekin zitzaion; emakume gazte lirain baten ezpainetan hitz hauek ikus/entzun ahal ziren: «Gozokiaren tentaldian jausi baino hobe duzu Lucky bat erre». Lucky Strikeren arrakasta sekulakoa izan zen. Mezuak, tabakoa promozionatuz gain, emakume-gorputzaren irudi berria saltzen zuen. 1939an Estatu Batuetako emakumeen artean %18 erretzaileak ziren.

Urte horietan emakumea zigarro-kez inguraturik, Hollywoodetik zetozkigun filmeetan bakarrik ikusten zen. Gero turismoarekin bertaraino etorri zitzaizkigun emakume erretzaile dotoreak eta haien keak sortutako lilurak, gaitza eta mina franko erakarri duen arren, oraindik ere, etengabe, hainbat eta hainbat gazte txoratzen jarraitzen du.

*Eguna*. 1988ko abenduak 22. 3. orr. (moldatua)

## AHOZKO LABURPENA-6

### Esklabu bat subastan saldu zuten Hondarribian

Gertaera beltz ugari dago Euskal Herrian krimenetatik aparte, batetik gure herri ttiki eta mendi hostotsuetako bakardadearen babesagatik, bestetik garai bateko zenbait lege krudelek gogorkeriari mugak urrun jartzen zizkiotelako. Kronika beltzen zerrenda luzean Hondarribian subastan saldutako esklabuaren kasua aurkitu dugu. Ez da inork asmatutako istorioa. Hondarribiko Artxibategi Munizipalean gertaera guztia osatu dugu berriro, Serapio Mujika jaunak joan den mendean argitaratu zuen bertsiotik ere zenbait zertzelada jakingarri aprobetxatu dugularik.

1648ko Uztailaren 10ean, gazte beltzaran bat zihoan Irungo kaleetatik barrena.

25 urte zeuzkan, gorpuzkera sendoa eta jazkera pardoska eta higatua, eguzkiak errea. Ezkerreko eskuan hiru behatz falta zitzaizkion eta eskuinekoan errosario bat zeraman. Arratsaldean, Irungo kaleak utzi eta bideska bat hartu zuen, ‹‹Matxiñen-Borda›› baserrira eramango zuen bideziorra: limosna eske zihoan gaztea, eta baserri aurrean gazte kuadrila bat txolartean ikusirik, borondatea eskatu zien hauei ere. Zerbait arraroa somatu zioten gazteek, eta Tomas Eizagirre, haietako ausart eta odol berodunak nongoa zen galdetu. ‹‹Soy de las Cuatro Villas››, erantzun zuen eskaleak gaztelania txukunean, baina Tomasek ez zion sinestu. ‹‹No pareces montañés sino turco o moro›› erantzun zion bere esku zarpailekin lepoa estutzen zion bitartean. Gurutze Santua egiteko agindu zion, eta eskalea oso urduri jarri zen eta errosarioa erori zitzaion.

Jadanik gezurretan jarraitu ezinik bere istorioa kontatu zien beldurrez. Eiza Audala deitzen zen, Zalen (Berberia) jaioa, eta bere errelatoaren arabera, untzibergantin batean itsasoratu zen, bi urte eta hiru hilabete lehenago, beste 34 gizonekin batera, Bran Arraiz kapitain eta desertore frantsesaren agindupean.

Gibraltar-eko pasagunean preso hartu zituzten bi untzi flamenkok eta Holandara eraman zituzten bergantineko marinel guztiak. Holandan maestre ingeles baten esklabu egin zuten, baina ingelesak, bere egoeraz errukiturik, libre utzi zuen Andaluziako kostako alderdiren batean, eta oinez etorria zen Iruñeraino muga pasatzeko asmotan, Frantziatik bere jaioterrira heltzea errazago izango zitzaiolakoan.

Garai hartan esklabuen salmentak legeztaturik zeuden eta Tomas Eizagirrek, kupidarik gabe, bere esklabu egin zuen Eiza Audala eta Hondarribiko gartzelara eraman zuen eta Pedro Zuloaga alkate eta epaileari entregatu, subasta publikoan saltzeko eskatuz.

Tomas Eizagirrek salmentaren bere partea jasoko zuen, legeak ezartzen zuen bezala, presoaren jabe bakarra izateagatik. Sumarioa zabaldu zen Eiza Audala kasuarekin.

Tomas Eizagirrek berarekin hizketan zeuden lagunak eraman zituen lekuko bezala.

Garbi zirudien kasuak, baina halere Pedro Zuloaga alkateak bere izakera librea demostratzeko aukera eman zion Eizari, horren frogagarri izan zitekeen dokumenturen bat aurkezteko eskatuz. Eizak, buru makur eta kontra egiteko ahalmenik gabe, ezer ez duela aitortzen du, ezin duela bere burua defenditu eta alkateari, bere eskutan jartzen dela erantzuten dio. Gauza garbi dago eta ez dauka itzulbiderik: Abuztuaren 9an, igandean, meza nagusiaren ondoren, salgai jarriko dute esklabuaren burua.

Hondarribiko Arma Enparantza gainezka zegoen igandean. Bernardo Artano danborlari nagusiak redoble bat egin zuen subastaren baldintzak altuan jakin araziz. Ehun dukatekin hasiko zen subasta. Erosleak Espainako Erresumako zilarrezko dirutan ordaindu beharko zuen, gehienez zortzi egunen buruan, eroslearen esku gelditzen zelarik aurrerantz esklabuaren etorkizuna. Kuriositateak bakarrik bildu ote zuen jendetza guzti hura enparantzara? Ala errukiak? Ez dakigu, baina inork ez zuen ezer eskaini esklabuagatik. Bertan behera gelditu zen subasta, eta hurrengo egunerako atzeratu zen.

Astelehenean arratsaldeko hiruretan hasi zen berriz. Bezperan baino askoz jende gehiago bildu zen, eta Bernardo Artanok redoblea amaitu eta baldintzak berriro irakurri orduko, Joanes de Lyzardik 16 dukat eskaintzen ditu. Zurrumurruak jendartean.

Isilune baten ondoren beste esku bat altxatzen da. Joanes de Aginaga da, eta zilarrezko 200 erreal eskaintzen ditu. Zurrumurru gehiago. Subastaren luzeroa neurtzen zuen kandela itzali zen azkenean eta danbor redoblez esklabuaren jabe berria iragarri zen: Joanes Aginagakoa. Alkateak jabe berriari entregatu zion Eiza Audala, bere nagusi eta jaun bakar bezala onartu zezala ordenatuz.

Zortzi egunetara ordaindu zuen Joanes Aginagakoak, eta abuztuaren 24ean diruaren banaketa egin zuen Zuloaga alkateak...

Aginagatarrak Irungo familia aberats eta haundia ziren, eta urteak aurrera joan ahala, bai Joanesek eta bai bere anaia Santiagok lan eta politika postuak lortu zituzten Hondarribiko Udaletxean. Eta zer egin zuen Eiza Audalak? Ez daukagu pista bat bera ere, ez dakigu ezer. Ziur aski bizkarra hautsi beharrean igaroko zuen bizitza guztia, lanean, eta kasurik hoberenean baserritik ihes egin eta Bidasoa igerian zeharkatuz Hendaiara hel zitekeen, jende basati hura atzean utzi eta askatasuna lortuaz... ez dakigu.

P. ARISTI
Bezperan entregatu nituenak
Diario Vasco.- Zabalik, 87-IX-23

# 3. IRAKURMENA

## 3.1. AUKERA ANITZEKO GALDERAK

Ondoko testua arretaz irakurri eta atzean datozen galdera guztiak erantzun itzazu. Erantzun okerrengatik ez da punturik kentzen; zure puntuazioaren totala erantzun zuzenena izango da.

Aukera ezazu erantzunik egokiena.

## IRAKURMENA-1

### Mitxelena: ‹‹Euskara, armarik onena eta ahulena››

Albiste samina gertatu da euskaltzaleentzat Mitxelenaren heriotza. Hizkuntzaren ikerketak jakintza-mailara jaso dituen jakintsua ezezik, euskararen auzimauzietako maisua eta gidaria ere galdu bait dugu. Orain dela hiru urte berarekin izandako hizketaldi luze batean, besteak beste, euskara izan genuen hizpide. Orduko hitzak gogoratzen ditugu orain, Euskal Herriaren eta euskararen alde lan eskerga egin zuen Mitxelenaren ohoretan.

‹‹Gauzak asko aldatu dira. Duela 50 urte eta orain ez dira berdinak. Lehen sartu ez zen eremuetan indarberritu egin da euskara. Unibertsitate eta Institututetan euskara irakasten delako bakarrik ez, baita kalean agertu delako ere, hitzez eta izkribuz. Joera honek irauten duen arte euskarak iraungo du. Iraungo duela uste dut, gainera››.

Euskarari hil-kanpairik jo nahi ez zion Koldok, ordea, beste galdera hau egiten zion bere buruari: ‹‹Nola iraungo du?››. Izan ere euskararen eta erdararen arteko hesi eta murruak sortzen ari ote garen beldur zen. ‹‹Euskara multzo baten hizkunza eta erdara bestearena izango ote den beldur, alegia. Euskal taldeak erdaraz ere badaki eta ghetto batean gelditukoez bagara, nahitaezkoa da murrua haustea. Erdaraz, zuzen nahiz oker, euskarak dituen eskubideak aitortuko nituzke eta ahalegin guztiak egingo euskarari erdaldunen artean bidea zabaltzeko. Guk dugun armarik onena, inork ukatu ezin lezakeena, hizkuntza da. Baina aldi berean bera dugu ahulena, eskasena eta hauskorrena ere. Eguneroko borrokan erabili behar dugun arma denik ez dut uste, beraz››.

Hizkuntzalaria zenez, ordea, hizkuntzaren barruan gertatzen den diglosiaz arduratzen zen, batez ere. ‹‹Bi mailatan gertatzen da hori: goimailan eta kale-mailan. Goi-mailan, hitz erdaldunekin edo mailegatuekin. Nola hartu behar diren galdetzen da, ez hartu behar diren. Oso arriskutsua da erdara bakarra balitz bezala jokatzea, gaztelania baizik ez balitz bezala jokatzea, alegia. Gaztelaniaz dauden berezitasun eta ñabardura guztiak hartzeko joera dago. Eta aldi berean, euskarazko guztiak baztertzekoa. Adibidez, gaztetasuna, gaztaroa eta gazteria adierazteko juventud hitza bakarrik du gaztelaniak. Euskarazko ugaritasuna murrizteko joera eta gaztelaniazko aukera guztien ordainak asmatzeko grina zabaldu da. Erdararen mirabe bihurtu nahi gaituzte››.

Eta hiztegigileek eta idazleek goi-mailan sortzen duten diglosiari kale-mailakoa erantsi behar zaio Mitxelenaren iritziz, ‹‹erdarazko esaldiak, moduak, hitzak eta abar ari bait zaizkio euskarari itsasten››.

M. ATXAGA,
*Deia,* 1987-10-13

1. **Zertan genuen Mitxelena jakitun?**

a) Jakintza eta maisutza kontutan.
b) Hizkuntza eta euskara kontutan.
c) Euskara eta albiste kontutan.
d) Ikerketan eta auzi-mauzitan.

2. **Artikulugileak eta Mitxelenak duela hiru urte elkarrekin, zertaz hitz egin zuten?**

a) Mitxelenaren lan eskergaz.
b) Euskal Herriaren eta euskararen alde lan egiten zutenez.
c) Mitxelenaren merituaz eta ohoreaz.
d) Euskal hizkuntzaz.

3. **Zer aldatu da 50 urteotan?**

a) Euskara indartu egin da lehen ere indartsu zegoen tokietan.
b) Hala ez izan arren, badirudi euskara indartu egin dela zenbait lekutan.
c) Lehen ageri ez zen zenbait lekutan hartu du indarra euskarak.
d) Hitzez eta izkribuz ageri da lehen izkribuz baino ez zegoen lekuetan.

4. **Iraungo al du euskarak, Mitxelenaren ustetan?**

a) Bai, indarberritzen segitzen badu.
b) Bai, edonola ere, iraungo duela uste du.
c) Bai, duela 50 urte genuen egoera berriro lortzen badugu.
d) Bai, baina kalean bakarrik iraungo du.

5. **Mitxelena kezkaturik ageri da. Zergatik?**

a) Euskarari hesi eta traba asko jartzen zaiolako.
b) Euskarak azkenean iraungo ote duen ez dakielako.
c) Beldur garenean, inguruan hesi eta murruak jartzen ditugulako.
d) Euskal eta erdal hiztunak banandurik ikusten dituelako.

6. **Erabili behar al du euskaltzaleak erdararik?**

a) Bai, nahiz oker egin, euskararen alde.
b) Ez, beti behar du euskaraz erdaldunei bidea zabaltzeko.
c) Bai, erdararen eskubideak aitortzeko.
d) Ez, beti behar du euskaraz hesi eta murruak hausteko.

7. **Hizkuntza, armarik onena eta aldi berean ahulena. Norentzat?**

a) Euskaldun eta erdaldunentzat.
b) Euskaldunentzat.
c) Eguneroko borrokan dabiltzanentzat.
d) Hizkuntzalarientzat.

8. **Mitxelena diglosiaz ere arduratzen zen. Zergatik?**

a) Erdal hitzak euskarara nola pasa ez zekielako.
b) Bera hizkuntzalari zelako eta diglosia hizkuntza arazoa zelako.
c) Hizkuntzalari izateaz gain, bera goi-mailakoa zelako.
d) Diglosia, euskararen kasuan, bi maila berezitan ematen delako.

9. **Mitxelenak ez du ondo ikusten ...**

a) Erdal hitzak euskaraz ere erabiltzea.
b) Erdal hitzak euskaraz erabili nahi ez izatea.
c) Erdal hitz asko euskal hitz bakarrarekin esatea.
d) Euskal hitzak erdarazkoen kalko hutsa izatea.

10. **Diglosia behe-mailan ere ematen da.**

a) Hiztegigileen eta idazleen eraginez.
b) Euskal esamolde jatorrak erdaraz ere erabiliz.
c) Kale-mailako hizkera goi-mailan erabiliz.
d) Erdal hitz eta esaldiak euskarari itsatsiz.

## IRAKURMENA-2

### Bertsolari txapelketen historia

Bertsolariek elkarren lehian iharduteko usadioa Euskal Herria bezain zaharra dela esatea ez dirudi gehiegi esatea denik. Halere, bertsolari-saioak eta lehiak noizdanik egiten diren zehaztea aski gauza zaila da. Horrelakoez dagoen lehen berria 1609koa da. Urte hartan (XVII. mendearen hasieran, beraz), Iruñeko apezpiku zen Antonio Venegas de Figueroa-k «bertso-gudu» bat antolatu omen zuen Eukaristiaren omenez; Pedro Ezkurra, Mikel Aldatz, Joan Elizalde, eta Martin Portal aurkeztu ziren hartara. Horixe dugu, beraz, lehenengo berria.

Gerora, hemeretzigarren menderarte hutsune handi bat ageri da alde horretatik. Izan ere, hamazortzigarren mendea nahikoa iluna izan zen bertso-mundurako.

XIX. mendean, beraz, bertso-mundua apur bat piztu eta bertsolarien bilera edo bertso-jaialdiak antolatzen hasten dira. Onerako eboluzio hori Abbadie lapurtar euskaltzalearen saioarekin burutu zen, *Lore Joko*en mugimenduaren gailurrarekin. 1860an izan ziren Abbadie-ren lehen Lore Jokoak, eta handik aurrera kasik mende-erdiz iraun zuten bizirik.

1926. urtean euskaltzale talde batek *Euskaltzaleak* elkartea sortu zuen, eta berehala ekin zioten urtero Olerki Egunak zeritzenak antolatzeari. Olerki Egun horien garapen bezala har genitzake 1935 eta 1936an antolatu ziren estraineko Bertsolari Txapelketak. *Euskaltzaleak*en papera juzkatzerakoan, ezinbestekoa da Joxe Ariztimuño «Aitzol»ek izan zuen berebiziko garrantzia azpimarratzea. Esan liteke 1930ean berpiztu zela guztiz bertsolari-lehien ohitura hori, Toribio Altzagaren omenez *Euskaltzaleak* Elkarteak antolaturik, *Centro Católico* antzokian izan zen saioarekin. Txirrita, Lujambio, Tellatxipi, Zabaleta, Agirre eta Bitoria bertsolarien artetik, epaimahaikoek Bitoria izendatu zuten txapeldun, aho batez. Hortik aurrera ez zen modu hartako saiorik izan, Bertsolari Egunen txanda etorri arte.

1935. urteko San Sebastian egunez izan zen Donostian lehenengo Bertsolari Eguna. Urtarrilaren 20an jokatutako hura izen horrekin bataiatu bazuten ere, gerraondoko Bertsolari Txapelketa Nagusiekin homologa liteke. Donostiako *Poxpolin* aretoan *Euskaltzaleak* bazkuna eta *Euzko Gaztedia* izan ziren biak batera lehen txapelketa haren antolatzaileak. Orduko *Argia* astekariak zioenez, «egundo ez omen da orrelako euskel yai mamikorik izan Donostian».

Lekua eta eguna aukeratzea ere ez omen zen oso erraz gertatu, «... baiña Donosti erria euskaldundu nairik, beren yaiari begira, yatorrizko euskel kutsu duan gauzik egiten etzala-ta, Done Sebasten egunean, danbor soiñu artean, egitea erabaki zan».

Orduko kronikagileek kontatzen dutenez, bertsolarien besaulkiak bigunak eta dotoreak ziren albo bietara. Ariztimuño «Aitzol»ek jezar erazi

zituen bertsolariok, eta erdi-erdian epaimahaikoak. Antzinako erara, epaimahaikoek bertsoz adierazten zieten bertsolariei egin beharreko lana.

Honako hau izan zen epaimahaikoen epaia: aho batez, txapeldun «Basarri» aukeratu zuten (100 pezetako saria), zarauztarrak hogeitabat urte baino ez zituenean; bigarren sarirako «Matxin» (75 pta.). Txirrita ez zen lau horien artean agertu, nahiz eta «beste batzuek ere aukeratuak izango ziran, sari ugariagoak izan ba'lira, ba beste bertsolari yaiorik ba-zan gudu onetan-ta».

J.L.,
*Jakin* 1987ko Uztaila-Iraila

1. **Noizkoak ditugu lehen bertsolarien arteko lehiak?**

a) XVII. mendekoak seguruenik.
b) XVII. mendekoa da ezagutzen dugun lehena.
c) Saioak XVII. mendekoak, lehiak lehenagokoak.
d) Oso zaharrak, baina hasieran Elizak antolatzen zituen.

2. **XVIII. mendeko bertsogintzaz zer dakigu?**

a) Ez zegoen bertsolaririk XVIII. mendean.
b) Baziren bertsolariak baina ez bertso saioak.
c) Oso gutxi dakigu, ez dugu orduko bertsogintzaren berririk.
d) XVIII. mendea iluna da bertso-mundurako Iruñean bertso-gudurik izan ez zelako.

3. **Nor izan zen Abbadie?**

a) Lore Jokoak eratu zituena.
b) Lore Jokoetan parte hartu zuen lehen bertsolaria.
c) 1860ko Lore Jokoetako irabazlea.
d) Kasik mende-erdiz Lore Jokoetan bertsoak bota zituena.

4. **Besteak beste, zer egin zuten Euskaltzaleak izeneko taldekoek?**

a) Lore Jokoen barruan Bertsolari Txapelketak antolatu.
b) 1926tik aurrera Bertso Txapelketak antolatu.
c) Olerki Egunetan bertsolari gisa parte hartu 1935ean eta 1936an.
d) Lore Jokoak amaitu eta urte batzutara Olerki Egunak antolatzen hasi.

5. **1930ean Centro Católico antzokian bertso saio bat izan zen.**

a) Aitzol omendu zen.
b) Euskaltzaleak taldea omendu zen.
c) Toribio Altzaga omendu zen.
d) Sei bertsolari omendu ziren.

6. **Centro Católico antzokiko saioaz zer dakigu?**

a) Epaimahaikoak denak bat etorri zirela eritzian.
b) Handik aurrera ez zela beste bertso saiorik izan.
c) Ez zela haren ondoren modu hartako saiorik izan, Txapelketa Nagusiak izan arte.
d) Bertsolarien artean sei aukeratu zituztela epaimahairako.

7. **1935eko Urtarrilaren 20an bertso saio bat izan zen Donostian.**

a) Lehen Bertsolari Txapelketa Nagusia izan zen.
b) Ez zen lehen Bertsolari Eguna izan, hau San Sebastian egunez izan bait zen.
c) Poxpolin, Euskaltzaleak eta Euzko Gaztediak antolatua izan zen.
d) Bertsolari Eguna izena jarri zioten saioa izan zen.

8. **Urtarrilaren 20ko saio hura antolatu zutenen asmoak.**

a) Donostian euskaldunekin jai eta festa egitea.
b) Donostiako jaietan euskal giroa sortzea.
c) Donostiako jaiengatik protesta egin eta jai gehiago eskatzea.
d) Donostiari hiriburu zen aldetik zor zitzaion ospea ematea.

9. **Saio hartan bazen epaimahaia.**

a) Bertsolariak zeuden epaimahaikoen artean, erdi-erdian.
b) Epaimahaikoek ere bertsoz jakin arazi behar zieten gaia.
c) Sei lagun ziren epaimahaian botoa eman zezaketenak.
d) Kronikagileak ere epaimahaikoekin zeuden jezarrita.

10. **Sari banaketari dagokionez,**

a) Txirritak izan zuen saria baina ez lehen lauen artekoa.
b) Txirrita ez zen saio horretan agertu, bertsolari jaioa izan arren.
c) Txirritak ez zuen saririk izan, nahiz eta bertsolari txarra izan ez.
d) sari ugariagoak izan balira ez zen Basarri txapeldun geratuko.

## IRAKURMENA-3

Udaberrian, mendira joan zarenean seguru asko kukuaren kantua entzungo zenuen. Nahiz eta bere kantua oso ezaguna izan (hain bizi, sendo eta garbia izateagatik), jende askok ezin dezake esan kukua ikusi duenik. Kukuaren kantuak, beste hegazti batzuenak bezala, emeak bere lurraldea erreklamatzeko funtzioa betetzen du, eta aldi berean arrengandik lurraldea defenditzekoa. Emea, ar bat baino gehiagorekin erlazioak dituenez, poliandrikoa da.

Kukuaren (Cuculus canorus) taila 28-33 cm-koa izaten da. Kontutan hartu behar da isats luzea daukala, gainetik lumaia grisa eta azpitik zuria xingola grisekin; hegaldian gabiraiekin nahas daiteke. Arra eta emea berdinak dira, salbuespen bat izan ezik: emeen artean badago 'hepatiko' izeneko barietate bat, gainetik kolore gorriska daukana.

Oro har, negua Afrikako hegoaldean igaro, ondoren martxoaren azken egunetan edo apirilean heltzen da Euskal Herrira. Bidaia 9000 kilometrokoa da eta normalean gauez eta bakarrik egiten du. Heldua, uztailaren hasieran hegoalderantz joaten da berriro ere beroaren bila. Gazteak, ordea, irailaren azken egunetan joaten dira.

Kukuaren berezitasunik garrantzitsuena bere ugalketa da, hots, ez du habiarik egiten: beste hegaztien habietan ipintzen ditu arraultzak. Parasitismo hori gehien jasaten duten espezieak, besteak beste, txantxangorria, txepetxa, txinboa, buztangorria, txioa eta buztanikara dira.

Hamabi arraultza ere jar ditzake besteen habietan. Beste txorien habietan arraultza bana ipintzen du mokoz edo zuzenean errunez, bertako bana ere erregularki kentzen duelarik, antza. Eme batzuek hogeitazazpi arraultza ere ipin ditzakete. Jeneralean, mota bereko txori-habiak bilatzen ditu, hain zuzen ere, bera elikatu duten espeziekoak. Kukuaren eta aipatu espezieen arraultzak antzekoak dira, bai kolorez, bai formaz. Dirudienez, aitaren askazitik ez eta amarenetik heredatzen da arraultzen kolorea. Horregatik, kukuaren eboluzioan hautespen naturala oso inportantea izan dela esan da. Kukukumeak beren inguruan dagoen guztia, ostalarien arraultzak eta txitak, habiatik kanpora botatzen ditu, bizkar eta hegoez bultzatuz. Lau egun pasatu ondoren, habiakideak kanpora botatzeko instintua desagertu egiten zaio; normalean bera besterik ez bait da gelditzen habian.

Bakarrik egonda, etengabe janaria eskatuko dio bere amaordeari. Txori txikiek kuku gaztea elikatzeko, mokora heltzen ez direnez, haren buruan pausatu edo haren aurrean hegaka egin behar dute. Hiru aste pasa eta gero pisu handia daukanez, alde egingo du habiatik hurbileko abarretan ibiliz. Hiru aste geroago, hegaz egiten badaki eta bere burua elikatzeko gai izango da.

Hegazti ankerra dirudien arren, gure basoetan lan garrantzitsua egiten du, pinudietan batez ere, gehienbat pinu-beldarrez elikatzen da eta. Lipu, zizare eta intsektuak ere jaten ditu.

Horregatik, kukua defendatu egin behar dugu; gure basoetako pinubeldarraren izurriari aurka egiteko ezagutzen den defentsa gutxietariko bat bait da bera.

R. ANGULO,
*Elhuyar* 12 zkia., 1987, Abendua. (moldatua)

1. **Kukuaz zer dio?**

a) Bere kantua entzuten zaila da.
b) Bere kantua entzun ez duenik ez da.
c) Bera ikustea bere kantua entzutea bezain zaila da.
d) Kantatzen erraz soma baliteke ere, ez dugu hain erraz ikusiko.

2. **Kukuaren kantuak**

a) emeak bere lurraldetik uxatzen ditu.
b) beste hegazti batzuen kantuak ez dituen zereginak betetzen ditu.
c) arrak bere lurraldetik uxatzen ditu.
d) arrak bere lurraldera erreklamatzen ditu.

3. **Nolakoak dira kukuak?**

a) Gabiraien antzera egiten dute hegaz.
b) Gabiraiekin batera egiten dute hegaz.
c) Arrak eta emeak diferenteak dira salbuespen batekin.
d) Barietate hepatiko izeneko kukua arra da.

4. **Kukuen bidaiak**

a) ez dira oso luzeak izaten.
b) normalean taldeka egiten dituzte.
c) garai berberean abiatzen dira denak hegoaldera.
d) bakoitzak bere garaia du hegoalderantz abiatzeko.

5. **Kukuaren berezitasun garrantzitsuena:**

a) bere habia besterenean egitea.
b) bere arraultzak besteren habian jartzea.
c) bere arraultzak besteren habian zaintzeko erakusten duen ardura.
d) kuku bakoitzak txori mota beraren habian jartzen ditu arraultzak.

6. **Zenbat arraultza eta nola jartzen ditu kukuak?**

   a) Habia batean hamabi arraultza ere jar ditzake.
   b) Habian aurkitzen dituen arraultzak ez ditu normalean ikutu ere egiten.
   c) Txori-habia diferenteetan gustatzen zaio arraultzak jartzea.
   d) Bera hazi zen tipo bereko habietan jartzea gustatzen zaio.

7. **Kukuaren eta aipatu espezieen arraultzak/ek**

   a) antzekoak izatea kasualitatea da.
   b) antzekoak izatea hautespen naturalari zor zaio.
   c) beren koloreak ez du zerikusirik izan kukuaren eboluzioarekin.
   d) beren kolorea aitaren askazitik heredatzen dute.

8. **Kukuen txita/k**

   a) habian dauden arraultzak kanpora botatzen ditu, txitak ez.
   b) habian dauden txita guztiak bertan akabatzen ditu.
   c) lau egun pasa ondoren baretu egiten da.
   d) inguruan duen guztia bota arte ez da baretzen.

9. **Kukuaren elikadura dela eta,**

   a) txita ez da oso exijentea bere amaordearekin.
   b) hiru aste behar ditu bere kasa elikatzen hasteko.
   c) hegaz egiten hasi arte ez da bere kasa elikatuko.
   d) sei aste ematen ditu habian amaordeari etengabeko eskean.

10. **Kukuaren irudiari dagokionez,**

   a) hegazti ankerra da basoetan egiten duen kalteagatik.
   b) hegazti ankerra da baina pinudietako izurriteen kontra egiten duen lanagatik barka dakioke.
   c) hegazti ankerra da pinu-beldarrez elikatzen delako.
   d) pinu-beldarrak kalte egiten diolako defenditu behar dugu kukua.

## IRAKURMENA-4

### Euskaltzainburuaren Sarrera-Hitzak

### Belokeko Jardunaldian irakurritako aurkezpen-txostenaren laburpena

Oker egiteko beldur handirik gabe esan daiteke, ene ustez, euskara, autonomiaren ondorioz, egoera edo aro berri batean sartu dela. Eta hortik supituki —eta zorionean— gure mintzairari istilu eta katramila berriak heldu zaizkio. Ofizialtasun maila eskuratu duen puntutik, euskarari hiztegi-arazo larriak azaldu zaizkio.

Euskaraz tradizionalki erabili izan den hitz-multzo edo ondare hori behar bezainbestekoa zen eta euskaraz adierazten ziren premia eta zereginetarako egokitua. Baina orain bat-batean euskarak sarrera izan du administrazioan, irakaskuntzan, komunikabideetan; gizartea bera neurri handi batean hiritartu egin da eta mende berriko kultur giroan bizi da. Orduan ez da mirakuilu euskarak hitz-eskasia handi batekin topo egin badu.

Itsasoa neurgea, ikaragarri zabala dugu hemen begien aurrean.

Zein da Euskaltzaindiaren egitekoa arazo honetan? Euskaltzaindiak ez du uste gaur behar diren hitz guztiak sortzea berari dagokionik edo hainbeste alorretako izenak euskaraz nola esan behar diren berak dekretuz eta bana-banaka erabaki dezakeenik. Akademiak badaki berak bakarrik ezin dituela inolaz ere eremu larri horiek inguratu. Gainera, horretarako behar liratekeen ezagupen eta jakitateak gure ahalbideen gainetik daude.

Lan hau guztiona da, hots, herri osoarena; eta edozein modutan ere, bere denbora galdegiten du.

Baina hori esan eta, honako hau ere gaineratu behar dela uste dut: Euskaltzaindiak baduela hemen zeregin bat, bere-berea duena, hots, erizpideak finkatu eta nolazpait batu, obra handi hau batasun baten barnean egin dadin. Bestela, arau gidari batzuen faltaz, nahaspila ikaragarria sor daiteke, eta hori euskararentzat kaltegarri eta are hiltzaile ere gerta daiteke. Pentsatu besterik ez dago zer izango litzatekeen gauza bat bera izendatzeko zortzi-hamar hitzek kurritzen badute edo, hitzak berberak izanik ere, idazkera eta forma desberdinetan idatziko balira.

Hau da, bada, kontua: hitz berrien premian dagoela egun euskara. Eta behar dituen hitzok nondik eta nola izango ditu? Horretarako hiru bide aitortzen dizkiote gure gramatikalariek euskarari: Lehena, hitzak mailegatu, esan nahi baita, kanpotik etxeratu. Bigarrena, hitz-elkarketa edo konposizioaren bidez hitz berriak sortu. Hirugarrena, eratorbide edo deribazioaren bidez —aurrizki eta atzizki bidez, alegia— hitz berriak eratu. Laugarren bat ere oraindik aipa daiteke: semantikaren alorrean hitzaren adiera bate-

tik beste adiera berri batera luzapen bat edo lerradura edo irristadura egitea. Ez dut uste euskarari ate hauetarik batño ere hertsi behar zaionik. Noiz baliatu bata eta noiz bestea kasu konkretuetan, hori ezin daiteke aldez aurretik erabaki. Gure plangintzan laugarren bidea, semantikarena, oraingoz kanpoan uzten dugu, baina ez galerazten dugulako, noski. (.....)

L. VILLASANTE,
Euskaltzaindiaren *Hitz-Elkarketa-1*
liburuko Sarrera-Hitzak

1. **Noizdanik sartu da euskara aro berri batean?**

 a) Istilu eta katramila berriak heldu zaizkionetik.
 b) Euskararen kasuan ez daiteke aro berriaz hitz egin.
 c) Ofizialtasun-maila lortu duenetik.
 d) Autonomia lortuz geroztik.

2. **Euskarari hiztegi-arazo berriak azaldu zaizkiola eta, autorea/ak/ari...**

 a) guztiz kezkati agertzen zaigu.
 b) zorionean gertatu dela dio.
 c) begibistako larritasuna dario.
 d) lanerako erabat prest dago.

3. **Euskarak hitz-eskasia handi batekin egin du topo...**

 a) administrazio, irakaskuntza eta komunikabideetan sartu denean.
 b) gizarte teknifikatu batean murgildu behar izan duelako.
 c) 10-15 urteotan erdaren pareraino igon behar izan duelako.
 d) egoera basati batetik kultur hizkuntza izatera iritsi delako.

4. **Orain arte euskarak bere zereginetarako...**

 a) beti ukan ditu arazoak egoera diglosikoagatik.
 b) Ez da horrelakorik ezer esaten.
 c) ondare lexikal egoki eta behar adinakoa zuen.
 d) gaur egun duen moduko premia bizia ukan du.

5. **Zer uste du Euskaltzaindiak euskarak beharrezko dituen hitz guztiak sortzeari buruz?**

 a) Beste herrialdeetako Akademiek egin ohi dutena egin behar duela.
 b) Eremu hori berari bakarrik dagokion zeregina dela.
 c) Ez dagoela bere esku guzti horiek erabakitzea.
 d) Ezagupen eta jakitate aski baduela horietaz erabakitzeko.

6. **Behar diren hitz guzti horiek sortzea...**

a) guztion lana da eta, edozein modutan, beharrezkoa.
b) denon lana da eta denbora eskatzen du.
c) euskaltzaindiaren lana dela errepikatzen du birritan.
d) espezialisten lana ezezik soseguz egiteko lana da.

7. **Zein da Euskaltzaindiaren egitekoa?**

a) Beti ere eragile nagusia izatea.
b) Erizpideak finkatu eta batzea.
c) Ikerketa eta zabalkuntzaz arduratzea.
d) Euskararen trebetasunaz aritzea.

8. **Zergatik hartzen du Euskaltzaindiak egiteko hori?**

a) Bestela, nahaspila handia sor daitekeelako.
b) Egiteko hori norbaitek hartu behar duelako.
c) Euskara horren premia handian dagoelako.
d) Gobernuek ez dezaketelako horrelako ardurarik har.

9. **Hitz berriak sortzeko zenbat bide aipatzen ditu Villasantek?**

a) Hiru
b) Sei
c) Bi
d) Lau

10. **Zein bide hobesten du Villasantek?**

a) Begibistakoa da lehenengo hirurak hobesten dituela.
b) «Klasiko»ak deiturikoak: maileguntza, konposizioa eta eratorbidea.
c) Edozein dela ona dio, laugarrena espreski galerazten duelarik.
d) Ez du bat bera ere hobesten; denak direla beharrezko dio.

## IRAKURMENA-5

Badira bi gauza, bi jakite nahiago baduzue, nahasi xamar ibili direnak elkarrekin, gure artean behintzat, eta ez egia esan gurean bakarrik. Hizkuntzalaritzaren aldamenean filologiaren itzala ageri baita beti haren lekuan eta haren ordezko azaltzen ez bada. Gehiagotan gogorazi dudan gisa, *Yo no soy filólogo* bota zidan halako batean don Juliok, eta urrutiago zebilen egiatik berak uste zuen baino.

Oraingo gure arteko ohiturari bagagozkio, eta ez dugu guk sortu usario hori, ez dago luzatu beharrik. Populu arruntaren artean bada istilurik oraindik ere; ez horrenbeste, haatik, jantzien eta ikasien artean. Nornahik ontzat emango luke egungo egunean filologiaren zereginak ez daudela hizkuntzari bertatik bertara lotuak; baduela filologiak areagoko xederik: hizkuntzaren bitartez aditzera eman direnak aurpegi ahal bezain garbiz zabaltzea eta horien mamia, delako esan-nahia, ahalik eta argien eskaintzea oraingo eta geroko irakurleei.

Hizkuntza, bat nahiz batzu, menderatu gabe ezin daiteke, nabari denez, jaso eta azal hizkuntzaren sabelean sortu eta hazi denik. Baina oinarrizko ezaguera horrek, zein ere oinarrizkoa den, ez du ezin bestean zernahiren jaun eta jabe itxuran agertu behar. Hemen ere suerta baitaiteke harako antzinako hura: *Itzok eder, geiok ez.*

Nolanahi ere, hizkuntzen azterketari lotua dabilena idatziez ari da gehienbat. Ez du beste errazbiderik hizkuntzaren lekukoak aspaldikoak direnean, hizkuntza gaien antzinatasuna atzo eguerdiko kontua baita gure herri honetan. Oraintsuko direlakoak ere ez dira maiz aski gureganatzen zenbaiten *protocol sentences* direlakoak bitarteko ditugulako baizik eta beste inongo lagungarririk gabe gelditzen dira gero maizegitan.

Gure ondadea, dena den, ez da, esate baterako, Wolf-ek begiets eta susma zezakeena bezain goitarra. Horrek badu, bestela badirudi ere, bere alde ona. Urri dena garesti izan ohi da eta lege horren arabera garestitzen hasiak ditugu gure ez-gauzak ere.

Hori dela eta, duela urte zenbait hasi zitzaigun eta goraka doa geroztik aztarna zaharren eta zaharkituen bilaketa urduria. Lekuko berriak ezagunak dira, Nafarroatik datozenak usuenik; berriak eta zaharragoak hobeki uler ditzakegu, batzuen eta besteen ahaleginei esker. Eginkizuna ez dugu artean agortua eta iturriak, hau da gainerako ongi guztien burua, ez zaizkigu berehalakoan ahituko.

K. MITXELENA,
«Agur eta Ohore»
*II. Euskal Mundu Biltzarra,* 1987ko Abuztua

1. **Bi jakite nahastu egin dira elkarrekin**

   a) biak aldamenean daudelako.
   b) batak bestea ordezkatzen bait du beti.
   c) gure artean bakarrik.
   d) leku guztietan.

2. **Don Julio(k)**

   a) ni ez nintzela filologo esan zidan.
   b) nik uste baino urrutiago zebilen egiatik.
   c) egiatik urruti zebilen.
   d) egiatik urruti nenbilela gogorazi zidan.

3. **Edozeinek onartuko luke filologia/k**

   a) ez duela hizkuntzarekin loturarik.
   b) ez dagoela hizkuntzari erabat loturik.
   c) hizkuntzaren itzala dela.
   d) hizkuntzaz aparteko xederik ez duela.

4. **Zein da filologiaren helburua?**

   a) Hizkuntza zabaltzea.
   b) Hizkuntzaren historia egitea.
   c) Hizkuntzaren bidezko adierazpenak argitzea.
   d) Hizkuntzaren bitartez egin direnak ikerketzea.

5. **Hizkuntzaren barruan sortu dena azaltzeko**

   a) hizkuntza asko jakin behar da derrigorrez.
   b) azaltzen jakin behar da.
   c) hizkuntza bera menderatu behar da.
   d) interesgarria da hizkuntza, bat nahiz batzu, menderatzea.

6. **Oinarrizko ezaguera hori/horrek**

   a) itxura hutsa izan daiteke.
   b) edozertarako balio dezake.
   c) jaun eta jabe izateko zorian dago.
   d) probetxugarri gerta daiteke.

7. **Zertaz dihardu hizkuntzen aztertzaileak?**

   a) Hizkuntzaren lekukoei buruz, gehienetan.
   b) Dokumentu idatziez gehienetan.
   c) Hizkuntzaren antzinatasunaz gehienbat.
   d) Dokumentuen gaurkotasunaz gehienbat.

8. **Gure ondadea**

a) Wolf-ek uste bezainbatekoa da.
b) Wolf-ek susma zezekeena baino hobea da.
c) Wolf-ek uste baino apalagoa da.
d) Ugaria da autorearen ustez.

9. **Hizkuntzaren aztarna zaharren bilaketa**

a) iturri berrien premian dago.
b) ez dago iturrien faltan.
c) laster amaituko da.
d) orain urte asko hasi zen.

10. **Pasarte honetan, autorea**

a) hizkuntzaren geroari begira ari da.
b) hizkunzaren gizarteko arazoez ari da.
c) hizkuntzaren azterketaz ari da.
d) hiztunen jokamoldeez ari da.

## IRAKURMENA-6

### Bertsolari eskolak

Bolada horretan, bertsolaritza gustagarri egiten zelako, edo euskara ikasteko eta praktikatzeko oso baliagarritzat jotzen zelako, edo jolas moduan tiratzen zuelako, edo kulturaren adierazpen haunditzat hartzen zelako, edo arrazoi guzti horiek batera biltzen zituelako, bertso ikastaroak nonahi eskatzen hasi ziren. Laburragoak edo luzeagoak, baina gehienean hamar ordutatik gorakoak eta batzutan oso luzeak ere bai. Euskal senez edo kontzientzia abertzale hutsez hurreratzen zirenak ere bertsoaren harrak jota geratzea ez zen harritzekoa. Euskararen edo kulturaren alde etorri eta bertsozale irten. Ikastaroekin batera bertsolaritzari buruzko hitzaldiak eta mahainguruak ere asko zabaldu ziren.

Mugimendu guzti horren adierazpiderik argiena eta eratuena beharbada bertsolari eskolak dira. Fenomeno honek berak bakarrik merezi luke azterketa luze eta sakon bat.

Lehenbizi finka dezagun «eskola» hitz horren esanahia. Hitz hori bertsolaritza guztian erabilia izan da. «Xenpelarren eskola», «Iparraldeko eskola», «Azpeitiko eskola» etab. esaten denean, hitz horrek halako estilo edo tankera bat esan nahi du. Horrez gainera «eskola» hitzak taldetasunaren esanahia ere izan du historian zehar. Ez dauka, beraz, ikastetxeekin zerikusirik zuzenki. Zer jende mota biltzen den, halako eskola sortuko da.

Esaten ari garen garaiko eskolak ere toki eta egun jakin batzutan batzen diren lagunarte batzu dira, bertsolaritza lantzea helburu dutela. Eskola hauek tradizio bati segitu edo hartaz jabetu nahi luketenak dira. Lehenago «gure kolegioak sagardotegiak» baldin baziren, nola tradizio hura gaurkotu sagardotegirik ez den lekuan edo euskaldunak oso minorian aurkitzen diren hirietan eta herri haundietan?

Eskola horien sorrera eta barne abioa ulertzeko zer jende mota batzen zen ikustea besterik ez dago. Gehienean jende gaztea edo gutxienez bertsozale klasiko horietaz desberdina zen. Baita ere gehienean jende eskolatu samarra zen, ikasten ari zirenak edo ikasketak amaituak zituztenak, batez ere euskara munduan irakasle zebiltzanak etab.

Eskola horiek sortzearen helburua anizkoitza zen. Alde batetik bertsolaritza bera, ez hainbeste bertsolari izateko helburu zuzenez, bertsozaletasuna sartzeko baizik. Horrekin batera euskara lantzea eta praktikatzea ere helburu haunditzat zeukaten. Kontuan izan portzentaia haundi bat euskaldun berriak zirela. Honek aparteko atala merezi du, gero egingo dugunez. Azkenik euskaldun giroa sortu nahia ere tartean zebilen, bai talde barruan, bai kanporako proiekzioz. Azken batez, problema haundi eta eguneroko bat dago erdian, hots, hirietan edo herri haundietan, euskaldunak hain gutxi eta sakabanaturik aurkitzen diren munduan, euskaldun sentitzen dena nola euskaldun bizi?

Bertsolaritza arazo latz horiei erantzuna emateko tresna egokia izan litekeela konturatu ziren eta horrelaxe hasi ziren bertsolari eskolak sortzen eta ugaritzen. Gehienean ikastaroren batetik hasirik, helburu nagusia gero jarraitzea zen. Horrela astean behin iluntzeko ordu batzutan baturik, talde bat osatzen dute eta egun hori lan eguntzat hartzen dute. Biak batera, bertsolaritzak, gusto pixka bat hartuz gero, ondo pasatzeko modua ere ematen bait du. Bertsolaritza bitarteko zela, beraz, lagunartea, lana, dibertsioa eta euskaldun bizitzeko era bat zeukaten, asteko ordu batzutan behintzat. Ordu horiek gero beste anitz lan eta ekintzetarako ere aukera emango zuten, lagunak ez bait dira ordu batzutarako bakarrik izaten.

Garbi utzi behar da bertso eskolen helburua ez dela bertsolari izatea, bertsolaritza baizik. Honek, gantxorik izango badu, bertsozaleak behar ditu eta eskola horietan dabiltzanen artean bertsozaletasuna segurtaturik dago. Ez da gutxi. Izango dira tarteka bertsolari izateko ere gogoa eta asmoa bezalakoa dutenak, baina bertso eskolen helburu nagusia ez da hori, bertsozaletasuna baizik. Hortik gora etortzen dena, apropos bila joan gabe ere etorriko da eta dagoeneko horretantxe ere, bertsolari izatean alegia, ondorio politak ikusten hasiak gara.

X. AMURIZA,
*Bertsolaritzaren Gerrondotik Gaurdainokoa.*
*RIEV,* XXXII(1).

1. **Ikastaroen eraketei buruzko arrazoiak bilatzerakoan, zein EZ du aipatzen idazleak?**

a) Bertsolaritza kulturaren adierazpen handitzat hartzen zela.
b) Bertsolaritzak jolas moduan tira egiten zuela.
c) Bertsolaritza euskaldunon jolas nazionala dela.
d) Bertsolaritza gustagarri egiten zela.

2. **Bertsolaritzaren aldeko giro zabal hau...**

a) gerrondotik gaurdaino eman den oparoen eta aberatsena izan da.
b) ikastaroetara ezezik hitzaldi eta mahainguruetara ere zabaltzen zen.
c) kontzientzia abertzale zuen ororen jokabidean ere isladatzen da.
d) euskara ikasteko eta praktikatzeko kontsignetatik sortuko da.

3. **«Eskola» hitzak zer adierazi nahi du?**

a) Bertsolari bakoitza zein ikastetxetan ibili den.
b) Tankera bat eta taldetasuna.
c) Estilo edo tankera bat, soilik.
d) Maisu baten inguruan eskola hartu izana.

4. **Zein eskola izan da ospetsuena bertsolaritzaren historian?**

a) Duda izpirik gabe, «Xenpelarren eskola».
b) Ez dago konkretatzerik, baina, nagusiki, «Sarakoa».
c) Azken urteotakoak ikusita gero, «Azpeitiko eskola».
d) Idazleak ez du horrelakorik aipatzen.

5. **Idazleak planteatzen duen eran, gaur eguneko bertsolari eskolen fenomenoa ...**

a) guztiz fenomeno urbanoa da.
b) osoro arrantzale girokoa da.
c) erabat fenomeno rurala da.
d) euskaldun berrien fenomenoa da.

6. **Bertsolari eskoletan zein jende batzen den aztertzeak garrantzi handia du...**

a) bertsolari eskolen historia egin nahi denerako.
b) beraien abiapuntua ulertzeko.
c) indarra zein alderdi politikok duen jakiteko.
d) abioien barne egitura ezagutzeko.

7. **Zein jende batzen da batipat bertsolari eskoletan?**

a) Jende gaztea eta eskolatu samarra.
b) Euskalduna eta euskaltzalea.
c) Euskaldun berriak eta irakasleak.
d) Ikasketak amaitutako unibertsitateko irakasleak.

8. **Idazleak zein helburu EZ du aipatzen bertsolari eskolen sorketari dagokiola?**

a) Bertsolaritza bera.
b) Euskaldun giroa sortu nahia.
c) Bapateko bertsoak paratzen ikastea.
d) Euskara landu eta praktikatzea.

9. **Euskaldun berriak...**

a) bertsolari eskoletako ikaslego handiena da.
b) bereziki motibaturik aurkitzen dira.
c) guztiz liluraturik egoten dira saio hauetan.
d) portzentaia handi dira bertsolari eskoletan.

10. **Bertsolari eskoletako iharduna**

a) ihardun gogorra bihurtzen da gehienetan.
b) eguneroko lan disziplinatutzat hartu nahi da.
c) lagunartea baino ez da.
d) lan eta dibertsio gisa hartzen da.

## IRAKURMENA-7

### Algeriako hizkuntz egoera: gatazka sor bat?

Algeriako hizkuntz egoeraren berri eman zigun hizlariaren azalpenetik atera ahal izan nuenagatik, honelakoak dira gutxi gorabehera hango problemak. Bada Algeriako zenbait eskualdetan (Kabilia Haundia, Batna, Hoggar) prehistoriaz geroztik belaunaldiz belaunaldi mantendu den herri bat: berebereak. Gaur egun Algeriako biztanleriaren (20 milioi inguru) %30 dira gutxi gorabehera.

Bereberea (tamazirt) da hain zuzen Ipar Afrikako hizkuntza ezagunik zaharrena. Hizkuntza honek badu tifinag deritzan alfabeto bat ere. Arabeak VII. mendean heldu ziren Algeriara. Joan zen mendean, 1830ean, frantsesak Algeria okupatzen hasi ziren eta 1875ean burutu zuten okupazio osoa. Kabilia izan zen, hain zuzen, gehien jarki zitzaien eskualdea eta konkistatu zuten azkena.

Frantsesen agintea 1962an amaitu zen, gerra luze baten ondoren Algeriak independentzia lortu zuenean.

Independentziaren biharamunetik legezko testuek, hau da, Karta Nazionalak eta Konstituzioak, arabiera klasikoari ezagutu zioten ofizialtasuna. Jakina denez, arabiera klasiko hau Koraneko hizkuntza eta hizkuntza literarioa da Asia eta Afrikako lurralde askotan eta batasun handia du leku guzti hauetan.

Algerian gutxiengo txiki batek bakarrik ezagutzen du ongi arabiera klasikoa. Ahozko hizkuntzan arabiera dialektal desberdinak erabiltzen dira Algeriaren barnean eta desberdintasun hori nahikoa handia da, gainera, Marokko-ko mugatik Tunisia-kora.

Kolonialismo-garaian hizkuntza ofiziala izan zen frantsesa, ofizialki hizkuntza arrotza dela esaten den arren, bizi-bizirik dago Algerian, batez ere zenbait arlotan: lehen mailako irakaskuntzaren hirugarren ikasturtetik aurrera ikasten dute haurrek eta zientzia-tekniketan hizkuntza bakarra da. Bumedian-ek «burdinaren eta altzairuaren» hizkuntza deitu du.

Independentzia ondoko lehen aldian ofizialki planteatu zen gauza bakarra «arabizazioarena» izan zen; baina, jakina, hori deus ere ez esatea zen ia, arabieraren barnean dagoen aipatutako diglosia hori kontutan hartzen baldin bada.

Zer esanik ez bereberea ez zela aipatu ere egiten.

Dirudienez 1980 urtean hizkuntz errebindikazio batzu izan ziren eta geroztik gutxienez onartzen da bereberea badela; baina oraindik ere honen problemei buruz ez hitz egitea nahiago dute agintariek behintzat. Arabiar batasunarentzako mehatxu bat dela pentsatzen dute nonbait.

Gaur bertan tifinag alfabetoz idatzitako edozein testu guztiz debekatua dago; eta Unibertsitatean hirugarren mailako hizkuntza arrotz baten moduan eta aukerako asignatura gisa bereberea irakasteko baimena eman zutenean jarri zuten ezinbesteko baldintza, latin alfabetora transkribatutako testuak besterik ez erabiltzea izan zen.

Bereberearen kontrako jarrera ofizialaren erroak oso sakonak dira seguru aski: batetik, betidaniko etnia arteko konponezina; bestetik, frantsesek Kabilia beren alde jarri nahi izan zuten eta ondoriorik izan ez zuen maniobra horrez geroztik, Kabiliarrak zenbait arabiarren aurrean «frantsestuak» dira. Hizlariari asko kostatzen zitzaion gauza hauek esatea, beharbada kontrol ideologikoaren beldurrez, edo ez zuelako etxe barruko trapu zaharrik atzerrian erakutsi nahi.

Argi dago, gutxienez zenbait intelektual (batez ere Paristik) berebere hizkuntzaren errebindikazioa bultzatzen ari dela eta Unibertsitatean gatazkak izan direla.

Nolanahi dela ere, Algeriako hizkuntz egoera konplikatua da eta oraindik ez dago nahasketa hori konpontzeko politika ofizial egokirik. Herri-mailan, batez ere berebereen artean, egon daiteke giro politikoak isilik mantentzen duen baina agian gerora nekez mantenduko duen azpiharmonia bat.

A. SAGARNA,
*Jakin* 31 zkia. 1984.

1. **Zeren berri ematen digu idazleak?**

   a) Hizlari gisa eman zuen saio baten berri.
   b) Algeriako etnia desberdinen berri.
   c) Algerian bizi den tifinag izeneko etniaren berri.
   d) Entzule izan den hitzaldi batean jasotakoaren berri.

2. **Kosta zitzaien frantsesei Kabilia menperatzea.**

   a) Kabilian arabeak VII. mendetik daudelako.
   b) Kabilian inon baino gogorrago egin ziotelako frente.
   c) Kabilian inon baino berebere gehiago dagoelako.
   d) Kabilian inon baino arabe gehiago dagoelako.

3. **Arabiera klasikoa hizkuntza ofiziala dute Algerian**

   a) arabeak VII. mendean sartu zirenetik.
   b) frantsesen agintea amaitu zenetik.
   c) literatur hizkuntza klasikoa bihurtu zenetik.
   d) Algeria osoan ahozko hizkuntza bateratu eta normalizatu denetik.

4. **Frantses hizkuntza Algerian**

a) teknikaren munduan erabiltzen den bakarra da.
b) hezkuntzaren munduan erabiltzen den bakarra da.
c) konstituzioak arabierarekin batera ofizialtzat hartzen du.
d) kolonialismo-garaian hizkuntza arrotza kontsideratzen zuten.

5. **1962tik aurrera...**

a) frantsesa bultzatzen da ofizialki arabieraren gainetik.
b) arabiera bultzatzen da ofizialki frantsesaren gainetik.
c) bereberea bultzatzen da ofizialki arabieraren gainetik.
d) arabiera eta bereberea bultzatzen dira ofizialki, frantsesaren gainetik.

6. **Algerian bereberez ere hitz egiten dela onartzen da**

a) 1980an izan ziren errebindikazioen ondorioz.
b) konstituzioak arabierarekin batean ofizialtzat hartzen duelarik.
c) arabiarren batasuna erdietsi ahal izateko.
d) agintarien problemei buruz hitz egin ahal izateko.

7. **Debekaturik dago**

a) bereberez hitz egitea.
b) bereberez idaztea.
c) bereberea unibertsitatean ikastea.
d) bereberea tifinagez transkribatzea.

8. **Zergatik bereberea baztertu?**

a) Arrazoi estrategiko eta geopolitikoengatik.
b) Arrazoi etniko eta historikoengatik.
c) Arrazoi linguistiko hutsengatik.
d) Arrazoi garbirik gabe.

9. **Hizlariak etxe barruko trapu zaharrak haizatu zituen.**

a) Ez, ez zuen halakorik egin.
b) Bai, kontrol ideologikoak hartara beharturik.
c) Ez, Pariseko intelektualekin bat ez datorrelako.
d) Bai, baina ez intelektual batzuk bezain argi.

10. **Algeriako hizkuntza egoera.**

a) Nahasia.
b) Harmonikoa.
c) Politika ofizialak egokitua.
d) Giro politikorik gabekoa.

## IRAKURMENA-8

### Koldo Mitxelena, hizkuntzalari

Zein izan zen, orduan, Mitxelenaren erakarpena?

Hasteko, hauxe da lehenago ere esan dudana, Mitxelenarekin bukatu ziren halabeharrez euskal ikasketen amateurismoak. Hau gertatu zen, nere ustez, 1961ean argitaratu baina urte batzu lehenago aurkeztua zuen tesiarekin: *Fonética Histórica Vasca* liburuarekin alegia. Prosa bihurria duen liburu honekin jarri zituen Mitxelenak euskal ikaskuntzari buruzko ikasketak Europa mailan aspalditik egiten zirenen pare, aldez aurretik amestu ezin zitekeen bezala berreraikiz euskara zaharraren sistema bokalikoa eta kontsonantikoa. Euskararen historia horrela eskuratze horrek txunditurik utzi zituen garaiko espezialistak eta gaur egun ere, urteak pasa ondoren, aski harriturik uzten gaitu.

Mitxelena, hori ez du inork ere ukatuko, neogramatikoa zen. Hizkuntz tipologian erabiltzen diren metodoak nola zorroztu jakin zuen neogramatikoa. Neurri batean gaitasun hau bere inteligentziari eta lanari zor bazitzaion ere, euskarari eman zizkion orduek ere lagundu zuten zeregin honetan. Gure hizkuntzaren historia fonetikoa berreraikitzean Mitxelenak lan gaitza hartu behar izan baitzuen zuzenean hizkuntz konparazioan oinarritzen diren berreraikitze prozedura hauek zorroztu eta euskararen kasuari egokitzeko orduan. Eginbehar horretarik atera zen teoria mailan pisurik handiena dukeen lana, *Lenguas y protolenguas,* berreraiketak egiteko orduan urte luzez nahitanahiezko erreferentzia puntua izango dena hizkuntzalariendako. Liburu hau bere garaian itzuli izan balute inglesera, hizkuntzalaritza munduak izango zukeen agian kontu hauetan teoria mailan ezarri behar ziratekeen aldaketen berri zuzenago.

Bigarrenez, bizitza osoa eman zuen Mitxelenak euskararen historiari buruzko argia eman lezaketen materialak bilduz (testu zaharrak, inskripzioak, argitarapen kritikoak, euskalkien historia eta deskripzioa, toponimia, morfologia historikoa, e.a. luze bat). Euskarari buruz jakin daitekeen guztia baitzekien gizon hark, jakituria horrek txunditauk uzten gintuelarik berarekin harremanetan ibiltzen ginenok. Esaten dudanaren adibide izan daiteke beraren ardurapean egiten ari zen eta bera gabe amaitu beharko den Orotariko Hiztegiaren kasua. Hiztegiaren nondik norako nagusiak zehaztuaz gain, orriz orri eta hitzez hitz begiratu zuen ehundaka eta milaka ohar eginez. Guzti hori jasoko du hiztegiak, hiztegi hori osatuko duten liburukiak argitaratu ahala.

Hirugarrenez, bazuen Mitxelenak jende anitzi falta zaion zerbait: zentzu komuna, konturik korapilatsuenak behar bezala tratatzeko zentzu komuna. Orain dela 20 urte Arantzazun aurkeztu zuen txosten ezagun hura, ororen gainetik, zentzu komunaren ezarketa besterik ez da, zentzu hau galdu samar daukatenek hala ikusi ez badute ere. Orain, denboren distantziak ematen digun hori. Zentzu komunak eragiten zion ere elebita-

sunaren arazoetan: zenbait jendek nahiago du, nonbait, goizik jeiki goizago argituko duelakoan agian. Honetan ere berak argi aski ikusten zuen hobe dela pausuz pausu joan, arazoak bortxatu gabe.

P. SALABURU,
*Egan* 1987, 3-6 aleak.

1. **1961 urteak honako hau adierazten du Koldo Mitxelenaren lanari begiratuta:**

a) Euskal ikaskuntzari buruzko ikerketak Europa mailan jartzea.
b) *Fonética Histórica Vasca* idatzi eta argitaratu zen urtea.
c) *Fonética Histórica Vasca* liburuak argia ikustea.
d) *Fonética Histórica Vasca* izenburuko tesia aurkeztea.

2. **«Fonética Histórica Vasca» tesian eta liburuan:**

a) erabiltzen duen prosa bereziagatik Europa mailan jartzen du Euskal ikaskuntza.
b) euskararen historia zaharra berreskuratuko du.
c) euskararen sistema bokalikoa eta kontsonantikoa aurkitzen ditu.
d) euskara zaharraren bokal eta kontsonanteen egitura berreskuratzen du.

3. **Neogramatiko gisa egin zuen lan zorrotza:**

a) euskarari eskaini zizkion orduei zor zaie.
b) bere adimenari eta dedikazioari ez zaie zor.
c) erabili zituen metodo bereziei esker lortu zuen.
d) bere adimenari bakarrik zor zaio.

4. **Koldo Mitxelena/k Euskararen historia fonetikoa berreraikitzean:**

a) *Lenguas y Protolenguas* liburuan agertzen diren arau zorrotzak erabili zituen.
b) hizkuntzen alderaketan oinarritu zen.
c) hizkuntz konparazioa zailtzat jo zuen.
d) hizkuntz konparazio ugari eta zorrotzak egin zituen.

5. **Koldo Mitxelenak Euskal hizkuntzaz zuen ezagutza sakona aztertzerakoan:**

a) garrantzi handia dute bizitza osoan bildu zituen materialek.
b) argia eman lezakete egin diren argitarapen kritikoek.
c) materialen bilketa zaletasun baten adierazpena baino ez dela ikus daiteke.
d) toponimia berreskuratzeak izan zuen garrantzia begibistakoa da.

6. **Zer dio Orotariko Hiztegiaz?**

a) Mitxelena izan dela arduradun amaitu arte.
b) Mitxelena gabe ezin argitara daitekeela.
c) Hitzez hitz dena Mitxelenak egina dagoela.
d) Mitxelana ez zela bukatzera iritsi.

7. **Zer adierazten du orain 20 urteko Arantzazuko txosten hark?**

a) Arazo korapilatsu bati buruzko arrazoizko irtenbide bakarra, zentzu komuna dela.
b) Zentzu komuna erabiltzeko bideak erakusten dituen lan korapilatsua.
c) Euskara batuari eta elebitasunari buruzko arrazoizko irtenbidea, zentzu komuna erabiliz.
d) Arazo korapilatsuak behar bezala tratatzeko zentzu komuna dela bidea.

8. **Norekin ez zegoen ados elebitasunaren kasuan?**

a) Arazoa argitzeko goizegi zela pentsatzen zutenekin.
b) Goizik jeikita gauzak argiago ikusten direla pentsatzen zutenekin.
c) Pausuz pausu joan behar zela adierazten zutenekin.
d) Goizik jeikita goizago argitzen duela uste zutenekin.

9. **Idazki honetan Mitxelenaren ezaugarri hauek goraipatzen dira, nagusiki:**

a) hizkuntzalari bezala zuen jakinduria, euskararen ezagutza eta zentzu komuna.
b) hizkuntz jakinduria, jendea txundituta uzteko erraztasuna eta zentzu komuna.
c) bere lanaren ezaugarriak soilik aipatzen ditu.
d) euskararen ezagutza, neogramatikoa izatea eta anitz jendek bezalako zentzu komuna.

10. **Zer da idazkian zehar Pello Salaburuk Mitxelenaren lanen aurrean batipat sentitzen duena:**

a) esker ona.
b) harridura.
c) justizia egin nahia.
d) menpekotasuna.

## IRAKURMENA-9

Zientziak izadia ez du ia inoiz errespetatu; teknologiak, berriz, izadia hankaz gora ipini ohi du. Horregatik teknikaren aurrerapenek ez dute etorkizun segurua eta, gizon askok beldurrez hartzen dute teknologien berrikuntza.

H. Lefevre-k, jatorri hiritarra ematen dio teknikari. Teknikaren asmakizunek hiriaren barnean dute bere zentzua eta askotan tresna izendaezinak, hiriko bizikeran atseginak eta nahitaezkoak bihurtzen dira. Teknikaren abenturak kultura eraberritzera behartzen du eta askotan zenbait balore etiko, politiko eta ideologiko desbideratuak gertatzen dira.

Teknokrazia eta burokrazia elkarturik doaz; kulturarekin eta artearekin aurrez aurre daude. Arteak, sujetuaren ikutua du, gizonaren argiari eusten dio, teknikak, berriz, objetuarenari. Teknika eta gizonaren arteko urruntasuna haunditzen joaten da teknikak autonomia hartzean. Hegazkinak, gizonaren eragin txiki batekin Atlantikoaren ertz batetik besteraino joaten dira.

‹‹Gure kontzientziak, banakakoak eta sozialak, irudien eta objetuen bitartez teknika isladatzen du›› dio H. Lefevre-k. Gizarte osoa, sukaldea, kalea ... teknikaren objetu dira. Eguneroko bizitzan, teknikari begira gaude eta gure etorkizuna bere eskuetan dago.

Teknikaren begientzat, gizona zatiturik, puskaturik, zati txikiz osaturik dagoen zerbait da. Teknikak, gizona, atalez atal aztertzen du; bere batasunak eta osotasunak ez du garrantzirik.

Milan Kundera-ri, gizonaren ikuspegi hau, benetan sinplea iruditzen zaio eta kulturarekin zerikusirik ez duena: ‹‹Ordenadore sofistikatuena erabiltzen dakien gizonak haur baten arima eduki dezake.››

‹‹Gizonak, nobela idazteari uzten badio, bizitzari buruz erreflesionatzeko ahalmena galduko du.››

Teknikak abantaila asko ekarri arren, zentzugabekeria ugari sortu ditu zientziaren izenean. Askotan, zientziaren izen ona maskara bezala erabiltzen da. Zientziaren izenean zeruak eta lurrak lehergailuz bete dira.

Estatu Batuetako Rand Corporation (Research and Development) enpresak, 2020 urteari begira txosten bat aurkeztu zuen 1976an eta bere zientifikoek helburu hauek izendatu zituzten: gure nerbio sistemarekin zuzenki lotutako organo artifizial plastikozkoak txertatzea, eskualde batzuetan eguraldia manipulatzea, akats genetikoak kimikoki zuzentzea, organoak sortzeko sustantzia kimikoak produzitzea, grabitazioa kontrolatzea, populazioaren mugimendu gehienak azkar ezagutzea...

Nietzsche-k dioenez, Mendebaleko tragediarik haundiena bere tragedia ahaztu nahi izatea da. Honelako zerbait gertatzen da teknikaren

etengabeko abiaduraren aurrean. Nahikoa dugu Neolitikoan, harrizko tresnen ugaritzeak suposatu zuen beldurra eta Errenazimenduan zientziaren arrakastak izan zituen ondorioak gogoratzea.

J. DORRONSORO
*Zergatik lana?* Bilbo 1988, (moldatua).

1. **Zergatik agertzen dira beldurra eta zalantzak teknikaren aurrerapenen aurrean?**

   a) Gizon askok beldurra diotelako berrikuntzen muga ezari.
   b) Aurrerapen horiek, izadia errespetatzeaz gain suntsitu egiten dutelako.
   c) Izadia inoiz errespetatu arren, gehienetan hankaz gora jartzen dutelako.
   d) Halamoduzko etorkizuna eskeintzen dutelako.

2. **Teknika eta hiria Lefebvre-k honela uztartzen ditu:**

   a) erabat lotuak daude, teknikari esker sortu bait da hiria.
   b) lehenengoa bigarrenari lotua dago bere sorreraz eta erabilpenez.
   c) lehenengoa erabat lotua dago bigarrenarekin, asmakizun guztiak atseginak gertatzen bait dira hirian.
   d) teknika hiriko bizikeran baino ezagutzen ez denez, bat egiten dute.

3. **Teknikaren eta gizonaren arteko harremanak honela gertatzen dira:**

   a) teknika zenbat eta autonomoagoa izan orduan eta hurbiltasun eskasagoa gizonarekin.
   b) gizona zenbat eta autonomoagoa izan, hainbat eta teknikatik gertuago.
   c) teknikaren eta gizonaren arteko urruntasuna murrizten doa teknika autonomia hartzen doan heinean.
   d) teknikak autonomia hartzean, bien arteko erlazioa haunditu egiten da.

4. **Zein da teknikak gizonarekiko duen jarrera?**

   a) Gizatasuna ukatzearena.
   b) Atalez atal barneraino iristearena.
   c) Gizona osotasunez aztertzearena.
   d) Gizonaren erabatekotasuna kontutan ez hartzearena.

5. **Milan Kundera-ren hitzek zer adierazi nahi dute?**

a) Teknologia sinplea dela, haur batek ere erabil bait dezake ordenadore bat.
b) Teknikaren, kulturaren eta nobelagintzaren artean dagoen aurkakotasuna.
c) Gizonak teknikari buruz duen ikuspegia sinplea dela.
d) Teknikak gizonaz duen ikuspegiarekiko ezadostasuna.

6. **Askotan «zientzia» hitz baliotsua/k**

a) gizonaren bizimoduaren jabe egiten da.
b) teknikaren erabilpen guztiak babesten eta mozorrotzen ditu.
c) teknikaren izen ona baieztatzen du.
d) teknikaren zentzugabekeria sortzen du.

7. **Estatu Batuetako enpresa baten helburu zientifikoek honako hau adierazten dute:**

a) gizonaren gorputza goitik behera aldatu nahi dute.
b) gizakia, izadia eta gizartea ez dute helburutzat.
c) izadiak gizakiaren zerbitzuan egon behar du.
d) gizakia eta izadia manipulatu eta kontrolatzea.

8. **Nietzsche-k Estatu Batuetako zientzilarien joera ikusita, tragediatzat jotzen du joera hori.**

a) Berak ondotik ezagutu bait zuen zientzilarien mundu hori.
b) Zuzenean ez du kasu zehatz hori aipatzen.
c) Ez da hain kritikoa joera horrekin.
d) Joera horrek tragedia haundia sor bait dezake.

9. **Zer dio Neolitiko eta Errenazimendu aroei buruz:**

a) orduko teknikaren etengabeko abiadura gaurkoaren antzekoa zela.
b) zientziaren arrakastak izan zituen ondorioak aipatzen ditu.
c) orduko asmakizun teknologikoak kaltegarritzat hartzen ditu.
d) garai horietan ere teknikak eta zientziak bere garapenean gizona kezkatu egiten zutela.

10. **Idazki honetan zein da aztergai nagusia?**

a) Zientziaren indar geraezina.
b) Gaurko aurrerapen zientifikoen azterketa.
c) Idazle batzuen zientziaren aurkako adierazpenak.
d) Teknika-gizakia, erlazioari buruzko hausnarketa.

## IRAKURMENA-10

Ez dirudi alfer-lana hemen eta orain euskal ikaskuntzaren gora-beherak eta atze-urreak ikuskatzea, gaingiroki bederen. Egiteko horrek ordea, bere oso eta betean hartzekotan, urrunegi eramango gintuzke. Aski dugu bada, sarrera moduko laburpen labur baino laburrago bat gai, besterik ez bada ere, gertatuak eta gertatzen ari direnak zein bere bidean ipintzeko.

Guztiok dakigunez, badira gure artean oroitzapen gogoangarria utzi duten lehengo eta geroko zenbait euskalari. Pasarte honetan, labur beharrez gabiltzalako ez ditut honako euskaldun hauek baizik ahotan hartuko: Garibai, Oihenart, Larramendi, Astarloa «filosofoa»... Zertxobait geroxeago agertzen dira arrotzak. Esan dezagun Humboldt eta, guretartasuna ukatu behar badiogu lege-agirien arabera, Bonaparte printzea, are beranduagoko Schuchardt baztertzen badugu ere.

Zertan jardun zuen talde horrek? Besteak beste, beste nolabaiteko asmorik ere izan baitzuten, euskararen historia saiatu ziren biribiltzen, kanpoko nahiz etxekoak. Eta esan dezakegu erdietsi ere zutela gogoan zeukatena, maizenik eta gehienik.

Aspaldidaniko eginbide honek ez du aterraldirik izan azken urteotan. Hango eta hemengo gerraz geroztik (eta ez dut uste hangoa hemengoaren parekoa izan zenik alderdi horretan), ezagutu zen azken buruan geldialdia edo epelaldia. Hasi ziren berriz idazlanak agertzen Iparraldean, Ameriketan, baita hemen bertan ere, argitaratuak gero eta tankera nabarragoa zutelarik.

Nabari ditugun hizkuntzak, eta hurbilenak izan ohi dira nabarienak, badute zeinek bere historia, lanaren lanez menderik mende prestatzen dena. Ekoizpen hori aberasgarria da zalantzarik gabe, bai, bere eta berekiko duen herriarentzat, bai beste zeinahirentzat, usu izan baitira bataren eta bestearen hiztunak elkarren inguruko eta auzoko: mintzaide, beraz.

Historia guttiesten bada ere itxuraz, nekez gertatzen da harrigarri ongien ezagutzen ditugun herriak aldi joanen lekukotasun bila ibiltzea. Lehenak murritza badirudi ere, euskararen eremuan ohi den bezala, behar bezala jorratu gabe dagoela esan dezakegu gehienetan. Eta gose-egarri balego nor edo nor halaz ere, badugu beti lehenbiziko testuak baino goizago azterlanean abiatzeko bidea. Asmakizun hauetan, egia esan, ez dugu oraingoz aurrerabide larririk ikusi, baina geroak, behar bada, aldi igaroak baino uzta beteagorik eskurako al du.

K. MITXELENA.
«Agur eta Ohore...»
*II. Euskal Mundu-Biltzarra,* 1987ko Abuztua

1. **Idazlearen asmoa**

a) Euskal ikaskuntza goitik behera aztertzea da.
b) Euskal Herriko gertakizunak aipatzea da.
c) Euskal ikaskuntzari gainbegirada bat ematea da.
d) Euskal Herrian gertatzen dena bere tokian ipintzea da.

2. **Izan ere,**

a) ezinezkoa da azterketa sakona egitea.
b) idazkiaren gaiak ez du beste biderik ematen.
c) jendeak ez luke agian ulertuko.
d) alfer-lana litzateke horrela egitea.

3. **Zergatik aipatzen ditu euskalari horiek bakarrik?**

a) Ezin duelako bere ihardun luzatu.
b) Besterik ez dagoelako.
c) Ezezagunenak direlako.
d) Presaka dabilelako.

4. **Idazleak, euskalari arrotzen artean**

a) Bonaparte eta Schuchardt baztertzen ditu.
b) Humboldt-i aitortzen dio lanik oparoena.
c) Bonaparteri aitortzen dio guregandiko hurbiltasunik haundiena.
d) Bonaparteri euskalduntasuna aitortzen dio.

5. **Idazlearen ustez, talde horrek**

a) erabat burutu zuen bere egitasmoa.
b) bete zuen neurri haundienean bere asmoa.
c) euskararen historia erabat biribildu zuen.
d) ez zuen horrelako asmorik izan.

6. **Eginbide honek azkenengo urteetan**

a) ez du etekinik izan.
b) etenaldi bat izan zuen gerra ondoren.
c) hilzoria ezagutu du gerraz geroztik.
d) ez du geldiunerik izan.

7. **Hango eta hemengo gerraz geroztik**

a) hemen ez zen idazlanik agertu.
b) ezkutatu egin ziren idazlanak.
c) Iparraldean bakarrik agertu ziren.
d) idazlanen produkzioa makaldu egin zen.

8. **Hizkuntzaren historia**

a) azkar egiten den gauza da.
b) edonorentzat da interesgarria.
c) hizkuntza hori erabiltzen dutenentzat egiten da.
d) herriak estimatzen du gehienbat.

9. **Zenbait herri joandako garaien azterketan aritzea**

a) harrigarria da.
b) ez da harritzekoa.
c) Ez da horri buruz ezer esaten.
d) nekez gertatzen da.

10. **Euskararen lehena**

a) oso murritza da.
b) ez da behar bezala ikertu.
c) aztertzeko ohiturarik ez dago.
d) asmakizun hutsa da.

## IRAKURMENA-11

### Mitxelena euskal gramatikaria

Lotsa ere ematen dit ia-ia, egia esan, hil berria dugun Koldo Mitxelena adiskidea euskal gramatikaria zela eta, gai horri buruz bi hitz egiteak. Gramatikari izenak eta lanbideak ez baitu gure artean omen onik ez sona handirik eta, horrenbestez, beldur bainaiz hari lepotik domina berria dindilika ezarri beharrean beste apainagoak estali eta izkutaraziko dizkiodan. Zenbait laguni iruditukoa zaio, izan ere, hori eta Stravinskyk solfeoa ongi zekiela edota Einsteinek batuketak nahiz Picassok haur eskolako marrazkiak poliki egiten zituztela esatea gauza bertsua dela. Ez da gauza bera, baina tira! Neri gai hori eman didate, beste Mitxelenaren hizkuntzazko dohain eta merezimenduak besteri ikertzen uzteko, eta ni neure gaiari lotuko natzaio ahalik ongiena. Garbi utzirik, ordea, Mitxelena gramatikaria zela esatean gramatikaria ere bazela baieztatu nahi dugula, ezen hori baino askoz gehiago zen, liburu honetako beste partaideek agertuko dutenez.

Baldin gramatikari izateko gramatikaren bat argitaratzea beharrezko bada, Mitxelena jauna ez zen gramatikari. Ez zuen inoiz halakorik taxutu. Ez eta ez zuen gramatikako zenbait atal —aditza edo perpaus konpletiboak edo izen sintagma edo besteren bat— gaitzat harturik, hartaz artikulu luzerik eta sistematikorik idatzi. Ez zuen ere, oker ez bagaude, Altubek Azkueren gramatikarekin egin zuena —goitik behera aztertu eta honako puntu honi nahiz harako hari zuzenketak eta oharrak erantsi— Mitxelenak bere garaiko beste gramatikaren batekin, Laffiterenarekin esate baterako, egin eta burutu. Mitxelenak egin ez zituen gramatikazko lanen zerrenda are gehiago luza daiteke, noski: hau ez zuen egin, hura ez zuen egin, eta abar.

Halaz ere —eta hori da harritzekoa— Mitxelenari zuzen onez zor zaio, eta horretaz pixka bat dakienak ez dio ukatuko, gramatikari izena. Hor aipatu horiek ez, baina beste gauza asko egin baitzuen gramatikariari doazkionak. Ez ditut, ez eta hurrik eman ere, guztiak aipatuko. Ez ditut, batetik, guziak gogoan; bila hasiz gero, bestetik, lantxo hau aurkibide gisakoa bilakatuko litzateke eta ez da hori ene gogoa, ez eta eskatu didanarena; irakurlea aspertuko eta gogaituko nuke, azkenik, ene artikulu hau irakurtzen hasi orduko eta ez nuke horrelakorik nahi.

Batzu aipatzekotan, ordea, hor daude Aita Villasanteren «*Sintaxis de la oración compuesta*» eta «*Estudios de las sintaxis vasca*» liburuak, Mitxelenaren orripeko ohar ikasiz eta zorrotzez jantziak. Eman biezaie irakurleak begiratu bat. Bigarrenean hauek irakur ditzake, besteak beste: *-ra* eta *-rat* adlatibo atzizkien arteko diferentzia (123. or.); *hire/heure* eta antzeko posesiboen erabilera eta beren arteko aldea (180. eta ondoko or.). Lehenean oharrak askoz gehiago dira; gaia bera ere hartarako egokiago da askoz gutxiago landua delarik euskaraz perpaus konposatuaren eremua. Bada hor era guzietako perpausei eta juntagailuei buruz ohar «diskret eta agudorik», Gramatika Batzordeak ekin berria dion ondoko urteetako lan sailean oso gogoan edukitzekorik. (...)

Bi liburu horietatik kanpo hainbat aldizkaritan, euskaraz nahiz gazteleraz, idatzi zituen ia ezin konta ahala artikulutan ere han-hemenka harri pitxiak aurki ditzakegu, euskal gramatikazko puntu batzu argituz, iragaiten edo bidenabar haren lumatik jalkiak. Ez da hori gertatzen, egia, presondegiko bigarren egonaldi luzearen ondoren EGANen idatzi zuen lehen artikuluan. (...) Ez da han hori gertatzen, eta nekez gerta zitekeen, artikulu haren helburutik erabat aldendu gabe. Han presondegiko bakardadean ongi eihotako eta hausnartutako mezu zoragarriaren —gaur ere astiro irakurriz gero zirrara egiten digunaren— berri on ozena eman nahi izan baitzigun urte haietako gertari tristeez ia arrunt lur jota geunden euskaldunoi.

Hori 1951an izan zen. (...) Orduarte haurretandiko euskara hobetu eta aberastu nahi genuenok Orixeren liburuak irakurtzen ohituak geunden eta haiek genituen geure eguneroko euskal gogoaren janaria. Berebiziko harridura eragin zigun batbatean Mitxelenaren euskal letren munduan agertzeak eta pixkanaka Orixe bigarren lekuan uzten hasi ginen, Mitxelena maisu eta gidaritzat harturik. Zergatik? Honen idazlanetan euskal morfologiaren eredu finkoa eta segurua, betibatekoa, aurkitu uste genuelako besteak beste, ene ustez. Orixek bere liburuetan ageri zuena baino finkoagoa bederen. Hau nabarragoa zen, izan ere, liburu batzu euskalki batean eta besteak bestean ontzen baitzituen eta are morfologiari zihoazkion puntuetan forma desberdinak erabiltzen liburu bat berean. Eta, jakina, garai hartan ez ginen gutariko asko oraindik gai euskalkien arteko bereizkuntzez arduratzen hasteko; aski eta sobera genuen euskara molde bat, ahalik apainena eta dotoreena, geureganatzea. Mitxelenak asko kentzen zion Orixeri alde horretatik, oso gutxi aldatzen baitzuen, ia batere ez, bere idazkera eta joskera lan batetik bestera. Hein batean esan genezake literatur hizkera apain eta dotore antzekoak, beti modu bertsuan erabiliko zenak, behar zuen jazkera eta itxura bere baitan oretua eta eihoa zuela Mitxelenak idazten hasi zen lehen egunetik. Ez da dudarik ondoko urteetan euskara idatziaren eredu berrixe hura gailenduz joan zela belaunaldi gazteko idazleen artean, aurreko belaunaldikoetan Orixerena nagusitu zen bezalaxe —«Guztiok, ezjakinean edo jakinaren gainean, irakasle genuena galdu dugu» aitortu du Mitxelenak berak Orixeren heriotzean—, eta «ezin urratuzko aztarrena utzi» bazigun Orixek eta «gure hizkuntza aldi eta eginkizun berrietarako egokitzen» saiatu bazen eginahalean eta «hizkera zailu, labur, biziago bat moldatzen», zinez eta benetan uste dut beste horrenbeste esan genezakeela Mitxelena jaunak euskaraz eta euskararen alde egin duen lanaz. Horrek hartaz esan zituen beste hitz hauekin, Orixe izenaren ordez Mitxelena ezarriz, amaituko dut lantxo hau: «Mitxelenaz geroztik doinu berri batean ikasi du mintzatzen euskal prosak, atsegin bazaigu eta ez bazaigu», euskara batuaren doinua neurri handi batean Mitxelenari eskerrak asmatua, bultzatua eta zabaldua baita egungo euskal liburuk gehienetan.

P. ALTUNA,
*Egan* - Ale berezia, 1987.

1. **Zeren beldur da idazlea?**

   a) Lotsatzeko.
   b) Mitxelena omentzeko.
   c) Mitxelenaren izenari kalte egiteko.
   d) Mitxelenak gramatikari izena merezi ote duen.

2. **Zer da idazleak garbi utzi nahi duena?**

   a) Berari lanik txarrena eman diotela.
   b) Mitxelena gramatikaria baino ez zela izan.
   c) Mitxelena gramatikaria ez beste guztia izan zela.
   d) Mitxelena gramatikaritzat jotzen dugun hori baino askoz gehiago izan zela.

3. **Ba al zen Altunarentzat, Mitxelena gramatikari?**

   a) Ez, gramatikarik inoiz taxutu ez zuelako.
   b) Bai, Altubek Azkueren gramatikarekin egin zuena Lafitterenarekin egin zuelako.
   c) Ez, Altubek Azkueren gramatikarekin egin zuena inorekin egin ez zuelako.
   d) Bai, «gramatika» bat egin ez bazuen ere.

4. **Nola uste du idazleak aspertuko lukeela irakurlea?**

   a) Mitxelena gramatikariaren lan guztiak aipatuta.
   b) Gogoan dituen lanak bakarrik aipatuta.
   c) Bere gogoa eginda.
   d) Lantxo hori agindu dionaren gogoa eginda.

5. **Zer da idazlearentzat, Gramatika Batzordeak oso gogoan edukitzeko hori?**

   a) Aita Villasanteren ohar ikasi eta zorrotzak.
   b) Lehenengo liburuko orripeko ohar «diskret eta agudoak».
   c) Aita Villasanteren lehen liburua.
   d) Aita Villasanteren bigarren liburua.

6. **Zer dira han-hemenka aurki ditzakegun harri pitxiak?**

   a) Mitxelenak idatzitako ezin konta ahala, artikuluak.
   b) Bere artikuluetan ia igerri gabe egiten dituen gramatikazko oharrak.
   c) *Egan*en idatzi zuen lehen artikulua, presondegitik 2. aldiz irtenda.
   d) Presondegiko bakardadean ongi hausnartutako mezu zoragarria.

7. **Zer eragin zuen Mitxelenaren euskal letren munduan agertzeak?**

a) Haurretandiko euskara ikastea.
b) Orixeren liburuak irakurtzen ohitzea.
c) Orixe bigarren lekutik lehenengora pasatzea.
d) Mitxelena Orixeren lekuan jartzea.

8. **Nolako hizkuntz eredua eskaini zuten Orixek eta Mitxelenak?**

a) Orixek Mitxelenak baino finkoagoa.
b) Mitxelenak orain euskalki batean gero bestean idazten zuen.
c) Euskara molde bakarra eskaintzeko orduan, aurrena zen Mitxelena.
d) Euskara molde bakarra eskaintzeko orduan, Orixe zen nagusi.

9. **Euskara idatziaren zein eredu joan zen belaunaldi gazteko idazleen artean gailenduz?**

a) Mitxelenak idazten hasi aurretik oretua eta eihoa zuela ematen duena.
b) Aurreko belaunaldikoena.
c) Orixerena.
d) Orixerena, zerbait berrituxea.

10. **Zer eritzi du Altunak Mitxelenak euskaraz eta euskararen alde egin duen lanaz?**

a) Ez da Mitxelenaren zale, baina aguantatu behar, eragin handia aitortzen bait dio.
b) Mitxelenak Orixez zuen berbera.
c) Mitxelenak Orixez zuena baino hobea.
d) Ez Mitxelenak Orixez zuen adinakoa.

## IRAKURMENA-12

### Garapena eta osasuna batera ote doaz?

Bigarren Mundu-Gerraz geroztik produkzio-hazkundearen erritmoa askoz bizkorragoa izan da garapidean diren herrialdeetan, aintzinatik industrialduak ziren herrialdeetan baino. Azken hiru hamarkada hauetan, urtean, bataz-beste, %5 progresioarekin Hirugarren Munduak laukoiztu egin du bere produkzioa, eta horrenbestez munduko produkzioan zuen partaidetza. Aldi berean harrapaladazko hedapen demografikoa ezagutu du, hala ere, ez da malthusiar hipotesiak zioen ezinbesteko pobretzerik gertatu. Aitzitik, ordea, populazioa bizkorrago hazi den herrialdeetan (Brasil eta Mexiko, non 25 urtetan bikoiztu egin den) askoz bizkorragoa izan da hazkunde-ekonomikoa, zabalpen demografiko txikiagoa izan duten herrialdeetan baino, hau da, India eta Argentina bezalako herrialdetakoa. Biztanleko errenta ere %3,5 igo da, 1950. urtekoa baino hiru aldiz handiagoa, alegia.

Balantze hori ere, globalki, aldekoa da osasun alorrean. Alabaina, ezin dira zenbaki horiek zehatzak bailiran hartu; alde batetik, gerra eta biolentziaren balantzeak izkutuan gordetzen direlako, estatistiketatik at geratuz. Eta bestetik, berauetan agertzen diren zenbakien fidagarritasuna boterearekiko independentziaren araberakoa delako. Gainera, heriotzen erregistro zehatzak ez izateak osasunaren hobekuntzaren ikuspegi faltsua eman lezake. Hala ere, guzti honek ez du esan nahi azken hiru hamarkadotan haur-hilkortasuna, bataz beste, %60 jaitsi ez denik —esaterako, Brasilen erdira, Txinan herenera eta Hong-Kong-en hamarrenera jaitsi bait da—, ez eta bizitz arriskuak, herrialde pobreetan ere, atzera egin duenik.

Alabaina, asko falta zaio garapidean den Hirugarren Munduari multzo homogeneo bat izateko. Hain zuzen, 1982an eta 99 herrialde hartzen zituen inkesta batetan, hilkortasunaren beherakada azkarra izan zuten herrialdeen arteko ezberdintasuna nabarmendu zuen John Caldwell iparramerikar demografoak. Bertan, hamar faktore bereizi zituen, hilkortasunaren adierazleekin konparatuz, faktore bakoitzaren koerlazio maila zehaztu ahal izateko. Ondorioz, biztanleko diru-sarrerak eta haur hilkortasunaren arteko koerlazioa ez dela nabarmena ikusten da. Baina badira, ordea, nagusitzen diren beste bi faktore, hots: neskatoaren irakaspena eta famili plangintza. Hala bada, Caldwell-ek bi herrialde-multzo egiten ditu: emaitza oneko eta emaitza kaxkarrekoak, hain zuzen. Eta bietan daude herrialde aberats eta pobreak.

Azken hogei urteotan, osasun-aurrerapen azkarrak izan dituzten herrialdeen bizitza-maila igo egin da; hain zuzen ere, bikoiztu Latinamerikan eta Hegoeuropan eta laukoiztu Txina ekialdekoan. Mediku eta ospitaleen dentsitatea ere nabarmenki igo da. Hiru lurraldeotako herrialde erdi-industrialduek (hamarren bat) Hirugarren Munduko beste herrialdeek baino farmazi-produktuen kontsumo askoz handiagoa erakusten dute. Txertaketa, antibiotikoak eta mediku-zerbitzu modernoek gaitzak aurrikusteko eta neurri egokiak hartzeko bidea ematen dute.

Osasun alorrean aurrerapen azkarrak dituzten herrialdeen ekonomi eta gizarte-sistemen ezberdintasunak direla medio, ezin daiteke parekotasunik aurkitu beraien artean. Kuwait-ek, bere aberastasunari esker, gehikuntza oso garrantzitsuak lor ditzake biziraupen alorrean, medikuntz baliabide ugari eta dohain emateko gauza bait da. Sri-Lankak ere, Indiako mediku-dentsitatearen herena izanik, emaitza berdintsuak ematen ditu. Hala ere, Kerala probintziak (India) emaitza bikainak agertzen ditu osasunari dagokionean, zeinak bestalde, ez dute proportziorik gordetzen bizi--mailarekin, ez osasunari izendaturiko aurrekontuekin ez eta mediku kopuruarekin ere.

Osasun-adierazleak adierazle ekonomikoak baino txikiagoak direnean esaten da emaitza kaskarreko herrialdea dela. Fenomeno hori, herrialde petrolio-produzitzaileetan gertatzen da, nagusiki. Izan ere, zenbait herrialdek, aipaturiko hauek baino hamar edo hogei aldiz pobreagoak direnak adierazle berdintsuak agertzen bait dituzte. Gauza bera Ertamerika eta Latinamerikan; aspalditik osasun-emaitza onak zituzten herrialde batzuk, orain, aurrerapen eskaxa agertzen dute.

Emakume heldua, oro har, heziketatik kanpo dagoen herrialdeetan emaitza kaxkarrak daude osasun alorrean. Zaire edo Mozanbikeko emakume ikasiak gizonezkoak baino bi bider gutxiago dira, sei bider gutxiago Afghanistan eta Nepalen eta hemezortzi bider gutxiago Yemen-en, horra haur-hilkortasunaren aurkako burrukaren zailtasuna adierazten duen arrazoietarik bat. Beraz, ez dira harritzekoak herrialde horiek agertzen dituzten ugalkortasun indize oso altuak, ez eta jaiotza gutxi aldatzea ere.

D.C. LAMBERT
*Albistaria* 33 zkia. 1987 (moldatua)

1. **Azken hiru hamarkada hauetan Hirugarren Munduan ...**

    a) populazioa lau aldiz haundiago.
    b) produkzioa lau aldiz haundiago.
    c) populazioa %5ean hazi.
    d) produkzioa %5ean hazi.

2. **Malthusek zioena.**

    a) Populazioa hazteak pobretzea ekarriko du.
    b) Populazioa hazteak hazkunde-ekonomikoa ekarriko du.
    c) Hazkunde-ekonomikoak populazioa haztea ekarriko du.
    d) Populazioa hazteak zabalpen demografiko txikiagoa ekarriko du.

3. **Osasunaren aldetik, estatistikak gorabehera, aurrerapena egon dela esan daiteke**

a) gerra gutxiago egon delako.
b) gerra kontutan hartzen ez badugu.
c) estatistikak kontutan hartzen ez baditugu.
d) estatistikarik egin ez delako.

4. **Estatistikak ez dira guztiz fidagarriak**

a) ez direlako beti behar bezain onak.
b) ez daudelako beti botere politikoari lotuak.
c) biolentzia beti kontutan hartzen dutelako.
d) beti ere, zenbakiak erabiltzen dituztelako.

5. **Azken hiru hamarkadetan osasun egoera hobea da. Zerk erakusten du hori?**

a) Heriotze errejistro zehatzik ez izateak.
b) Brasil, Txina, Hong-Kongeko eboluzio demografikoak.
c) Herri pobreenen produkzio tasak.
d) Haur-hilkortasunak, besteak beste.

6. **Hilkortasunaren beherakada azkarra izan duten herrialdeetan ...**

a) batzuk osasun emaitza ona, beste batzuk kaskarra.
b) batzuk aberats, beste batzuk pobre.
c) koerlazioa dago haur-hilkortasunaren eta diru-sarreren artean.
d) koerlazioa dago haur-hilkortasunaren eta Caldewellen faktoreen artean.

7. **Farmazia produktuen kontsumo handiagoa non?**

a) Latinamerikan, Hegoeuropan eta Txina ekialdean.
b) Zenbait herrialde aberatsetan.
c) Zenbait herrialde erdi-industrialdutan.
d) Hirugarren Munduko herri guztietan.

8. **Osasun alorrean aurrerapen azkarra eta herrialdeen bizi-maila hobea**

a) batera doaz beti.
b) ez doaz beti batera.
c) Sri-Lankan eta Indian bakarrik doaz batera.
d) ez doaz batera Kuwaiten.

9. **Herrialde petrolio-produzitzaileetako osasun emaitzak**

a) lehen onak, orain eskasak.
b) gero eta eskasagoak.
c) onak.
d) kaskarrak.

10. **Emakume heldua heziketatik kanpo dagoenean**

a) haur gutxi jaio eta gutxi hil.
b) haur gutxi jaio eta asko hil.
c) haur asko jaio eta gutxi hil.
d) haur asko jaio eta asko hil.

## IRAKURMENA-13

Nahiz eta euskaraz idatzi den guztia (eta esan edo kantatu den franko) euskal literaturan sartzen dugun, hemen sartzera goazen gisa, ezin uka lezake gauzen berri dakien edozein guretarrek maizago topatzen dugula behe-aldeetan narrazka gaindegietan hegaka baino. Urria dugu, arras berankorra izateaz gainera; eskax xamarra ere bai, hitz lotsagarri honetaz balia banaiteke. Agian, bai, behar bada, badaiteke zenbait mota, hala nola honelako edo halako poesia, tontor garaietan gainez-gain ibilia izatea inoiz. Egite horretakoak gertatuak izatea ezinkizun ez delarik inondik ere, nekez mugituko gaituzte, jakinaren gainean ez gauedeino, alderdi ustel diren besteetarik haruntzago.

Urri, berankorra, ñaño-antzekoa izateaz landa, badu beste makur nabarmena: txit mugatua izan dela, erlijio edo hobeki eliz-arazoetara iraulia gehienbat luzaroko mendeetan. Hizkuntzari darion betiko leloa, beti-batekoa ez izanik ere, ez da batere aldakorra gertatu. Geure egunotan bertan, lanak izango genituzke obra mordoska (hitz lañoz nahiz neurtuz ondua) biltzen, dozenatxo bat bederen, geure munduko inguruko eta urrutiagoko literaturetan sortuen aldamenean pareka dezakegunik: gai direnek ere, huts ematen dute neurrian eta tamainan. Ba omen dugu euskaldunok lurbiran harro eta buruzut ibiltzeko nahikoa arrazoi, baina ozta-ozta aurkituko dugu horien artean, eta ez naiz arrotzez ari, literaturaren bitartez eskura ditugun gorengo merezimenduak aldarrikatuko dituenik.

Esana dirudi dagoela horrenbestez ez direla euskal idazleak ugariak izan: urriak eta berandu etorriak bestalde. Eta idazleak ez ezik, ez dela haziegia euskal irakurleen samalda, oraintsu gehitzen hasia badugu ere. Eta, hori dela eta, darabilgun hariari zeharka baizik ez dagokion oharren bat bitartekatu nahi nuke, urrutirago baino lehen. Ez digute, erabat esanik, euskaraz idaztea debekatu, are gutxiago irakurtzea: badakit ez dutela esana ontzat hartuko euskaltzale askok, behar bada gehienok. Gogo onez, are onegiz, mintzatzen dira modu honetan, geure gaitzak besteri egotzi nahian, baina eskaini dituztenak baino arrazoi bortitzagoak eskaini beharko dituzte honako sinesgogor hau beren bidera eraman nahi baldin badute.

Gertatutakoen aztarrenak azter ditzakegunez gero, izan ere, euskal idazle gehiago (eta goiztarrago) izan da Iparraldean Hegoaldean baino, arestiko berriez ez bagara ari: goiko eta beheko idazleak, baita argitaratzeko ez ziren zirriborroak egin zituztenak ere. Eta irakurleen arteko aldea idazleenaren parekoa da, ezinbestean. Eskaintzen dena hartzen da edota, behar bada, eta alderantziz, hartzen dena eskaintzen.

K. MITXELENA
*Euskal Klasikoak* bildumako hitzaurretik (1986)

1. **Idazlearen iritziz, euskal literatura**

a) goimailakoa da.
b) nahiko apala da.
c) maizago topatzen dugu gaindegietan.
d) behe-aldeetan ere aurkitzen dugu noizean behin.

2. **Euskal literatura urria eta berankorra da**

a) baina maila onekoa.
b) eta zenbait alorretan izan ezik, eskasa.
c) baina tontor garaietan ibilia alor guztietan.
d) eta zenbait mota salbu, gainez-gain ibilia.

3. **Gaitz horietaz aparte, euskal literatura/k**

a) oparoa da gaien aldetik.
b) ez du beste akats berezirik.
c) herriko arazoak aztertu ditu gehienbat.
d) gai baten inguruan ibili da luzaroan.

4. **Zer esaten du idazleak euskal literatura eta ingurukoak parekatzeari buruz?**

a) Euskal literaturak ez duela ingurukoen mailarik.
b) Badela euskal literaturan zenbait obra ingurukoetan daudenen pareko.
c) Euskal literaturak ingurukoek duten maila duela.
d) Zaila dela euskal literatura ingurukoekin konparatzea.

5. **Hori dela eta, idazlearen ustez,**

a) harro ibili gintezke euskaldunok.
b) ezin dugu merezimendu askorik aldarrikatu.
c) badugu merezimenduak aldarrikatzeko arrazoirik.
d) literaturaren bitartez eskura ditugu merezimenduak.

6. **Euskal idazleak gutxi izanik, irakurleak ugariak izan dira.**

a) Testuan ez da horrelakorik esaten.
b) Testuan alderantzizkoa esaten da.
c) Testuan horixe esaten da.
d) Testua idazleei buruz ari da bakarrik.

7. **Zer dio autoreak euskaraz idaztea debekatzeari buruz?**

a) Euskaltzale askoren ustez debekatu egin digutela.
b) Debekatu egin digutela erabat.
c) Ez digutela guztiz debekatu.
d) Euskaltzale askok ez dutela ontzat hartuko debekatzea.

8. **Bestela pentsatzen dutenek/ak**

a) ez dira gogo onez ari.
b) besteei ezarri nahi dizkiete gure gaitzak.
c) arrazoi bortitzak eskaini dituzte autorea konbentzitzeko.
d) ez dute autorea beren bidera eramango.

9. **Iparraldean Hegoaldean baino idazle gehiago izan da,**

a) lehengoak eta oraingoak kontuan izanik.
b) nahiz eta beranduago hasi.
c) orain dela gutxikoa kontuan hartu gabe.
d) irakurleak gutxiago izanik.

10. **Testu honetan autoreak**

a) euskal literaturaren etorkizuna aztertzen du.
b) euskal idazleen jarrera azaltzen du.
c) euskal literaturaren merezimenduak azpimarratu nahi ditu.
d) euskal literaturaren balioaz dihardu.

# 4. IDAZMENA

## 4.1. IDAZLAN GAIAK

### IDAZLANA

Azterketarientzako oharra: idazlan hau zuzentzerakoan ondoko puntu hauek bereziki hartuko dira kontuan: (1) euskararen aberastasuna eta jatortasuna (2) argudioren eraketa eta garapena (3) Euskaltzaindiak erabakitako idaztarauak errespetatzea. Garbi idaztea ezinbestekoa da. Gutxienez 300 hitz idatzi behar dira.

Ondoko gaien artean bat aukeratu eta garatu.

1. Boltsaren gora-beherak nazioarteko ekonomiaren egoeraren adierazgarri.

2. Mediku gazte asko dago gaur lanik gabe.

3. Munduan diren gaitzetan zeloena omen da txarrenetarikoa. Zer deritzazu horri?

4. Hala gertatu zitzaien gure gurasoei eta hala gertatu edo gertatuko geuri ere, gazteak harritu eta eskandalizatu egiten du nagusia bere ohitura, jazkera eta modu berriekin. Zerk harritu eta eskandalizatuko ditu gaurko punk eta rockeroak guraso direnean?

— ■ —

1. «Autopistak erabiltzen dituenak debaldeko nahi ditu, baina behar diren autopistak eraikitzea karga ekonomiko handiegia omen da Estatuarentzat; bestalde, zergatik ordaindu behar dugu denon artean batzuek baino erabiltzen ez dutena? Ez al dira autobusak eta trenak ere publiko izan arren ordaintzen?» Zer diozu zuk: autopistak eta autobusak ordaindurik ala dohainik?

2. Ez da txantxetakoa gizarte honetan itsusi izatea!

3. Telebista egunean hogeita lau orduz.

4. Duela hilabete batzuk Sestaoko futbol zelaian norbaitek botila batez jo zuen buruan Hugo Sanchez, Real Madrid taldeko jokalari bikaina. Zer diozu horretaz?

— ■ —

1. Demografi hazkuntzak orain arteko martxa jarraitzen badu hogei urtetan bikoiz daiteke munduko populazioa, %90a hirugarren munduan izango delarik, gainera.

2. Izan ote daiteke arrazoirik ume bat kale ertzean abandonatzeko?

3. Ez al du arriskurik kirola egiteak?

4. Zer egingo zenuke txoria bazina?

— ■ —

1. Jendeak gero eta mesfidantza gehiago politikoetan.
2. Euskal Eskola Publikoa, nolakoa?
3. Nik egunkariari eskatuko niokeena...
4. Bart amets zoragarri bat izan dut.

— ■ —

1. Gero eta goiztiarragoak omen dira gazteak beren sexu harremanetan.
2. Ospitalean hamar egun eman ditut!
3. Gaztetxeak.
4. Jaki naturalen aldeko joera ugaltzen ari da.

— ■ —

1. Hiri handietan hiru ezkondutik bat dibortziatua.
2. Oporretan, benetan gauza xelebrea gertatu zitzaigun.
3. «Pakea nahi baduzu, presta ezazu gerra.»
4. Euskal Herrian 7.000 ijitu bizi dira.

— ■ —

1. Izan al du ondoriorik Espainian 1988ko Abenduaren 14ean egindako greba orokorrak?
2. Haurrak negarrez jaiotzen dira.
3. Zertarako balio du gure aurreko guztien esperientzia edo eskarmentuak?
4. Ardi larruz jantziriko otsoari bi hitz.

— ■ —

1. Drogazaleen arteko %6a bakarrik sendatzen omen da.
2. Inauterietako zure mozorroa.
3. Sektak ugaritzen ari dira.
4. Pelikula bat egiteko aukeratu zaituzte.

— ■ —

1. Lau mila milioi pezetatan saldu dute Picasso bat.
2. 200 kilometro orduko egiten dituzten kotxeak, zertarako?
3. Gure inguruko klima aldatzen ari omen da. Ba ote du horretan gizakiak eraginik?
4. 200 milioi tokatu zaizkizu loterian.

— ■ —

1. Euskadin, lau senideko 29.100 familia hileko 47.400 pezetarekin bizi dira.
2. Telebista kulturaren suspertzaile?
3. Ben Johnson-ekin korritu nituen 100 metroak.
4. Zerua zer da zuretzat?

— ■ —

1. 1492an Amerika deskubritzea zer izan ote zen, zibilizatze lan ikaragarria ala indioekiko sarraskia?
2. Jaiotzea nolabait hiltzea ere bada.
3. Zeren esperantza duzu?
4. Kalitateak gaur itxura eta irudiaren aldean estimazio gutxi!

— ■ —

1. Gaitz psikikoa zerk sortzen duen esatea ez da erraz. Baina badira, jendearen esanetan, gaitza errazago sortzen duten edo horretan eragiten duten lanbideak: irakaslea, ertzaina, exekutiboa, lan mekaniko hutsa egiten duena, ... zer diozu?

2. Zertarako balio du ortografiak?

3. Herri sozialistetan ere badira arazo nazionalak.

4. «Bart amets beldurgarri bat izan nuen».

## 4.2. ESKUTITZAK

### ESKUTITZA

Emandako datuekin eskutitza osa ezazu. Behar dituzun osagarriak asma eta erabil ditzakezu, kontuan izanik eskutitzari egitura egokia eman behar diozula. Bete, gutxienez, 20 lerro.

1. Bost lagunek osatzen duzuen musika talde batekoa zara eta argitaletxe batetara idazten duzu disko berria argitaratzeko asmoz. Aipa itzazu, besteak beste, honako puntuok ere:

— taldearen «curriculum»a...
— diskoaren ezaugarriak
— zein baldintza argitaratzeko...
— ...

2. Aurtengo «Miss Euskadi» Lehiaketa zure herrian ospatuko dela jakin duzu. Zeharo harritu zaitu berri horrek, baina... Zuk, agian feminista zaren horrek, ez dituzu begiko era honetako lehiaketak.

Antolaketa horri kontra eginez eta, bidenabar, zeure haserreareen eta aurka egotearen arrazoiak luzatzen dizkiozularik, idatz iezaiozu eskutitz bat Alkateari.

3. Zure herriko edo auzoko hirigintza-planaren aurreproiektua udalak ezagutzera eman du, herritarrek edo auzotarrek beren eritziak edo aldaketak proposa ditzaten. Plan horretan ez dira aurreikusten zure herrian edo auzoan zuretzat behar-beharrezkoak diren zerbitzu batzu. Idatz iezaiozu alkateari falta diren zerbitzuak azalduz eta berauen premia adieraziz.

4. Laneko eginkizunak direla eta, Hego Amerikako hiriburu batera joan beharra izan duzu. Bertan bi hilabete emango dituzu gutxienez.

Idatz iezaiozu zure ezkontideari hiriburu horretan jadanik hilabete igaro ondoren.

5. Telebistako Zuzendariari eskutitz bat idatzi behar diozu aste honetako emanaldien artean aukeratzen duzun bati buruz zure eritzia, txalotzeko edo kritikatzeko, emanez.

6. Duela hilabete ezkondu eta ez duzu gaur arte egun hartan egindako argazki erreportaiaren berririk izan. Goizean hartu duzu argazki dendatik bidali dizuten eskutitza ospakizun eder hartan egin ziren argazki guztiak galdu egin direla esanez. Idatz ezazu eskutitza zure haserrea adieraziz eta konponbiderik ba ote den galdetuz.

7. Euskara ondo ikasia bazara ere, ez duzu Iparraldeko hizkera ia ezagutzen. Lagun baten bidez jakin duzu badela Bidarrai izeneko herrixkan zu denboraldi baterako hartzeko prest dagoen baserria.

Idatz ezazu baserrira, noiz, nola eta zein balditzatan joatea gustatuko litzaizukeen adieraziz.

8. Datorren udako oporrak gazte-kanpamentu batean igaro nahi dituzu zure lagun batzurekin. Gazte-auzolantegi horietan herri ezberdinetako gazteek har dezakete parte, proiektu zehatz batean lana eginez eta elkarrekin biziz. Idatz iezaiozu Kultura eta Turismo Saileko Gazteria eta Gizarte Ekintzarako Zuzendariari antolatu diren gazte-kanpamentuei buruzko informazioa eskatuz: noiz, non, nork antolatzen dituen, parte hartzeko baldintzak, asmoak,...

9. Lehengo igandean izandako euri jasaren ondorioz zu bizi zaren inguruko denda, taberna eta garajeak nahikoa kaltetuak gertatu dira.

   Zeure inguru hori ongi ezagutzen duzunez badakizu Udalak hainbeste lan emango ez luketen obra haiek egin izan balitu, euri jasarik handienak ere ez zuela kalterik egingo.

   Idatz iezaiozu alkateari zure uste horren berri emanez eta aipatutako obra horiek ahal duzun ongien zehaztuz (estolderiak, tuberiak...).

10. Zuzendari zauden eskolan gelaz kanpoko ekitaldi programa bat antolatu duzue: musika, dantza eta antzeko saioak izango dituzue eskola orduetatik aparte bai umeentzat bai gurasoentzat. Presta ezazu gurasoei bidaltzeko eskutitza programa horren berri emanez, beren umeek parte hartuko duten galdetuz eta beraiek ere parte har dezaten eskatuz.

11. Demagun euskaltegi bateko idazkaria zarela. Ikasturte berriaren hasieran euskaltegiaren eta bertako ikasketen berri emateko herrian zabaldu behar den eskutitza idatzi behar duzu.

    Euskaltegiko ikas-mailak, arauak, ordutegia eta gainerako zehaztasunez gain, jendea erakartzeko ahaleginak egin behar dituzu eskutitz horren bidez.

12. Ingalaterrako zure ezagun batek idatzi dizu oporretan Euskal Herrira etorriko dela esanez eta hemen ikus ditzakeen gauzen berri eskatuz. Erantzun iezaiozu, oporretan, zu ere hemen ez zarela egongo esanez eta gure herriko gauzarik nabarmenenak gomendatuz.

13. Gazteen literatur zaletasuna bultzatzeko diru-laguntzak sortu ditu Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailak.

    Idatz ezazu eskutitz bat aipatutako Hezkuntza Sailera diru-laguntza horiek eskuratu ahal izateko baldintzak eskatuz.

## 4.3. ESALDIAK BERRIDATZI

Ariketa honetan ematen zaizkizun esaldiak beste modu batez adierazi behar dituzu. Horretarako azpiko esaldia osatu behar duzu. Behean agertzen den esaldi zatitxoak aurretik edo atzetik puntuak baldin baditu, zerbait idatz daiteke horri lotuta. Adibidez:

...takoan ——► *etorri*...takoan

Punturik ez badu aparteko hitza da. Ahalik eta gutxien aldatu behar dituzu goiko esaldiko hitzak. Inoiz bat kendu edo beste bat sartu beharko da, baina beti ere esaldi bakar bat osatuz.

## ESALDIAK BERRIDATZI-1

1. Osasun-agiria eskuratzearren eramaten zituzten haurrak txertatzera eta ez txertoan sinisten zutelako, ez.

_______________________________________________

_________________________________________ baizik.

2. Lehen ere esan dugu guraso askok ez zuela txertoa batere atsegin.

_________________________________________ zale.

3. Olaetako Andres zen Perretxe bordako jabea eta harengana joan zen bezperan Leandro.

_________________________________________ Andres...

_______________________________________________

4. Gertatutakoak gertatuta, okerragorik espero ote dezakegu?

___________________________ zer etor ____________

5. Txertoak indarrik ez hartzeko, txistuz ondo-ondo bustitako mukizapiarekin garbitzen zioten haurrari txertoaren zauritxoa.

_______________________________________________

_____________________________ har ____________

6. Berak irakatsi zidan zauri bat sendatzeko, odolaren isuria dela munduko gauzarik onena.

_______________________________________________

______ baino _____________________________________

7. Yesako pantanoaren bitartez lur sail haundiak bustitzen dira: lurrak ere jan eta edan egin behar baitu, itxurazko etekinik ematea nahi bada.

_______________________________________________

_______________________________________________

_________________________ badu.

8. Gerizondoaren enbor moztua terralez inguratua ikusten dut, lore txuriz izan beharrean.

_______________________________________________

_________________________________________ baizik.

9. Borda hura erosi nahi zuela entzunda, txunditut a geratu ginen.

_________________________________ utzi _________

10. Fabianek aspalditik zuen borda hori suntsitzeko asmoa.

______________________________ ...kotan ____________

11. «Estudiatu, Julian, estudiatu gogor, ni bezalako tontotzarra ez izateko». Horixe esaten zidan osabak.

Osabak esaten zidan ______________________ izan ____

______________________________________________

12. Harrigarria bada ere, komikigintzarekin zerikusi zuzenik ez duen erakunde bat bihurtu da aitzindari komikigintzaren merkatuan.

Harrigarria da __________________________________

______________________________________ bihurtzea

13. Irribarre horren atzetik nork sinetsiko luke euskal esamolde adierazkorren biltzaile bat dagoenik?

Sinets ote ______________________________________

______________________________________________

_________________________________________ ...la

14. Domekan iritsi zitzaidan Juxto giltzapetik atera zen berria.

________ jakin ahal ______________________________

15. Perretxerako bidean ez genuen elkarren artean hitz gehiago esan.

_____________________________ elkarri ____________

16. Auzunekook aho zabalik jaso genuen borda saldu zioneko berria.

______________________ utzi ______________________

17. Hiru egun haietan, salmentaren tratua sinatu zenetik heriotza nagusitu zitzaion arte, alegia, ez omen zen Fabian gizon bera izan.

Beste gizon ______________________________________

____________________________ arteko _____________

18. Hogerleko franko eskaini behar izango zizkion hori lortzeko!

Zenbat hogerleko ________________________________ !

19. Lanbroa hasi eta berehalakoan atertu du. Baina bideko harriak halere busti ditu.

Nahiz eta _______________________________________

______________________________________________

20. Edertasunetik aparte, probetxu izugarria duen obra egin zuten noizbait.

_____________ ...ezik _____________________________

_____________

## ESALDIAK BERRIDATZI-2

1. Lo gelditu nintzen, hain nekaturik nengoenez gero!

   ________________________________ ninduen!

2. Tapaki gehiago behar da oheetan, etxekook hotzak ez akabatzeko.

   ________________________________________

   ________________________________ bagaitu.

3. Txipiroi frijituen usaina usnatzen zuen neurrian listuz betetzen zitzaion ahoa.

   ________________________________ ahala

   ________________________________________ .

4. Horrela mintzatu zen, gerrak gorputzean zehar utzi zizkion orbainak harroki erakusten saiatzen zen artean.

   ________________________________________

   ________________________________ ...larik.

5. Burutsuenek zioten arrotza azaldu zitzaigula bere zurezko maleta hartuta, ifarra sartu zitzaigun ilunabar hotz batean.

   __________ ziotenez ______________________

   ________________________________________ .

6. Telebistak izan du boxeoa behera jaistearen erru guztia, 1980tik aurrera ez bait du batere boxeorik eman.

   ________________________________________

   ______________ utzi ______________________ .

7. Ateraldi egokiak zituen eta farre noiznahi egin erazten zuen; bertsotan ere txukun egiten zuen hark.

   ________________________________ ...z gain

   ________________________________________ .

8. Ez zen erraza hura gezurretan harrapatzen.

   Nekez ________________________________ .

9. Sargori zegoen egun hartan. Ondo gogoan dut.

   Ez zait, ez ____________________________ .

10. Nork esango zion orduan Blas gexal samarrari leizezulo hartan galduko zuela hilabete geroago bizia?

Nork pentsa ____________________

____________________ ?

11. Arrotza herrira nola etorri ote den beti izan da misterioa gure jendearentzat.

Gure jendeak ____________________

12. Eta ni, beti, osabak hori esateko zain egoten nintzen.

____________________ noiz ____________________

13. Ukabila adinakoak dira gereziok.

____________________ bezain ____________________

14. Amaitu berria den hitzaldi horretan entzun ditugunak sinestea oso nekeza da.

Ez da ____________________

____________________

15. Hegoaldean inor gutxi arduratzen da iparraldeko lexikoa erabiltzen.

Gutxi dira ____________________

____________________

16. Musika gustoko zaiola konturatzen garenean bidali behar dugu umea kontserbatoriora. Ez lehenago.

Ez da komeni ____________________

____________________

17. Erbititarren aizkorak izan dira aizkolariek beren markak hausteko erabili dituztenak.

____________________ esker ____________________

____________________

18. Bai urruti dagoela zuen etxe hori!

Zein ____________________ !

19. Coro bezalako pertsonek edozein gauzari egingo diote uko, amets egiteari izan ezik.

____________________ beste

____________________ .

20. Maria Luisak andrearen aurpegira begiratu zuen: ezetz berrogei urte izan.

______________________________________________________________

______________________________________ uste _______________ .

## ESALDIAK BERRIDATZI-3

1. Karreradun gizona zen Indalezio, baina medio handirik ez eta lanean hasi behar izan zuen.

   ______________________________________________

   ______ ezean ______________________________ .

2. Emazteak arrazoi zuela zeritzon arren, Antoniori etxeko giroa gero eta estuagoa egiten zitzaion.

   ______________________________ ere __________

   ______________________________________________ .

3. Eta lehen distantzia hori bere sinismenaz betetzeko modurik bazuen, orain ezin du, galdua bait du jadanik Jainkoagan sinismena.

   ______________________________ bete ba... ____

   ______________________________________________

   ______________________________________________ .

4. Untza zuhaitzaren formara moldatzen den gisara moldatu zen Mirenen maitasuna Koldoren izakerara.

   Nola ______________________________________

   hala ______________________________________

5. Harkaitz batetik ia erorian dagoen alpinistak arnasa larri hartzen du.

   ____________________ erortzeko ______________

   ______________________________________________ .

6. Txindoki zorrotza da; Aizkorri ez da hainbeste.

   Aizkorri __________________________________ .

7. Haietako inork erdaraz ez zekielako, izenak hartu beste lanik ez zuten egin.

   ______________________________________________

   baino__________________________________ .

8. Munduko bide guztiek Erromarantz jotzen bazuten ere, ez zen halakorik gertatzen Ollaranen, bertako bide guztiak Soziedadean amaitzen bait ziren.

   Nahiz ______________________________________

   ______________________________________________

   ______________________________ eta.

9. Lanean igarotzen zuen arratsalde osoa: plantxa egiten, sukaldea jasotzen..., senarraren zapatak garbitzen ez zenean.

______________________________________________

____________________________________ ba... ______ .

10. Argiak piztu ditut ea horrela Robertok ikusten gaituen.

________________________________ ikus __________ .

11. Alejandro bere ibilera traketsarengatik, egokiagoa zen erretagoardiarako frentera joateko baino.

______________________________________________

__________________________________ bait... ________ .

12. Amets horiek hain beharrezkoak egin zitzaizkion, bere gorputz barneko espazioaren taupada bihurtu bait ziren.

________________________________________ ...z

__________________________________________ .

13. Aspaldidanik haren erraietan ereinda bailegoan, errebelazio bat bailitzan, barru-barrutik atera zitzaion hitza.

____________________________________bezala ____

________________________ bezala ________________

_______________ .

14. Kulturzale amorratua eta autodidakta zen baina euskararen inguruan sortutako literatura, sotana kutsuz josia, ez zitzaion batere gogoko.

______________________________________________

______________________________________________

__________ ba... ______________ ere.

15. Lehenengo tabernara joan zen; gero, etxera.

______________ baino ___________________________

16. Ia ez dakite erdaraz neskame horiek. Neskame horien inguruan eman dute oporraldia Alejandro eta Marianak.

____________________________________ ...n neskame

__________________________________________ .

17. Aurtengo ihauterietan txorimalo arropak eramango ditut.

____________________________________ jantziko naiz.

18. Eztei aurretik ezkongai bakoitzak bestearen familian sarrera egiteko ohitura zegoen; ondorioz, azkar ibili ziren Damiana eta Alejandro tramite horiekin.

_______________________________________________

_______________________ ...z gero _______________

_____________________________________________ .

19. Ziur baino ziurrago galdetu beharko zion bere buruari apaiz egin behar zuenentz.

_______________________________________________

____________________ ala ____________________ .

20. Pilarrek Bixenteri kontu goxoak esan zizkion eta baita Bixentek Pilarri ere.

_______________________________________________

____ elkar... ___________________________________ .

## ESALDIAK BERRIDATZI-4

1. Hegoaizeak fandango ederrik erabili du bazterretan; mendebalak ere bai.

   ____________ ezezik ____________

   ____________ .

2. Gerrak zenbat familiatan mixeria gorria jarriko zuen pentsatzea nahikoa da ekaitzaren zigor gogorraz jabetzeko.

   ____________

   ____________ besterik ____________

   ____________ .

3. Horrelako gertaera mingarriak, urrutienekoak ere, hurregi izaten direla esan genezake.

   ____________ nahiz eta ____________

   ____________ .

4. Hau polita da; neurri berean da zatarra hori.

   ____________ bezain ____________

   ____________ .

5. Egun zenbait idazleren helburu bakarra aurrez irabazitako errentari eustea da.

   ____________

   ____________ ez du.

6. Makina zahar horrek zarata ateratzeko bakarrik balio du.

   ____________ baino ____________ .

7. Lotsa ere ematen dit azken finean neuk ere behin baino gehiagotan horrelakoak egin ditudala pentsatzeak.

   Lotsagarria ____________

   ____________ egina ____________ .

8. Idazle eta kirol kazetari horiei esker, gaur egun, zenbait kirolek bere hizkuntza eta argot ia propioak ditu.

   ____________ zor ____________

   ____________ .

9. Bizio edo joera txarrak uztea zaila da; errazago da hartzea.

_______________________________________________ baino.

10. Janaririk onena izanda ere, maizegi janez gero, aspertu egiten gaitu.

________________ bada ere ______________________________

_______________________________________________________

11. Negar egiten dugu; gehiago egin beharrean gaude oraindik.

_____________________________________ baino __________

______________________________________________________ .

12. Pago gazte horiek hazten doazen neurrian, kerizpea ugaritzen joango da.

_______________________________________________ ahala

______________________________________________________ .

13. Lotsagarria da benetan prakak bete lan izan eskuartean eta eztabaida antzuetan denbora alferrik galtzea.

Zein __________________________________________________

______________________________________________________ .

14. Erabat kaletartu gara guztiok eta baserritarkeriak direla uste dugu zuk aipatu dituzun gauza horiek.

_______________________________________________ ...tzat

______________________________________________________ .

15. Zuk hala pentsatzen ez baduzu ere, zuri gustatzen ez zaizkizun gai horiek irakurtzearren bakarrik askotxok erosten dute egunkaria.

_______________________________________________________

_____________________________________________ dutenak.

16. Joandako sasoiak oraingoak baino hobeak direla? Hori ez dut nik esan.

Nik ez dut _____________________________________________

______________________________________________________ .

17. Juana Bixentak pakean uzteko eskatzen zion behin eta berriz.

___________________________ utz ________________________

______________________________________________________ .

18. Ceutan guri erloju bana erosterik badaukazu?

Eros ______________________________________________ .

19. Penintsula osoan eguraldi ederra egin du joan den astean, baina ifarraldean ez.

_______________________ izan ezin _______________________

______________________________________________ .

20. Penagarria da astean bitan idatzi behar duenarentzat gaurko egunean bere zentzua duen gai bat paperontzira botatzea.

______________________________________________

______________________________________________

_______________________________________ botatzeak.

## ESALDIAK BERRIDATZI-5

1. Batzuetan esan daiteke, komunikabideek, elkarren artean duten gerra dela eta, hondamendien dossier harrigarriak argitaratzeko bakarrik balio dutela.

 ______________________________________________

 ______________________________________________

 bestetarako ______________________________ .

2. Polizia, bonbero eta gainontzekoak aritu ziren bazterrak miatzen, baina ez zuten umearen arrastorik inondik ere aurkitu.

 ______________________ ba... _______ ere

 ______________________________________________ .

3. Diotenez, komunikabide publikoei etorkizun zaila iragartzen zaie; guztiz ezinezkoa ere bai.

 ______________________ ...ezik ______

 ______________________________________________ .

4. Ezkonberri horien ezteietara senitartekoak bakarrik etorri dira.

 ______________________________ baino

 ______________________________________________ .

5. Koldok Nekaneri gezurrak esaten zizkion, baita Nekanek Koldori ere.

 ______________________ elkar.... ________

 ______________________________________________ .

6. Zerak asmatzen du hemen; dagokion garaian gauza bakoitza neurtzen dakienak.

 Dagokion ______________________________

 ______________________________________________ .

7. Agindu ere egin zidan Olamuinoko kaxkora igoko ginela bueltarakoan handik bertatik itsasoa ikustearren.

 ______________________________________________

 ______________________ ikus __________ .

8. Lankideen arteko giroa ez zen ona, baina etxekoa okerragoa zen.

 ______________ baino ______________

 ______________________________________________ .

9. Udan gaudela! Udan gaudela! zioen, hiru kenduta, plazako jende guztiak.

____________________________________________

________ ezik ______________________________ .

10. Zuk barre egiten duzu, baina zure lagun horrek ez hainbeste.

______________________________ adina ____________

____________________________________________ .

11. Bestalde, komunikabideak berak dira arte horren eskasia eta gabezia ongien isladatzen dutenak.

______________________________________ dute

____________________________________________ .

12. Eskuan duzun hori ematerik baduzu?

__________________________ eman ______________ ?

13. Lotsagarria da berarentzat, hainbeste ezagun eta lagunen aurrean pailazokeriak egiten hastea.

____________________________________________

______________________________________ hasteak.

14. Orain hilabete istripuz hil zen auzoko alargunak etxe eta lursail asko zituen bereak.

____________________________________________

________________________________ jabe ________ .

15. Ez da oraindik urte asko, hamalau urte betetzerakoan lantoki baterako bidea hartzen genuela.

____________________________________________

orduko ______________________________________ .

16. Hauteskundeak zer ziren jakin gabe urte-mordo ederra igaro den arren, oraingo aldi honetan badugu nahikoa.

________________________________ igaro ba... ____

____________________________________________ .

17. Euskadik artista on asko eman duela ez dago ukatzerik.

Ezpairik ____________________________________ .

18. Orain ez da garirik ereiten; ez da jotzen.

________________________________ utzi ________ .

19. Horrelako musika ederra entzuten ez naiz aspertuko; ez zait iruditzen.
Ez zait iruditzen ________________________________________
________________________________________________________ .

20. Kontzientziak agintzen zion erara jokatzeko gomendatu zion aitak.
________________________________________ joka ____________
________________________________________________________ .

## ESALDIAK BERRIDATZI-6

1. Poliziek berehala jo zuten oinazka batzuen atzetik, Josetxorenak zirelakoan.

   ________________________________________________

   ________ Josetxorenak ziren ______________________ .

2. Irabazpide hartan Teilazuriko Manex zen Pauloren eta Josetxoren nagusia.

   Paulok eta Josetxok ______________________________

   ________________________________________________ .

3. Badirudi zakurrak erasan behar duela, baina horregatik ibilkariari axolarik ez.

   ________________ dirudien ________________________

   ________________________________________________ .

4. Aspalditik antzeman nion gutxiago maite ninduela, nik bera baino.

   ________________________________________________

   ________ adina ___________________________________ .

5. Ez zuen behin emandako hitza jango, lehenago bizirik erre!

   ____________________________ lehen _______________ .

6. Denok ditugu gure irristadak, eta gizon hark ere bazituen bereak.

   ___________ antzera ______________________________ .

7. Mutil harroa zen; hizketan hasten zenean, ez zen bera bezalakorik.

   ________________________________ zuen ____________ .

8. Etxe hartako berri ongi zekiena zen; urte batzutan bertako morroi izan zen.

   ___________________________________ zenak ________

   ________________________________________________ .

9. Etxeak leihotik hasi eta metroren bat inguru, solairu gabeko hutsunea zuen. Handik sartzen zena zuzenean behi artera zihoan.

   ________________________________________________

   hutsunetik ______________________________________ .

10. Errenteria herri estu zikin bat besterik ez dela uste du askok. Baina Errenteriak baserri sail polita dauka.

______________________________ ere

______________________________ .

11. Igitaiz ebaki behar garoa, ez ziguten bestela uzten.

__________ ez ziguten uzten __________ .

12. Arratsaldeko lauretan edo, ikusi zuen harrigarrikeria hura.

__________ inguru ziren __________ .

13. Musu xamur bat eman nion masailean, batere haragikeriarik ez zuena.

______________________________ ...ko __________

______________________________ .

14. Okilak habia sugez beterik aurkitzen duenean amorrua sentitzen du. Hala sentitu zuen Jonek ere.

Jonek ______________________________

______________________________ .

15. Josek artaldea inoiz baino hobeto zaintzen du.

__________ ez du ______________________________ .

16. Euskaratik euskarara aldea dago; ez askok uste duen adinakoa.

______________________________ ez dago __________

______________________________ .

17. Premia ekonomikoak beharturik, lan bila hasi nintzen.

______________________________ behartu __________ .

18. Aspaldiko lagun harengana bihurtu naiz, nere liburu berri honi solfeoa jartzeko.

______________________________

______________________________ jar __________ .

19. Eman zitzaigun mintzoa, gure gogoeten berri elkarri adierazteko.

______________________________

______________________________ adieraz __________ .

20. Oztopo horiek behar bezala gainditu gabe, euskara ezin salba daiteke.

______________________________ gainditzen __________

______________________________ .

## ESALDIAK BERRIDATZI-7

1. Alde guztietan zorrak utzi ditu; zurrumurru hori zabaldu da auzokoen artean aldegin duen momentu beretik.

   ______________________ ote ______________________

   __________________________________________________ .

2. Bi xakelariak batera sartu ziren gelara baina ez zion batak besteari agurrik ere egin.

   __________________________________________ elkar...

   __________________________________________________ .

3. Eskualde horretan eman ditut nik bost urte. Hor eztulari baino jaramon gutxiago egiten zaio hilketari.

   ________________________________ ...n __________

   __________________________________________________ .

4. Zuzperraldi honek idazle kopuru berria dakar berekin baina joera honi gehiegizko garbizaletasunaz ukitua dela egozten zaio.

   ______________________________________ ba... ____

   ______________________________________________ .

5. Ubideak berritzea, urak egindako sakonak berdintzea, larrak ebakitzea... baztertu egiten dituzte gaurko baserritar gazteek.

   ______________________________________________

   _______ muzin __________________________________ .

6. Egun hauetan herrian dabilkigu Joxe, burumakur eta hitzik ere esan gabe.

   __________________________________________________

   ____________________________________________ ...la.

7. Karrika ilun, hezean, aurrera egiten genuen neurrian, hurbilago eta indartsuago somatzen genuen beldurra eta arriskua.

   Zenbat __________________________________________

   __________________________________________________

8. Orduko baserri zaharretan ia egunero errezatzen zen errosario santua. Bestela, ez zuten amore ematen aiton-amonek eta gurasoek.

   __________________________________________ ezean

   __________________________________________________ .

9. Ausarta eta trebea mutila! Horrelakoa atera zaigu gure txikia.

Bai________________________________________ .

10. Astolanetan ederki ikasi dugu mutil koskor ginenetik.

____________________ gara ____________________ .

11. Zirrikitu hartatik kontu haien berri jakin behar zuen, gero polizi buruari guztiak esateko.

____________________________________________

________________________ esan ________________ .

12. Edonorentzat dago argi izerdia eta, askotan, malkoak isuri behar direla gaurko egoeran familia aurrera ateratzeko.

____________________________________________

________ gabe ________________________________ .

13. Honela esaten zait gutunean: Errenta Aitorpenean ordaindu gabeko diru kopuru hori 15 egunetako epean sartu behar duzu aurrezki kutxa edo bankuren batean.

Gutunak esaten dit ______________________________

____________________________________________

__________________________________________ .

14. Oromenderrietarrik gehienak oihan lanetik edo zur lantzetik bizi dira, ez hiltzeko lain jateari bizitzea deitzerik badago.

____________________________________________

______________________ dei ________________ .

15. Lehen ere esan dizut agintzeko beste horri eta ez niri.

______________________________________ baizik.

16. Hamaika aldiz gauza berbera irakatsi eta, hala ere, ez dute inoiz ikasiko.

________________________________ ...gatik ______

__________________________________________ .

17. Herriko jendeak gogoko zuen auzo hura ahaztea, eta lotsatu ere egiten zen hango murru eta teilatu erdi eroriek adierazten zuten beheraldiarekin.

____________________________________________

__________ gain ______________________________

__________________________________________ .

18. Geunden goikalde hartatik leku isil eta sosegatuaren traza hartzen zitzaion munduari.

________________________________________

____________________ zirudien ____________ .

19. Gure herrian futbol federazio baten beharra dagoela azpimarratu dute behin eta berriz jokalariek eta futbolaren inguruan dabiltzan beste guztiek.

____________________ ...ezik ____________________

________________________________________ .

20. Joxepa kaskagorra zela esan zigun norbaitek, Potzolo, berriz, ero gaizto horietakoa.

____________________ bezala ____________________

________________________________________

## ESALDIAK BERRIDATZI-8

1. Atzo Ortzaizera ezin joan izan zirenek Zuberoako Irurin izango dute laster pastorala ikusteko abagunea.

   ______________ joaterik ______________

   ______________________________ .

2. Ura ekartzeko izaten zen lanik asko, nahiz ganaduak edateko putzu bat izan etxe inguruan.

   ______________________________

   ______________________________ ...gatik.

3. Joan eta barrikari atzeko kabila edo kortxoa atera zion, eta ixtante batean hustu zen barrika.

   ______________________________ orduko

   ______________________________ .

4. Baserri batzuek etxe ondoan depositu handi bat egiten zuten urak biltzeko. Horrekin laguntza handia izaten zuten udarako lehorterako.

   ______________________________

   depositu handi batekin ______________ .

5. Ganaduari ura ematen ere bazen lanik asko.

   ______________ ekartzen zuen ______________ .

6. Berriketa pranko erabili zuten, baina nola edo hala lehen esan dudan kale hartan jarri zuten denda.

   ______________ ondoren ______________

   ______________________________ .

7. Ez ziren denak gustora gelditu arrazoi horrekin, hurrengo egunetan ere izan bait zen zer esana pranko.

   ______________ gero, ______________

   ______________________________ .

8. Aitonak pipa pixteko, ilobak bi joan-etorri egin behar izaten zituen brasa bila.

   ______________________________

   ______________________________ zezan.

9. Etxea eta ganaduak erretzen ikusi eta ezin ezer egin! Zer negargarria den hori baserritar batentzat.

Zer negargarria den ______________________________

______________________________ .

10. Behin batean, Donostiatik San Markos tarteko baserri bateko neska bat arto jorran ari zela, tiroz hil zuten.

______________________________ ari zen ______________________________

______________________________ .

11. Gari jotzea egindakoan, oraindik lana gelditzen zen. Hura dena garbitu edo haizatu egin behar izaten zen.

Bazen ______________________________

______________________________ beharra ______________ .

12. Ogia bigunago kontserbatzeko, arropa edo tela zuri tartean jasotzen zen.

______________ kontserba ______________________________ .

13. Artoa ohi den tokian ez da goserik ezagutzen. Hala esan ohi zen.

Esan ohi zen ______________________________ .

14. Nik era batera pentsatzen dut; zuk, bestera.

______________________________ bezala______________________________ .

15. Askotan, egun guztian han egongo ziren erdi etzanean kantari.

______________________________ emango ______________________________ .

16. Etxean txerria hiltzen zuten eta egun hura egun handia izaten zen, batez ere umeentzat.

______________________________ eguna ______________

______________________________ .

17. Mutil koskor batzuek elkarrengana bildu eta esan zuen batek: ‹‹Gaur bazkari ederra egin dugu!››

______________________________

______________________________ ...la esan zuen batek.

18. Karga mandoaren gainean jartzeko bazituzten aproposeko tresna batzuek, silak esaten zitzaienak.

______________________________

izeneko ______________________________

19. Lanak ahitu ziren, eta lanak ahitu zirenean mandazaiarentzat ez zegoen hemen irabazpiderik.

________________ ...ta ________________

________________________________________ .

20. Eta, ikusirik ez zegoela ihes egiterik, pentsatu zuen mando bat askatzea.

________________ ...eela ________________

________________________________________ .

## ESALDIAK BERRIDATZI-9

1. Urte gehiago daukaten neurrian estimazio hobea izaten dute gauza batzuek.

   Zenbat eta ______________________________

   ______________________________ .

2. Diruak, patatak bezala, urtero usteldu behar luke; hala diote batzuek.

   Badira ______________________________

   ______________________________ .

3. Bertsozalegoak ondo hartuko du, noski, bere azken eskaintza hau.

   ______________ harrera ona ______________

   ______________________________ .

4. Entzuten duguna, azkenaldi honetan, errazegi ahazten zaigula iruditzen zait.

   ______________________________

   ______________________________ nago.

5. Haien gurasoek poz galanta hartuko zuten atzokoan.

   ______________ makala______________ .

6. Jonen gurasoei ez zitzaizkien gustatzen gaupasa zaratatsu eta gogaikarri haiek.

   ______________ zituzten ______________

   ______________ .

7. Plazarik plaza ibili ohi ziren bertsolariek joera haundia erakutsi zuten askotan bertso paperetarako; gaur egungoek ez dute hainbestekoa.

   ______________________________

   baino ______________________________ .

8. Bertso horiek jendeari heltzeko, azoka eta ferietara jotzea zen biderik egokiena.

   ______________ hel ______________

   ______________ .

9. Geroztik, bizimodua nolabait irabazi nahian, esnekien salerosketari ekin zion.

   ______________ ...arren ______________

   ______________________________ .

10. Gure herri maite eta gorrotatu honetan, normaltasuna helburu bakartzat duen herri honetan, umorea mintzagai bakarrik dugu.

_______________________________________________

________________________________________ baino ____________ .

11. Euskarazko liburuetan gatzik gabeko umorea zebilelako hasi nintzen lan honetan.

_____________________________________________________________

____________ heldu ________________________________________ .

12. Bigarren argitaratze honetarako, formazko ikutu batzu salbu, lehen-lehenean lagatzen dut liburua.

____________________________________________________ ezik ______

__________________________________________________________ .

13. Tristea da mundu honetan bista onarekin ikusi ezina!

Zein ________________________________________________ !

14. Ahaleginetan ari naiz batari amorerik ez emateko, ezta besteari ere.

____________________ ez ________________ ez ________________

__________________________________________________________ .

15. Momentu gogor eta ilun haietan laguntza estimagarria eskaini nion; berak ere bai neri.

_____________________________________________________________

__________________________________________________ elkarri.

16. Neuri ere aspergarriak egiten zaizkit modu horretako irratsaio luze eta korapilotsuak.

________________________ aspertzen ___________________________

_____________________________________________ .

17. Nahiz eta bueltako kanpaiaren gisara beti kanpaikada berdinak joaz gelditzeko arriskuan egon, azken boladako leloarekin natorkizu.

_____________________________________________________________

____________ ere _____________________________________ .

18. Haundiak bezala gaztetxoak gaur azkar hasten dira munduan zehar ibiltzen eta bazterrak ezagutzen.

____________ ezezik ________________________________________

__________________________________________________________ .

19. Datorren asteburuan eguraldi ona egingo duela ematen du.

Antza denez ______________________________________________.

__________________________________________________________.

20. Ameskaizto hartatik esnatu nintzen eta konturatu begiak bustita nituela.

______________________________________________ batera

__________________________________________________________.

## ESALDIAK BERRIDATZI-10

1. «Nik oraindik ez dut ulertzen zergatik diozun horrelako beldurra deportazioari», esan zion Anek.

   Anek esan zion ______________________________

   ______________________________ .

2. Oso bertso onak jartzeko itxaropenik ere ez neukan.

   ______________ nituen ______________ .

3. Abereetarik, edo animalietarik batek ere ez du mintzorik gizonak baizik.

   ______________________________

   ______________ bakarra.

4. Entzun zuena jendearen hizketa marmarioa izan zen, zakurren zaunkaz asaldaturik.

   ______________ asaldatu... ______________

   ______________________________ .

5. Askotan, bertsoak jartzea baino errazagoa ez da izaten gai on bat gogoratzea.

   ______________________________

   ____ bezain ______________ .

6. Euskal Zizeron deitu zioten Sebastian Mendiburu oiartzuarrari darabilen euskara eder eta estilo oparo eta ezin aberatsagoagatik.

   ______________________________ ...la eta

   ______________________________ .

7. Oilarraren kukurruku ozenak haurrak ez beste guztiak iratzarri ditu.

   Haurrak dira ______________________________ .

8. Ezagun da zure buruak ez daukala garai batean zuen indarrik.

   ______________________________ adinako ______ .

9. Ezer esan ez bazidan ere, banindduen maite, nire ustez.

   ______________________________ nago.

10. Argi eta garbi esan zidan Andonik maite ninduela. Harrezkero ez diot behin ere idatzi nahi izan.

    ______________________________ zidan... ______

    ______________________________ .

11. Zoli aurrerantz begira zihoazen txalupakoak, Izaro itsaslehorra jotzeko beldurrez.

______________________________________________

________ ote ______________________________ .

12. Azkar ibili beharko du, lau ordutan Aizarnatik Donostiara etorri nahi badu.

______________________________________________

________________ bada.

13. Lorentxo gauza da tratu onak eta txarrak egiteko.

______________________________ egin __________ .

14. Ez da komeni plazan ibili behar duen bertsolariak bertsoak paperean jartzea.

______________________________________________

_____ jar ________ .

15. Jakinaren gainean jartzen zaituztet, nire miraririk ikusteko itxaropenik ez izateko, ez dut egingo eta.

______________________________________________

izan ______________________________________ .

16. Ana Joxepak egin zion egitekoa: lotan zegoela bizarra moztu.

Ederra ____________________________________ .

17. Etxeko alaba Urretako Martinekin ezkondu zen eta Elizondon bizi da.

Etxeko alaba ______________________ ezkondu ziren.

18. Entzun gure herriak sortu duen gizon handi honi eta ez zaizu damutuko.

Ez zaizu damutuko ____________________________ .

19. Erdaraz jakitea ona duk, euskararen kaltean ez bada.

______________________________________ ezean.

20. Gu Zestoako feriara hilero joan ohi ginen; hilaren azkeneko asteazkenean izaten zen feria.

________________________________ Zestoan ______

______________________________________________ .

## ESALDIAK BERRIDATZI-11

1. Kanpoko atea ireki eta zakurra zaunka hasi zen.

______________________________________________

______ ekin ______________ .

2. Zentzugabeak izan ziren bulego hartan eman zizkiguten arrazoiak.

______________________________ ez buru ______________ .

3. «Nagusia —esan zion—, utzidazu etxeko zaldirik hoberena; gaur gauerako Bagdag honetatik urruti egon nahi dut».

______________________________________________

__________________________________ esan zion nagusiari.

4. Gogoan dut, ongi gogoan ere, aitak bizikleta gorria erosi zidala.

Ez dut __________ nola ______________________________ .

5. Penagarria litzateke edonorentzat, horrelako gizon bat duintasuna eta gizatasuna galduta ikustea.

______________________________________________

________________________________________ ikusteak.

6. Nire azken urteak patxada ederrean emateko ustetan utzi nion lan egiteari, baina, usteak erdia ustel.

__________________________________ ote __________

______________________________________________ .

7. Lurrikara edo horrelakoren batek mugitu ezean, ez zen hura eguneroko siesta gozotik aterako zuenik.

____________________________ ba... ________________

______________________________________________

8. Ezertxo ere esan gabe aulkitik altxa, atea ireki eta Perretxe bordako bidea hartu zuen.

Txintik ________________________________________

________________________________ bideari __________ .

9. Nahiz eta aurpegi aldea ederki marraskatua eduki, aurre ematen jarraitzen zuen boxeolariak.

____________________________ ...gatik ______________

______________________________________________ .

10. New York aldrebeskeria guztien Meka da, grina txar eta drogaren paradisua, eta baita onbidearen gordelekua ere.

______________________________________________

______________ gain ______________________ .

11. Josunek maite duen mutilak hark halako hamar balio du lanerako.

______________________________________________

___ gehiago __________________________ .

12. Arropa garbitzen ari ziren bitartean, iji-ajaka, broma eta jolasetan zebiltzan neskatila haien aurrean ezin beldur zitekeen Ulises.

______________________________________________

______________________ beldurtzerik __________ .

13. Semeak hala galdetu omen dio aitari ‹‹Behia eramanda nola bizi behar dugu gure etxean?››.

______________________________________________

______________________ galdetu omen dio semeak aitari.

14. Azken hamar urteotan gure herria jira-biraka dabil, inon pausatzeko aukerarik gabe.

Badira ______________________________________

______________________________________________ .

15. Etxea hutsik ikusiko dut eta isiltasuna izango da nagusi. Horixe izango da minduko nauena.

______________________________________________

__________________________________ minduko nau.

16. Elurte harekin ia ezinezkoa zen aziendari jaten emateko ezer biltzea.

Nekez ______________________________________ .

17. Pakezale amorratua zara zu eta ekar ezazu baretasuna gure etxera!

________________________ horrek ______________

______________________________________________ .

18. Pentsatzen genuen baino lan gutxiago eman digu etxe zahar hori berritzeak.

Ez digu eman ______________________________ .

19. Telemakо ikuluetara etorri eta aita bera aurkitu ez du, bada!

______________________ horra non ______________

______________________________________________ .

20. Hormaren kontra jarri zuen gizona eta astindu ederra eman zion.

______________________________________________

__________ baita ____________________________ .

## ESALDIAK BERRIDATZI-12

1. Transkribatuta utziko dut Smith jaunak paseo hartan kontatuziguna. Merezi baitu, nik uste.

   Nik uste dut ______________________________

   ______________________________ ...ela.

2. Zintan gelditu zena bere hartan utzi dut gehienetan.

   ______________ gabe ______________ .

3. Honek ere edozein gauza egingo luke ipuin bat kontatzeko aukera izatearren.

   Zer ______________________________

   ______________________________ .

4. Gauero aterako nintzateke paseatzera, baina ikara ematen dit.

   ______________________ emango __________ .

5. Kaleko isiltasun erori horrekin aldizkarietan sarri irakurritakoak etortzen zaizkit gogora.

   ______________________________

   _____ erazten ______________________ .

6. Liernik Beñaten antza du eta Beñatek Liernirena.

   ______________________________ dute.

7. Eta orduan konprenitu nuen zaldi guzti haiek mataderorako zirela, eta handik aurrera ez nuen han segitu izan nahi.

   ______________________ ...tik __________

   ______________________________ .

8. Nahikoa zen sarrerari berari begiratzea etxearen aldaketaren zentzua konprenitzeko.

   ______________ besterik ______________

   ______________________________ .

9. Jestu hura berria zuen. Hogeita hamar urteko pertsona batena baino gehiago, ume urduri batena zirudien.

   ______________________________

   ______________________________ baizik.

10. Erreka ilun zegoen, eta ilun, halaber, pinudiz basitutako mendi zokoak.

    __________ ezezik ______________________ .

11. Fermintxok atabalari izan nahi zuen. Dirua eskas, eta atabala erosterik ez.

_______________ arren _______________

_______________ adina _______________ .

12. Jostun lana utzi behar izan zuenetik, bonbardinoa jotzea zen bere afizio bakarra.

_______________________________________________

_______________ beste _______________ .

13. Txarangakoek noizpait kaleratzen hasi beharra zeukaten; inork ez zien besterik gabe hots egingo.

_______________________________________________

_______________________________ bazien.

14. Potxoliniren ezkontza bi hilabetez aurreratu zuten, txarangaren estrenoa lehenbailehen izateko.

_______________________________________________

_______________ izan _______________ .

15. Aspergarria da beti soldaduskari buruzko lelo berbera entzutea.
Aspertu _______________________________ .

16. Mozkorraldiak, Fermintxo izan ezik, beste guztiak tresnak puzteko airerik gabe utzi zituen.

_______________________________________________

_______________________________ bakarra.

17. Euskadiko Orkestra Sinfonikotik dei egin omen zioten Potxoliniri perkusiojole on bat behar zutela eta.

_______________________________________________

_______________________________ eske.

18. Une batean geldirik geratu zen ate parean, ez aurrera, ez atzera.

_______________________________________________

_______________________________ ...la.

19. Nabari zen oraindik jende aurreko goxotasuna gutxi dastatuta zegoela, gehiago nahi zuela.
Ordura arte baino _______________________________

_______________________________________________ .

20. Donostiako Turismoetxeak Fermintxoren txaranga Japoniara eramateko asmoa zuen.

_______________________________________________

_______________________________ zen.

## ESALDIAK BERRIDATZI-13

1. Eskean ere paregabeak izaten ziren ijitoak.

   ______________________ zuten ______________ .

2. Barrenean poza sentitzen zuen bila etorri zitzaizkiolako. Maite zuten seinalea.

   ______________________________________________

   etortzea ______________________________ bait zen.

3. Egunarekin esnatu ziren, kanpoan lo eginez gero ez bait dago eguna argitu ondoren horretan jarraitzerik.

   ______________________________________________

   ezin ______________________________________ .

4. Zirkora hurbiltzen zen heinean seguruago sentitzen zen egin behar zuenaz.

   Zenbat ______________________________________

   ______________________________________________ .

5. «Niri esker dute gauzek izena» erantzun zion Hitzontzek.

   Berari ______________________________________ .

6. «Ezagutuko zenukeela eskola? Ez dizut horrelakorik opa» esan zidan mutilak.

   Mutilak esan zidan ___________________________

   ______________________________________________ .

7. «Ez nago, ez, erotuta, jauna!»

   ______________________ eginda ______________ .

8. Hego haizea atera zenez, beren asmoa bete ahal izango zutela pentsatu zuten.

   ____________________ eta ____________________

   ______________________________________ zeuden.

9. Ur azaleko aingura bota genuen eta urak nora eraman hara gindoazen.

   ______________________________________________

   ________ ...n aldera __________________________ .

10. «Jaunok, hobe nire esana entzun bazenute, eta Kretatik ez atera».

_______________ entzun eta _______________ .

11. Harrigarria litzateke zuk asignatura hori aprobatzea.

Harrituko _______________ .

12. Nafarroako Gobernukoek esaten didate pena handia dela lanbide honi inork ez jarraitzea.

_______________

_______________ jarraitzailerik _______________ .

13. Egia da herri kirolek apostuei esker dirautela bizirik.

_______________ ez balitz ___

_______________ .

14. Gaur, indarra izatea bezain merituzkoa da lantzea eta saiatzea.

_______________ adina _______________

_______________ .

15. Trumoia denean, erramu bedeinkatuaren hostoak sartzen zaizkio suari, ekaitzaren kalteak urruntzeko itxaropenean edo.

_______________

_______________ uxa _______________ .

16. Zintzo eta jator fama zuen auzoan, baina bazekien bereak eta bi egiten.

_______________ ...gatik ___

_______________ .

17. Etxetik hurbil dagoenez, hemendik bost edo sei minututara irtetea nahikoa huke.

_______________

___ barru _______________ .

18. Izeko moja baten eraginez hasi nintzen lehenengo erredakzioak idazten, hamabi urterekin.

_______________ eragin _______________

_______________ .

19. Ni bederatzi urterekin hasi nintzen organoa jotzen ikasten.

_______ bederatzi urte _______________ .

20. Eta orduan konprenitu nuen zaldi guzti haiek mataderorako zirela, eta handik aurrera ez nuen han segitu nahi izan.

______________________________________________________________

_______________________________________________________ arte.

## 4.4. SINONIMOAK EMAN

**Ondoko testu honetan zenbait hitz azpimarkatuta dituzu. Hitz horien sinonimoak asma itzazu, beti ere testuinguruko esanahia errespetatuz eta atzizki bera emanez.**

**Eredua:** eta eman zion **lagunari** → *adiskideari.*

## SINONIMOAK EMAN-1

Sukaldetik gelara aurre eman eta ama isilerazi nahiz **ahalegindu** zenetan hark ohetik irain samingarriagoez egiten ziola aurre eta murmuriotara bildu zen Tomax, ezentzunarenean, ez zidatek gehiago **deituko,** arrazoi dik amak, aitaren seme izateagatik deitu zitxien, soberan zeudek herri honetan txalupak eta soberago nire tokia betetzera prestatuko litzatekeen jendea ere, Hilario bezalako gehiegi, dios!, nola **demostratu** aurrerantza balio dudana?, adizu, Manuel, prestatuko nintzateke besteek garraiatutako tabako **partiketan** tabernaz taberna ibiltzera, hi isil hadi, Exteban, ez nauk hirekin ari eta, **etekin** **apalagoak** dizkik tabernaz taberna ibili beharrak baina beti izango diat nahi dudanera **bueltatzeko** **okasio** gehiago, ama, ez noa gehiago itsasora, ez da niretzat egina, ama erritaka baina Tomaxek behatz ospelduak sare **zamatsutik** tira ezinik udaberriko gau hotzetan kontramaixua erria! deiadarka hasten zenetan, udako egunsenti argitsuetan berrogei kilotara unak pultsoan **jaso** behar neketsua, hango hura tentsio gehiegi da, ama, patroiak edozein **agindu** ematerakoan tartekatzen zituen irain eta madarikazio ugariak, marinelen arteko ezin eramanak sortzen zituen **sesio** gaiztoak, indarkeria beti **nagusi** kubiertako metro karratu **eskaxetan,** bizkarrezurreko min horrek ez nau bakean **lagatzen,** ama, joan hadi, orduan, sendagileak, oso ondo letorkioke zure bizkarrezurrari, denda batean begiratu eta sendagileari egindako hurrengo **bixitaldi** batean, garestiegi jotzen du ekipoak, han hemenkako lan txikietan lardaskatzen aritu ondoren Extebanek txalupa har zezala agindu zion arte, ea ondo jarraitzen dituan aitaren **pausoak** amak, ea laster egiten naizen ekipo berriaren jabe, ama, eta amak, hain erraza balitz... baina Tomaxek, ondo ikasi teknikak eta aukera ederrak omen daude portuetan, Pasaiakoan **batipat,** helizeak eta gila **hondatuak** konponduz edo **sarri** galtzen diren gorputzen bila itsas eta ibai hondoak arakatuz, ama, bizpahiru ordutako lan horrek etekin gehiago ematen du egun osoko arrantza hoberenak baino, amak barrakoa gertatutakoan, ordea, non geratzen zaizkik hire Pasaiako etekinak?, eta, dios! ama ohetik berriro:

— Ez al duk ezer pentsatu behar?

Tomaxek erantzunik ez gelatik botika usainekin nahasirik zetorkion ahotsari eta amak:

— Ez duk bizitza guztia hemen etxean sartuta pasatzerik pentsatuko, ezta?

Tomax ezentzunarenean, eta orduan eta haserrago amak:

— Ez daukak, ez, aitaren korajerik! Hitzegin ezak gutxienez Extebanekin!

A. LERTXUNDI
*Tobacco Days,* Donostia, 1987

## SINONIMOAK

1. ahalegindu:
2. deituko:
3. demostratu:
4. partiketan:
5. etekin:
6. apalagoak:
7. bueltatzeko:
8. okasio:
9. zamatsutik:
10. jaso:
11. agindu:
12. sesio:
13. nagusi:
14. eskaxetan:
15. lagatzen:
16. bixitaldi:
17. pausoak:
18. batipat:
19. hondatuak:
20. sarri:

## SINONIMOAK EMAN-2

Hura zen gizona, hura!

Zazpi oin t'erdi bai luze, makal zuhaitzaren **irudira** zuzen, bagorik **lodiena** bezain zabal, arte gogorra bezala trinko, gorosti hezearen antzera zimel.

Horrela zen Joanes nik ezagutu nuenean.

Sendoak zeuden **oraindik** artzain zaharraren beso zaintsuak, **txit** azkarrak haren oinak, **zindoak** haren **bularrauspoak**.

Hirurogei t'hamabi **aldiz** ikusi zuen Aloña mendiko hariztietan **hosto** berdea berriro **jaiotzen;** baina ez zion **eramango** hemeretzi urteko mutil batek, ez aizkora **jolasean,** ez burni astuna **jaurtitzen,** ez mendietan gora edo ibarretan zehar **lasterka**.

Kaiku handi bat esne goizean jan, azpantarrez izterrak estali eta makila bat eskuan hartuz gero, **prest** zegoen egun osoan, zein arinago bezala, behorren **atzetik** ibiltzeko edo, neke **askorik** gabe, ardi galdu gaixoaren bila gau guztia **igarotzeko**.

Argiak ziren Joanesen begi gozoak. Ohitua zegoen Joanes zerura eta lurrera, gauez eta egunez, arreta handiz begiratzen; eta inork baino lehenago ikusiko zuen, goi aldetik, hodei arteko arranoaren ibilera **apaina,** edo ia gizon denentzat **estaldurik** zegoen izarraren keinua, eta lur aldean, **lokatz** bigunetako abere oinatza, bide ondotik joan ziren eperren aztarna, sasi mardularen ertzeko erbi ohe zapala, harkaitz zuloetako hegazti harraparien habia, eta han behe-behean ageri zen urlia herriko erloju zahar eta ilun samarra.

TX. AGIRRE
*Garoa* (moldatuta)

## SINONIMOAK

1. irudira:
2. lodiena:
3. oraindik:
4. txit:
5. zindoak:
6. bularrauspoak:
7. aldiz:
8. hosto:
9. jaiotzen:
10. eramango:
11. jolasean:
12. jaurtitzen:
13. lasterka:
14. prest:
15. atzetik:
16. askorik:
17. igarotzeko:
18. apaina:
19. estaldurik:
20. lokatz:

## SINONIMOAK-3

Elizondon sartu zirenean, Land Roverretik jaitsi, gona estuari beheraka tira eta besotik **heldu** zion Martzelinak Domingori. Honek hotel txiki batera eraman zuen. Neska bat aurretik zuelarik bidali zuen Martzelina gelara.

Hoteleko etxekoandreak bete eta **sinatu** behar zituen paperak luzatu zizkion.

— Barkatu, Domingo, badakit ez dudala zure bizitzan sartzeko eskubiderik, baina ez al dizu lotsarik ematen hilero ekartzen duzun emazte **errukarriaz** ahaztu eta emakume **haundiuste** horrekin etortzeaz?

Barre egin zuen Domingok eta **benetako** emaztea goiko gelan zegoen haundiustezko emakumea zuela adierazi.

Afaria beti bezala. Bederatzietan —esan zion zakartasunez etxekoandreak. **Une** hartan eskaileretatik behera zetorren Martzelinari asko atsegin izan zitzaion Domingoren irrifar **lasaia**.

KORNELIOREN AROZTEGIA herritik **gertu** zegoen, herria **zeharkatzen** zuen trenbidearen ondoan. Aita hil zitzaionean bere **bizkar** geratu zen aroztegia ez zuen Kornelioren apustutarako **grinak** galdu. Biak, lana eta apustua, ongi **bereizten** zekiena zen eta ez zitzaizun **sekula** apustu arriskutsuetan sartuko, hori zela eta izan zuen **sarritan** eztabaidarik Domingorekin, eta apustuetako **irabaziez** gero eta metro gehiago **erantsi** zion aitak **utzitako** aroztegiari; bost langile ere bazituen bere **kargu** eta ez zen Kornelio asteko lana edozein modutan uzten zuen gizonetakoa. Inoiz lana utzi behar izaten zuenetan, **etekina** garbia ikusten zuen seinale.

Maiatza zen eta ez zitzaion haize arnasarik **entzuten** gau hedatu berriari.

A. LERTXUNDI
*Hamaseigarrenean aidanez.*

## SINONIMOAK

1. heldu:
2. sinatu:
3. errukarriaz:
4. haundiuste:
5. benetako:
6. une:
7. lasaia:
8. gertu:
9. zeharkatzen:
10. bizkar:
11. grinak:
12. bereizten:
13. sekula:
14. sarritan:
15. irabaziez:
16. erantsi:
17. utzitako:
18. kargu:
19. etekina:
20. entzuten:

## SINONIMOAK-4

‹‹**Esfortzu**›› handi bat egin behar dut, egunetik egunera okerrago nago eta ezin bait dut honela jarraitu. Begira, igandean Baiona ondoko Tarnos-era joango naiz eguna Jaione eta Andonirekin **pasatzera,** nahizeta bat ere **animorik** izan ez. Bai, azkenean badirudi Andonik Lyongo **erbestea** uzteko baimena **lortu** duela eta orain Baionan edo inguruetan etxe baten bila dabil. Jaionek Donostian pasatzen du ia aste osoa eta asteburuetan hara joaten da, senarrarengana. Ia egunero etortzen zait ofizinara bisitan eta gaur **animatu** egin nau hara beraiek ikustera joateko. Goraintziak eman dizkit zuretzat; idatziko dizula dio.››

‹‹Egun-pasa zoragarria izan zen igandekoa Tarnosen. Jaione eta Andoni etorri ziren nire bila autobus-geltokira. Zenbat urrunetsi zintudan egun osoan barrena! Tarnoseko lakuaren ondoan egon ginen bazterrak **ikusten,** bazkaltzen, berriketan, oso gustora. Oso jatorra da Andoni. Gurekin egon ziren, baita ere, harik-eta **lana** eta **pisua** bilatu arte Andoni bizitzen ari den etxeko bi errefuxiatuak, Ander eta Edurne izenekoak, **oso** jatorrak haiek ere. Sei hilabeteko haur zoragarria dute, Amets izeneko poxpolina bat, **inbidia** bat ematen zidaten... Herriko apaiza Andonirentzako lan bila **omen** dabil eta, dirudienez, **nahiko** perspektiba onak ditu elektronika-tailer batean sartzeko, berak peritajea egina bait zuen **gartzelara** sartu eta handik **ihes** egin baino lehen. Ai, zuk ere gartzela horretatik ihes egin ahal izango bazenu... Momentu batzutan pentsatzen dut ez lidakeela bat ere inporta izango ‹‹beste aldean›› bizi behar izateak errefuxiaturik, soldaduzka madarikatu horrek ustel zaitzan baino lehen. Baina ez, nola edo hala **agoantatzea** hobe dugu, **maitia,** ez hasi orain zorakeriatan pentsatzen. Gure lekua, ahal dugun bitartean, hemen dugu, ‹‹alde honetan››, ez ‹‹bestean››.

Damutzen naiz atzoko **gutunean** zureetan erabiltzen duzun tonu maitagarriari buruz esan nuenaz, zeren gaurkoa irakurri dudanean, kabreatu ez dakit baina dezepzionatu behintzat egin bait naiz. ‹‹Soldadu›› bat **bihurtzen** ari zara, ala? Ez dakit, baina nik ez diet inongo graziarik ikusten guardiako garita horri buruz esaten dituzun gusto txarreko **narraskeriei**.

J. A. ARRIETA
*Manu militari*

## SINONIMOAK

1. Esfortzu:
2. pasatzera:
3. animorik:
4. erbestea:
5. lortu:
6. animatu:
7. ikusten:
8. lana:
9. pisua:
10. oso:
11. inbidia:
12. omen:
13. nahiko:
14. gartzelara:
15. ihes:
16. agoantatzea:
17. maitia:
18. gutunean:
19. bihurtzen:
20. narraskeriei:

## SINONIMOAK-5

Garraio entrepesa hartan zoriontsua izan zen hasieran. Laguntzaile **bezala** lehenik eta txofer bezala gero, **laket** zitzaion batetik bestera joatea. **Antxeta** nekagaitz baten antzera, **bidaia** bakoitzean espazio berriak urratzen zituela zeritzon. Baina denborarekin, guzti hura ilusio herren bat zela **konturatu** zen. Izan ere, gorputzetik at bizi zuen espazioaz gain, beste espazio berri bat **ediren** zuen aro hartan: odolaren ibilbideetan zegoen arimaren espazio barrenkoia. Bi espazio hauen artean **beharrezkoa** zen oreka, beharrezkoa **jarraipena.** Eta kamioiaren kabinatik, bi espaziook **uztartzen** ahalegintzen zen arren, sarritan **zail** egiten zitzaion. Batez ere arimaren oihartzunak zentzuzkienean: «**Izadiarekin** bat izan...». Halakoetan, bidean zihoalarik, harantza eta honantza **hedatzen** ziren baratzak zekuskien leihoan zehar. Batean porruak, bestean azak, han-hemenka sailkaturik barazki mota guztiak, gurutzegrama bitxi baten **eitea** hartzen zuen izadiak. Gurutzegrama horretan, lerro horizontal eta bertikalek osatzen zuten sarean **zabuka** aritzen ziren Indalezioren aza eta porruzko ametsak. Amets horiek hain beharrezkoak egin zitzaizkion, **non** egun batez, bere gorputz barneko espazioaren taupada **bihurtu** zirela konturatu bait zen. Egun hartan erabaki zuen baserritar izatea.

— Gero, badakin: kainokada bat... **hanka** galdu... eta izorrai!, zapategiarekin konformatu behar!— esan zion Joxepari.

Hala guztiz ere, **tarteka,** amets zaharraren ezpatak bihotza landatzen zion eta bere irudimena berriro apaintzen zen baserriko barazki eta belar mota guztiekin, amets haren inguruan beste **hamaika** amets dantzatuz: hain zuzen, ezpatabelar baten hostoan irakurriko zuen Indaleziok bere orduko ametsik nahiena:

— Ai, Joxepa, belar hori egiazko ezpata balitz...!

— Zertarako?

— Francori burua mozteko!— eta bere hanka motzari **begiratu** zion. Joxepak ez zekien nora beha.

J. M. IRIGOIEN
*Udazkenaren balkoitik*

## SINONIMOAK

1. bezala:
2. laket:
3. Antxeta:
4. bidaia:
5. konturatu:
6. ediren:
7. beharrezkoa:
8. jarraipena:
9. uztartzen:
10. zail:
11. Izadiarekin:
12. hedatzen:
13. eitea:
14. zabuka:
15. non:
16. bihurtu:
17. hanka:
18. tarteka:
19. hamaika:
20. begiratu:

## SINONIMOAK-6

Gau hura **gaizki** igaro zuen. Amets **pisu,** izukorrak egin ondoren, **izerdi patsetan iratzarri** zen ordu bata aldera. Loak hartu ezinik, bizpahiru orduz esna egon zen. Luzeak joan zitzaizkion ordu haiek.

Bere burua **garbitu** ote zuen Berroeta neskameak? Edo eta beste batek eman al zion pozoina? Hara **koska.**

Azkenean berriz ere loak hartu eta ez zen esnatu goiz-berandu arte. Jantokira jaitsi zenean, bi eserlekutan, elkarren **ondoan** eserita, Galarreta gosaltzen eta ostalaria mintzatzen ikusi zituen.

Galarreta inoiz baino gorriago eta serioago zegoen. Ostalariak, berriz, **bekokia** zimurtuta zuen, hertsia, bere **garunetako** gogoetek ihes egingo ziotelakoaren beldur, agian.

—**Aski** lo egin al duk? Ni Iruñetik etorri, guardazibilekin, sendagilearekin, alkatearekin eta ez dakit zenbat gehiagorekin hitz egin dudan eta hi ohean!

Galarretaren ahotsean haserre puntta bat **nabari** zen. **Kaskarraldiren** bat bazuen Iruñeko polizia **nagusiak.** Holakoetan ohi baino ipurterreago eta xaloago egiten zen.

Alde egiteko **keinu** bat egin zion ostalariari.

**Urduri,** kafeari azken zurrupada eman, ahozapitxoa mahai gainean utzi eta jaikirik, jantokian joan-etorri batzu ezker-eskubitara egin zituen, esan beharrak **errazago** ixurtzeko, **nonbait**.

Bidarti barre egiteko gogoa eman zion. Gau txar baten **ondoan** holako teatrotxoek poza ematen zioten.

— Dionisio, ikusten diat esatekoren bat kolkoan duala. Holako auziak urdailutsik **entzuteak** kalte doblea egiten dik. Zer moduz gosaria ekarriko balidate?

— Hemen izan duk ostalaria. Esaiok ...

Ez zen esan beharrik izan. Sorgin ipuinetan bezala, han agertu zen ostalaria gosariarekin. Zelatan egona zen, noski.

— Hona hemen gure gizona.

**Azpiltxo** batean bi arraultza egosi, kafe hutsa, gurina, mermelada, ogia eta sagarrak. Dena mahai gainean utzi eta alde egin zuen. Gogoz ekin zion detektibeak. Hark jan bitartean ez zuen Galarretak ahoa zabaldu.

G. GARATE
*Goizuetako ezkongabeak,* 1979.

## SINONIMOAK

1. gaizki:
2. pisu:
3. izerdi patsetan:
4. iratzarri:
5. garbitu:
6. koxka:
7. ondoan:
8. bekokia:
9. garunetako:
10. Aski:
11. nabari:
12. Kaskarraldiren:
13. nagusiak:
14. keinu:
15. Urduri:
16. errazago:
17. nonbait:
18. ondoan:
19. entzuteak:
20. Azpiltxo:

## SINONIMOAK-7

Nondik zetozen eta zeinenak ziren **igarri** ezin nien garrasi hotsek **esnatu** ninduten 1960ko abuztuaren 15eko goiz basuratsu hartan. Ikuiluko abereak, ganbarako usoak eta oilategiko hegaztiak etorri zitzaizkidan nahasian gogora. Ohetik **itsumustuan** **salto** egin eta noraezean aurkitu nintzen kuartoko atea **atzeman** nuenean. Lau lekutan batera egoteko ahalmena eskatuko niokeen pozik, zezakeenari, etxearen lau ertzak aldi berean **miatu** ahal izateko. Baina ez nuen horren beharrik izan, istant batean elkartu bait ginen baserriko trantzitu luzean hiruzpalau lagun. Anaia zaharrenaren **esanera** isil eta geldi jarri ginenean, ohartu ginen katuaren marru eta zalapartak zirela. Denok batera **bota** genuen: ‹‹Gaztandegian ematen dik›› ››.

Katakume zuria basoan jaio zen. Ez dakigu juxtu noiz eta zein lekutan. Esan dezakeguna da, maiatzaren azkenaldera ikusi genuela **lehenengo** aldiz. Katamarekin ikusi ez bagenu, ez ginen **jabetu** ere egingo gurea zela. Ez bide zuen seniderik katu zuriak. Bakarrik agertu zen **behintzat.** Agian, basoko giro gogorra eraman ezinik **akabatu** zitzaizkion senideak. Edota piztiaren baten atzaparretan galdu zuten bizia beste guztiek. Nork daki?

Katakume zuria zuri-zuria zen. Bestela ez nion zuria deituko. Pelutxezko katu zuri horietakoa zirudien. Ile handi eta dizdiratsua, **isats** luze eta dotorea, eta begi urdin-urdinak. Pausaje lazoa eta bizia, biak, zituen maite. Nik ezagutu nuenean, bere manotxoarekin biboteak orrazten ari zen pikotxeko jarrita. Ehizean ere **barrundatu** nuen inoiz, adi-adi, hiru hankan, xaguren bat noiz **azalduko,** munduko eskulturarik ederrena baino ederrago, belardiaren berdearekin kontraste eginez.

Buruaren forma eta ‹‹miau›› egiteko moduarengatik esan beharko nuke arra zela; esatekotan, ez bait nuen eskuan hartzerik inoiz lortu. Basoko bizitzak eman litzakeen **izukeria** guztiak berekin zituen. Nolako eginahalak egin nituen nire lagun izateraino mantxo zedin, baina bai zera! Ez zen, ba, asko eskatzen nuena. Ez nion **txarrik** **opa.** Laztandu egin nahi nuen soilik. Haren ile zuriz aurpegia igurtzi besterik ez. Bibotean **musu** ematea, gehienez ere. Guztia kunplitze aldera atzapar-arrasto bat egin izan balit ere ez zitzadakeen axolako. Igurtziaren **plazer** gozoa ukatu egin zidan katakume zuriak.

R. IRAOLA GARMENDIA
‹‹Katakume zuria››. *HABE,* 102 zkia.

## SINONIMOAK

1. igarri:
2. esnatu:
3. itsumustuan:
4. salto:
5. atzeman:
6. miatu:
7. esanera:
8. bota:
9. lehenengo:
10. jabetu:
11. behintzat:
12. akabatu:
13. isats:
14. barrundatu:
15. azalduko:
16. izukeria:
17. txarrik:
18. opa:
19. musu:
20. plazer:

## SINONIMOAK-8

Neguko arratsalde hotz batez, **aldapa** luze bat igo eta indiano aberatsen batek mendian **egindako** palazioaren sarreraraino iritsi nintzen. Nahiz eta lekua, lehen begiratuan behintzat, **nornahik** ederra deitzeko modukoa izan, harri labratuzko hesiduna eta lorategi zabal batez **hornitua,** desatsegina egin zitzaidan segituan. **Hezeegia, ilunegia.** Baina heze, ilun eta guzti, ez zatekeen paraje malenkoniatsu eta saturniar bat baino ezer gehiago izango baldin eta zapuztua ere egon izan ez balitz. Ordea zapuztua, bortxatua, **helburuz** aldatua zegoen, eta nahikoa zen sarrerari berari begiratzea aldaketa horren zentzua konprenitzeko; ezen altzairuzko ate berri eta zatar batek itsutzen bait zuen indianoak, «capriccio» haundiz, hesiari egindako arku-txinatar kutsukoa edo-fantasiatsua.

Jantzi txuriaren gainean abrigo urdin ilun bat zekarren erizain batek **eten** egin zizkidan arku hari buruzko **gogoetak.** Lagun bat neukala han, adierazi nion, eta bera bisitatzeko asmoz joan nintzela. Soinean neramala familiaren **baimena,** lagunaren amak **izenpetua.** Baina hotz gehiegi egiten zuen formulismotarako, eta, lorategian barrena, edifiziorantz gidatu ninduen zuzenean. Pasaeran arrosategiak ikusi nituen, tenis zelaiak, **arkaitzean** egindako **kobazuloak zeharkatzen** zituzten errekatxo artifizialak; guztiak **utzita** lahar eta osinez beteak.

Etxea bera —«neobaserri» bat— zainduagoa zegoen, baina eranskin munstruos batzuk zeuzkan leiho pertsiana berdekoetan; bere gordintasunean utzitako barrote burnizkoak. **Aurrena,** inork **aldegin** ez zezan jarritakoak zirela **otu** zitzaidan. Baina areago pentsatu eta helburu larriago bat zeukatela **konturatu** nintzen; inork burua leiho haietatik **bota** zezan galeraztekoa, alegia.

B. ATXAGA
*Obabakoak.* Donostia 1988

## SINONIMOAK

1. aldapa:
2. egindako:
3. nornahik:
4. hornitua:
5. Hezeegia:
6. ilunegia:
7. helburuz:
8. eten:
9. gogoetak:
10. baimena:
11. izenpetua:
12. arkaitzean:
13. kobazuloak:
14. zeharkatzen:
15. utzita:
16. Aurrena:
17. aldegin:
18. otu:
19. konturatu:
20. bota:

## SINONIMOAK-9

Etxean, anaien artean, Puck deitu izan diogu beti Torrente Ballesterri. Arrazoi bat edo bazen horretarako. Puck zen, telebistako Maya erlearen lagun eulia, bi begiondo beltz zituena. Torrente Ballester gizarajoak bere **antiaju** beltz kengaitz horiekin euli sinpatiko haren oroitzapena zekarkigun.

Esango nuke, garaikide izan zirela gainera Puck eta Torrente Ballester; bat gure bizitzatik **irteten** ari zela sartu zen bestea «La saga fuga de J.B.»ren **itxura** hartuaz. **Ordutik, adio** euliari, idazleari ongi etorri. Nire lagun batek, gaztaroko **imajin** mugarritzat hartzen du senar zenaren zakila pote batean gordea zeukan **emazte** gajoaren hura. Oraindik ere begiek diz-diz egiten diote adiskideari, San Genaroren odola bailitzan zakilak berriz noiz bizitza hartuko itxaroten zuen andrearen istoriaz **gogoratzean**.

Orain, mundua eskuetan zeukanak Planeta **konkistatu** du hogei milioiko saria barne. Nire **eritzirako** ondo egin du gainera. **Joandako urtean** bere izena ahotan erabili omen zen faboritoetarikoa zela eta ez zela. Alferrik ordea, ez zuen **obrarik** aurkeztu ere egin eta. Orduan bururatu zitzaion, **aidanez,** aurtengorako bat aurkeztea, total, aurkeztu **nahiz** ez, bere izena **hitzetik hortzera** ibiliko bazen ...

**Egileak** dioenez, **nobela** irabazteko pertsonaia Filomeno da izenez, eta izenarekiko desadostasuna izango da munduarekiko dituen **gatazken** lehen arrazoia. Zenbat guraso meketrefe dagoen ikuspegi horretatik! Gainera, izen kontua sehaska-sehaskatik datorren gauza da, eta inork ez du izena berak nahi duena, ingurukoek onartzen diotena baizik. Lehendik Javier zena alferrik izango da Xabier txikiteoan edo lagunartean etxera joan eta amona Javier gora eta Javier behera badabilkio.

Filomenoren pentsakeraren haritik **errazago ulertzen** da Napoleon, Fidel, Buenabentura edo Eustakioren iraultzarako egarria eta adorea.

A. EGAÑA
El Diario Vasco. *Zabalik,* 88-10-19

## SINONIMOAK

1. antiaju:
2. irteten:
3. itxura:
4. Ordutik:
5. adio:
6. imajin:
7. emazte:
8. gogoratzean:
9. konkistatu:
10. eritzirako:
11. Joandako urtean:
12. obrarik:
13. aidanez:
14. nahiz:
15. hitzetik hortzera:
16. Egileak:
17. nobela:
18. gatazken:
19. errazago:
20. ulertzen:

## SINONIMOAK-10

Beltran-en hitz zorrotzek **ikaraturik** utzi zuten Otxanda. Konturatu zen bere **pausoa** ausartegia izan zela, desafio **zoro** bat, alegia, eta Usoaren kontra —amorrazio hutsez— hain nabarmen jokatuz, bere burua galdu besterik ez zuela egingo. Uste izan zuen bere joko maltzurrez —**erdietsi** zituen bi aitortzen bidez, hots, Matxinena eta Usoarena— Beltrani Usoaren gaiztakeria sinestaraziko ziola eta, era honetara, bere alaba **kuttunaganako** amodioa **erauziko** ziola, auzia bere alde irabaziz. Alabaina, ohartu zen Beltranek ez zuela «alea» irentsi, edo, nolanahi ere, zalantza handitan gelditu zela bere kontakizunaz. Beraz, taktikaz aldaturik, **amultsuki** ez baldin bazen ere, bederen normalki eta gizalegez portatzen hasi zen Usoarekin.

Bestalde, Beltranek, Usoak egia kontatu zionez geroztik, bere **andrearekin** **serioski** hitz egitea erabaki zuen. Bere alabaren **eskabidez**, ez zion aipatuko egun triste hartan gertatutakorik, baina bai **aditzera eman** oso mindua zegoela Usoari ematen zion tratuaz, eta espero zuen bere akar egiteak **frutu** onik ekarriko zuela. Horrelaxe ba, haurrak oheratu eta gero sala nagusian bakarka zeuden arrats batean, honelatsu eraso zion senarrak emazteari:

— Otxanda: Usoarekin nola portatzen zareten oso **kezkaturik** nago, bai zu eta bai hiru seme-alabak. Badirudi laurok **konponduta** zaudetela Usoari ezin bizia jartzeko.

— Baina, Beltran, nola esan dezakezu horrelakorik? Nik behintzat, Usoa beste seme-alabak bezala tratatzen dut.

— Beharbada azken bolara honetan. Baina orain arte asko **sufritu** du Usoak zuengandik. Ez duzu ukatuko begien bistan dagoena.

— Begien bistan? Ez ote zara ametsetan ari, Beltran? Gogoratzen naizelarik, behin bakarrik hartu dut gogor Usoa, alegia, Matxintxo odoletan zerraldo utzi zuenean. Eta ez al nuen mutiburik horretarako? Ez al zuen nik eskatutako **kastigurik** merezi?

— Begira, Otxanda: Jainkoarren, ez iezadazu **pasadizu** triste horretaz hitz egin, baldin gu bion ezkontza elkartasuna arriskuan jarri nahi ez baduzu behintzat. Jakin ezazu ez nagoela beleen atzaparretan **erortzen** uzteko ene alaba, eta espero dut honetaz **aurrera** laurok hobeto portatuko zaretela Usoarekin, zeren, hala ez izanik, zuek edo guk Alostorreatik atera beharra izanen dugu. Konprendituko duzunez, ez nuke muga triste horretara iritsi nahi, inolaz ere. Nik denok maite zaituztet eta denokin bakean eta amodio onean bizi nahi dut. Ez dezagun, bada, gure mainadaren zoriona **desegin**.

J. ETXAIDE.
*Usoa Alostorreko,* Donostia, 1981

## SINONIMOAK

1. ikaraturik:
2. pausoa:
3. zoro:
4. erdietsi:
5. kuttunaganako:
6. erauziko:
7. amultsuki:
8. andrearekin:
9. serioski:
10. eskabidez:
11. aditzera eman:
12. frutu:
13. kezkaturik:
14. konponduta:
15. sufritu:
16. kastigurik:
17. pasadizu:
18. erortzen:
19. aurrera:
20. desegin:

## SINONIMOAK-11

Orain, hogeitabost urte ditudanean, zazpi urtetako memoriak gertaerak gogoan jasotzeko ematen zidan **trinkotasunez** gogoratzen dut abuztuko iluntze izartsu hartan, Vigo inguruko Cangas herriskan, ‹‹La Fueira›› tabernako terrazan, gure amari jazo zitzaiona.

Gure aita galiziarra izateak beti zuen pisua oporrak non igaro erabakitzeko orduan. Urte hartan ere erabakiorra suertatu zen zirkunstantzia hori. Gure aitak, sorterria **goraipatzen** hasten zenean, ez zekien noiz gelditu: hango zeru urdina, erreka **gardenak,** mendietako lore eta basoetako zuhaitzak! Hirien txukuntasuna eta kutsadurarik eza jartzen zituen gauza guztien gainetik. Benicasima edo Torremolinosa joateko ipintzen genituen argudioak ez zituen **aintzat hartzen.** Kaxkarrak ziren eta ez zuten oinarri sendorik haren ustez. Galiziara eta kitto!

‹‹Patria Galega››ren edertasunak paregabeak ziren gure aitarentzat. Eta behin baino gehiagotan **barrundatu** nuen gure ama ‹‹hala ere, hona etorri zinen, ba›› esateko gogoarekin. Baina izuak hitza itotzen ziolako edo, hari merezi zuena esatea errugabeko galiziar askori ofentsa egitea zelako, ez zion inoiz ere alde horretatik hizpiderik ematen.

Egia esan, arrats hartan edertasun hori eztabaidatzen hasi izan balira, aitari arrazoia eman beharrean aurkituko nintzatekeen. Izan ere, hura gauaren zoragarria! Zerua guztiz oskarbi ageri zen, inon ere laino lausorik gabe. Izarrek dir-dir zegiten ortzean, gauaren edertasuna **areagotuz.** Haize epela jostalari zebilen, inguruko zumar eta makal garaien hostoei soinu harmoniatsua atera eraziz. Ilargiak ere ezin uko egin bere aurpegi borobil betea erakusteari! Haren pean, handik metro gutxitara, bertako hondartzarik erabilienean, gaubainu-zaleen gorputz biluzien erainuak isladatzen ziren, **olatuen** soinu eta konpasen arauera higituz eta haien esanera ager eta desagertuz. Las Cies **irletan** piztu eta itzali zebiltzan argi gorri eta moreek ematen zioten osotasuna giroari, aspektu idilikoa hartzen zuelarik.

Haizearen hega-burrundarak guri entzuten uzten ez bazigun ere, aldameneko zelaian, amodioaren arbolatik fruituak dastatzen eta **murmurio** eta garrasi plazerezkoetan **iraulika** arituko ziren hainbat eta hainbat pareja, mila forma eta postura diferentetan, ernetzeko desiorik gabe hazia **jaulkitzen.** Azkeneko hau oraingo pentsamendua dut noski. Orduan ez nintzen horrelakorik pentsatzeko gauza.

Ez zuen inork alboko terrazan gertatzen ari zenaren **gupidarik.** Gu ginen gau eder haren kontrastea. Gu ginen argirik gabeko izar bakarra; gu, ilargi betearen belunea.

Dena nire erruz gertatu zela pentsatzeak nau zeharo **minberatzen.** Treneketan jostatzen ari nintzen bakar-bakarrik aitarentzako zerbeza, ama-

rentzako coca-cola eta niretzako kasa ekarri zizkiguten basoekin. Mahaiaren ertz batetik bestera jaurtitzen nituen, trena osatzen zuten bagoiak zirela imajinatuz. Halako batean, mahaiaren hankan **kateaturik** edo, egin nuen estrapuza (...). Pena handiz ikusi nituen banatzen hiru edalontzien kristal finak, pentsa daitekeen formarik arraroenetan **sakabanatuz**.

Erreakzionatzeko ere **betarik** gabe, heldu zioten aitaren esku atzapartuek amaren **adats** beltz modan orraztuari, nire okerra berari egozten zion seinale. Eta, lehenengo astindu bortitz horren ondotik, terrazaren bestaldeko hormaren kontra bota zuen. Eskuez eutsi nahi izan zion kolpeari gure amak. Aitak, iskanbilaren erdian anaia txikia eta biok **galtzarbe** banatan harturik, ihesari eman zion, terrazan bildutakoen artetik areriozko oihuak jasotzen zituen bitartean. Nik neronek ozta-ozta ikusi nuen ama bazterraren kontra **erortzen**. Entzun nuen danbatakoa hobeto gogoratzen dut. Ostikoka ez nintzen gelditu aitaren galtzarbetik aldegin arte. Harik eta nirearekin irten arte, eztarria urratzerainoko garrasiak egiten nituen. Lekukoek hezurrak hautsiko ez bazizkioten, semea ere utzi beharrean gertatu zen aita.

Amari, hurbildu nintzaionean, oinazea zerion **kopetatik** tantaka. ‹‹Asko al duzu, ama›› galdetu nionean, ‹‹ez, umea›› ihardetsi zidan. Badakit zergatik. Konprenitzekoa zen. Atzerritar tankerako andre ilegorri batek anaia guregana helerazi zuenerako, bertantxe egokitu zen mediku batek ama behatua zuen. Eskafoides hezurra hautsia zuela diagnostikatu zion.

R. IRAOLA
*HABE* aldizkaria, 144. alea. (moldatua)

## SINONIMOAK

1. trinkotasunez:
2. goraipatzen:
3. gardenak:
4. aintzat hartzen:
5. barrundatu:
6. areagotuz:
7. olatuen:
8. irletan:
9. murmurio:
10. iraulika:
11. jaulkitzen:
12. gupidarik:
13. minberatzen:
14. kateaturik:
15. sakabanatuz:
16. betarik:
17. adats :
18. galtzarbe:
19. erortzen:
20. kopetatik:

## SINONIMOAK-12

**Dardarizoka** aritu zitzaizkion **kristalezko** laukiak ate sendoari Tomaxek Etxetxo taberna **utzi** eta kairako bidea hartu zuenean. Zeru grisak **tristetzen** zuen plazaldea zeharkatu eta itsas gorari esker moilara parekatua zegoen bere txalupa gorrira egin zuen **salto.** Popaldeko ohol zabal baten azpian zuen bonbatxo grasatua erroparen gainetik jantzi eta motorraren prestakerara hasi zen. Ongi zeuden berean giltza batez **sendoago** lotu zituen bujiak, primeran pistoiak ere. Ez zeukan motorrak olio faltarik. Gasoil depositoan **nahiko** errekin bazeukala garbi ikusten zen arren, berriro ere popaldeko ohol zabalpetik lata bat hartu eta **topetaraino** bete zuen depositoa.

Ondoren, behin eta berriro frogatu zuen motorra: martxa eragiten zion sokatik tira eta zurrunbiloka hasi zitzaion popaldea urgain grisaxkan olatuxka zalapartatsuak sortuz, **itzaldu** berriro popaldeko urgaina gasoilaren kolore gorri-urdinsketan baretuz eta martxan jarri zuen berriro, indartsuago azeleratuz...

Arnasa sendo hartuz motorra **primeran** zeukala ikusi zitzaionean, untziaren hondoan zegoen ur **gutxia** txikatzen hasi zen plastikozko ontzi hondatu batez. Jasotako ura ibaira botatzen zuen bakoitzean urradura xumez hornituriko marrazkiak tajutzen, biltzen eta geroxeago desagertzen zitzaizkion gasoilaren tonuak galduak zituen urgain grisaxkari.

Ibaiak itsasoarekin bat egiten zuen barra aldera begiratu zuen. **Laino** beltz, mardulak **zintzilikatzen** zitzaizkion zeru astunari eta itsasoak sortarazten zituen olatu **bortitzek,** behin ibairatzean **apaldu** egiten baziren ere, olatuxka **xumeetan** kulunkatzen zuten Tomaxen untzia moilaratzen ziren guztietan.

—Mekaguen! —bota zuen bere kasa **mintzatzera** ohiturik zegoen Tomaxek—. Behin itsasoratu beharko gauez eta bertan a ze itsasaldia egokitu behar zaigun!

Ordulariari begiratu zion ondoren. Zazpiak eta hogeitabost elizako kanpaiek zortziak laurden gutxi **luzatu** zituzten une berean.

—Hemendik aurrera ordulari **egoki** bat erosteko aukerarik izango al diat behintzat!

Berriro ere bere kasa, inguru guztia **miatu** zuen begiradaz baina ez zen inor ikusten bere itsasuntziaren ondoan zeuden gainerantzeko txalupetan, «bere kasa arituko ez balitz, marinel zuhurrena ere erotuko huke», aita zenari sarritan entzuna baina «ez duk hura txantxetakoa, behin gau beltzak harrapatzen hauenean ez haiz ezertaz oroitzen», Extebanek lan eske joan zitzaionean botatakoa.

Burua astindu zuen, oroimenak uxatu nahi izan balitu bezala.

A. LERTXUNDI
*Tobacco Days,* Donostia, 1987

## SINONIMOAK

1. Dardarizoka:
2. kristalezko:
3. utzi:
4. tristetzen:
5. salto:
6. sendoago:
7. nahiko:
8. topetaraino:
9. itzaldu:
10. primeran:
11. gutxia:
12. Laino:
13. zintzilikatzen:
14. bortitzek:
15. apaldu:
16. xumeetan:
17. mintzatzera:
18. luzatu:
19. egoki:
20. miatu:

## SINONIMOAK-13

Hiru hilabetero bidaltzen zizkigun Antoniok bere notiziak, baina ez lerro askotan, gero eta lerro gutxiagotan egia esateko, baina hala eta guztiz ere etxeko guztiak konforme geunden, nahikoa genuen bizirik segitzen zuela jakitearekin; ama batez ere oso beldur izaten baitzen, hura beti ezbeharraren **esperoan,** halako andre klasea zen, ez zekien **lasai** bizitzen. Baina **gertatu** zen Antonio nekatu egin zela, edo ez zuela betarik hartzen karta egiteko, edo auskalo zer, eta gauzak hola gero eta tarte haundiagoarekin eskribitzen zigun, eta azkenean batere eskribitzen ez zuela jarri zen. Etxeko gizonok horretara ere ohitu ginen, Antonioren ixiltasunera, baina gure ama ez, eta nola ez baitzen ohitu bada **egundokoak** pentsatzen hasi zen, eta Montevideo aipatzea infernuko sua aipatzea baino okerragoa zen berarentzat. Eta **okerrena** zen kartazaleari **botatzen** zizkiola erru guztiak, eta ez ziren gauzak pentsatzeari ekin zion, esaten zuen kartazaleak ez zizkiola Antonioren **notiziak** ekarri nahi, herrian bertan erretzen zuela papera gure etxerainoko bidea ez egitearren, eta guk ezetz, ez esateko **txorakeriarik,** uzteko kartazalea bakean, baina alferrik izan zen, halaxe segitu zuen amak burutik zeharo nahastu zen arte. Eta orduan, nahastu zenean alegia, gure **kontra** ere jarri zen, eta sekulako begirazoak botatzen zizkigun sukaldean sartzen ginen bakoitzean, eta zera esaten zigun, guk gordetzen genizkiola kartak Antoniori genion **inbidiagatik,** Jainkoaren kastigua ere bazela halako jende **zimaurraren** artean gertatu izana, eta horrelakoak eta okerragoak entzun behar izaten genituen isil-isilik, eta pena haundia hartzen genuen denok, eta hala esan zigun behin aitak anaia Joxe eta bioi, aizue semeak, ikusten duzue nola dagoen etxeko andrea, eta andre hori zuen ama duk, eta lan asko egin dik zuen alde, eta ez diozue **amorraziorik** hartu behar, ez nikek holakorik nahi gure etxean; eta Natalio zaharrak ere gauza bera esaten zigun, **ez hartzeko aintzat** amaren **juzku** txarrak eta **gainerako** sospetxeriak. Natalio zaharra kanpotarra zen izatez, baina etxeko egiten zitzaigun **minako garaietatik,** gure tabernan sartu zenetik, eta eskola haundiko gizona zen, eta anaia Joxeri eta bioi hitzegin bitartean burua astitzen zuen **etsita** bezala, eta gure amarena neurastenia zela esaten zuen, gauza alua, gauza benetan **zaila,** inongo medikuk **sendatuko** ez zuena. Baina halere petrikiloa ekarri genuen, baina alferrik, ez zion ezer berririk asmatu, eta halaxe esan zuen gizon hark, bizi nahi balu biziko litzateke baina andre honek ez du bizi nahi eta zuek jakingo duzue zer egin diozuen, eta guk orduan ixiltzeko esan genion, ez zela batere zuzen ari, guk ez geniola ezer egin, eta ea zer uste zuen, ea bera gu baino gehiago al zen, eta halaxe joan zen gure etxetik, erdi haserre, eta bera joan eta handik astebetera ama txito bat bezala kuxkurtu zen sukalde bazterrean, eta begiak itxi eta joan egin zen mundu honetatik.

B. ATXAGA
*Obabakoak*. Donostia, 1988

## SINONIMOAK

1. esperoan:
2. lasai:
3. gertatu:
4. egundokoak:
5. okerrena:
6. botatzen:
7. notiziak:
8. txorakeriarik:
9. kontra:
10. inbidiagatik:
11. zimaurraren:
12. amorraziorik:
13. ez hartzeko aintzat:
14. juzku:
15. gainerako:
16. minako:
17. garaietatik:
18. etsita:
19. zaila:
20. sendatuko:

# 5. ERANTZUNAK

# AHOZKOAREN ULERMENA

| | | 1 | 2 | 3 | 4 | 5 | | 6 | 7 | 8 | 9 | 10 |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| AHOZKOAREN ULERMENA | 1 | b | c | a | b | b | | d | c | c | b | b |
| ›› ›› | 2 | a | a | b | a | c | | c | d | a | c | a |
| ›› ›› | 3 | b | c | a | c | b | | c | a | b | d | b |
| ›› ›› | 4 | b | b | a | d | c | | c | d | d | d | b |
| ›› ›› | 5 | b | c | d | b | d | | a | d | a | b | c |
| ›› ›› | 6 | c | b | d | d | a | | b | d | a | b | a |
| ›› ›› | 7 | d | a | c | a | c | | b | d | b | c | d |
| ›› ›› | 8 | c | d | a | b | c | | b | c | b | a | c |
| ›› ›› | 9 | c | a | a | d | c | | c | d | b | a | b |
| ›› ›› | 10 | d | b | b | a | b | | a | b | a | b | c |
| ›› ›› | 11 | c | d | a | b | c | | b | a | d | b | b |
| ›› ›› | 12 | d | c | a | b | d | | b | d | a | c | b |
| ›› ›› | 13 | b | a | c | d | b | | d | b | b | c | d |

# IRAKURMENA

| | | 1 | 2 | 3 | 4 | 5 | 6 | 7 | 8 | 9 | 10 |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| IRAKURMENA | 1 | b | d | c | a | d | a | b | b | d | d |
| ›› | 2 | b | c | a | d | c | a | d | b | b | c |
| ›› | 3 | c | d | d | c | a | c | c | b | d | c |
| ›› | 4 | d | b | a | c | c | b | b | a | d | d |
| ›› | 5 | a | c | b | c | c | a | b | c | b | c |
| ›› | 6 | c | b | b | d | a | b | a | c | d | d |
| ›› | 7 | d | b | b | a | b | a | d | b | d | a |
| ›› | 8 | c | d | b | b | a | d | d | d | a | b |
| ›› | 9 | d | b | a | d | d | b | b | d | d | d |
| ›› | 10 | c | a | a | c | b | d | d | b | b | b |
| ›› | 11 | c | d | d | a | b | b | d | c | a | b |
| ›› | 12 | b | a | b | a | d | b | c | b | d | d |
| ›› | 13 | b | b | d | a | b | a | c | b | c | d |

# ESALDIAK BERRIDATZI

Honako hauek erantzun posible batzuk besterik ez dira. Beste batzuk ere onargarriak izan daitezke.

## ESALDIAK BERRIDATZI-1

1. Haurrak ez zituzten eramaten txertatzera txertoan sinisten zutelako, osasun-agiria eskuratzearren baizik.
2. Lehen ere esan dugu guraso asko ez zirela/zela txertoaren zale.
3. Perretxe bordako jabea zen Olaetako Andresengana joan zen bezperan Leandro.
4. Gertatutakoak gertatuta, zer etor lekiguke/dakiguke/daiteke okerragorik?
5. Txistuz ondo-ondo bustitako mukizapiarekin garbitzen zioten haurrari txertoaren zauritxoa, txertoak indarrik har ez zezan.
6. Berak irakatsi zidan zauri bat sendatzeko, odolaren isuria baino gauza hoberik ez zela munduan.
7. Yesako pantanoaren bitartez lur sail haundiak bustitzen dira: lurrak ere jan eta edan egin behar baitu, itxurazko etekinik emango badu.
8. Ez dut gerizondoaren enbor moztua lore txuriz inguratua ikusten, terralez inguratua baizik.
9. Borda hura erosi nahi zuela entzuteak txundituta utzi gintuen.
10. Borda hori suntsitzekotan aspalditik zebilen Fabian.
11. Osabak esaten zidan bera bezalako tontotzarra izan nahi ez banuen/izan ez nendin gogor estudiatu behar nuela/estudia nezala.
12. Harrigarria da komikigintzarekin zerikusi zuzenik ez duen erakunde bat komikigintzaren merkatuan aitzindari bihurtzea.
13. Sinets ote daiteke irribarre horren atzetik euskal esamolde adierazkorren biltzaile bat dagoenik?
14. Domekan jakin ahal izan nuen Juxto giltzapetik atera zela.
15. Perretxerako bidean ez genion elkarri hitz gehiago/hitzik esan.
16. Auzunekook aho zabalik utzi gintuen borda saldu zioneko berriak.
17. Beste gizon bat izan omen zen Fabian salmentaren tratua sinatu zenetik heriotza nagusitu zitzaion arteko hiru egun haietan.
18. Zenbat hogerleko ez ote zizkion eskaini hori lortzeko!
19. Nahiz eta lanbroa (hasi eta) berehalakoan atertu, bideko harriak busti ditu.
20. Edertasuna ezezik probetxu izugarria duen obra egin zuten noizbait.

## ESALDIAK BERRIDATZI-2

1. Hain nekaturik nengoenez gero, loak hartu ninduen!
   Hain nekaturik nengoen, non loak hartu bait ninduen!
2. Tapaki gehiago behar da oheetan etxekook hotzak akabatuko ez bagaitu.
3. Txipiroi frijituen usaina usnatu ahala listuz betetzen zitzaion ahoa.
4. Horrela mintzatu zen, gerrak gorputzean zehar utzi zizkion orbainak harroki erakusten saiatzen zelarik.
5. Burutsuenek ziotenez arrotza azaldu zitzaigun bere zurezko maleta hartuta ifarra sartu zitzaigun ilunabar hotz batean.
6. Telebistak izan du boxeoa behera jaistearen erru guztia, 1980an utzi bait zion boxeoa emateari.
7. Ateraldi egokiak eta farre noiznahi egiteaz gain, bertsotan ere txukun egiten zuen hark.
8. Nekez harrapa zitekeen hura gezurretan.
9. Ez zait, ez ahaztuko egun hartako sargoria.
10. Nork pentsa (zezakeen) orduan Blas gexal samarrak leizezulo hartan galduko zuela hilabete geroago bizia?
11. Gure jendeak inoiz ez du jakin arrotza nola etorri den herrira.
12. Eta ni, beti osabak hori noiz esango (zuen) zain egoten nintzen.
13. Ukabila bezain handiak dira gereziok.
14. Ez da erraza amaitu berria den hitzaldi horretan entzun ditugunak sinestea.
15. Gutxi dira hegoaldean iparraldeko lexikoa erabiltzeaz arduratzen direnak.
16. Ez da komeni umea kontserbatoriora bidaltzea musika gustoko zaiola konturatu baino lehen.
17. Erbititarren aizkorei esker hautsi dituzte beren markak aizkolariek.
18. Zein urruti dagoen zuen etxe hori!
19. Coro bezalako pertsonek amets egiteari ez beste edozein gauzari egingo diote uko.
20. Maria Luisak andrearen aurpegira begiratu ondoren/begiratuta, ez zuela berrogei urte uste izan zuen/ez zuen uste izan berrogei urte zituenik.

## ESALDIAK BERRIDATZI-3

1. Karreradun gizona zen Indalezio, baina medio haundirik ezean, lanean hasi behar izan zuen.
2. Emazteak arrazoi zuela iruditzen bazitzaion ere, Antoniori etxeko giroa gero eta estuagoa egiten zitzaion.
3. Eta lehen distantzia hori bere sinismenaz bete bazezakeen ere orain ezin du, galdua bait du jadanik Jainkoagan sinismena.
4. Nola untza zuhaitzaren formara hala moldatzen zen Mirenen maitasuna Koldoren izakerara.
5. Harkaitz batetik erortzeko zorian dagoen alpinistak larri hartzen du arnasa.
6. Aizkorri ez da Txindoki bezain zorrotza.
7. Haietako inork erdaraz ez zekielako, izenak hartu baino ez zuten egin.
8. Nahiz eta munduko bide guztiek Erromarantz jo, ez zen halakorik gertatzen Ollaranen, bertako bide guztiak Soziedadean amaitzen ziren eta.
9. Lanean igarotzen zuen arratsalde osoa: plantxa egiten, sukaldea jasotzen..., senarraren zapatak garbitzen ez bazen.
10. Argiak piztu ditut Robertok ikus gaitzan.
11. Alejandro egokiagoa zen erretagoardiarako frentera joateko baino ibilkera traketsa bait zuen.
12. Amets horiek hain beharrezkoak egin zitzaizkionez, bere gorputz barneko espazioaren taupada bihurtu ziren.
13. Aspaldidanik haren erraietan ereinda balego bezala, errebelazio bat balitz bezala, barru barrutik atera zitzaion hitza.
14. Euskararen inguruan sortutako literatura, sotana kutsuz josia, ez zitzaion batere gogoko, kulturzale amorratua eta autodidakta bazen ere.
15. Etxera baino lehenago joan zen tabernara.
16. Erdaraz ia ez dakiten neskame horien inguruan eman dute oporraldia Alejandro eta Marianak.
17. Aurtengo ihauterietan txorimaloz jantziko naiz.
18. Eztei aurretik ezkongai bakoitzak bestearen familian sarrera egiteko ohitura zegoenez gero azkar ibili ziren Damiana eta Alejandro tramite horiekin.
19. Ziur baino ziurrago planteiatu beharko zion bere buruari apaiz egin behar zuen ala ez.
20. Pilarrek eta Bixentek kontu goxoak esan zizkioten elkarri.

## ESALDIAK BERRIDATZI-4

1. Hegoaizeak ezezik mendebalak ere, fandango ederrik erabili du bazterretan.
2. Gerrak zenbat familiatan mixeria gorria jarriko zuen pentsatzea besterik ez dago ekaitzaren zigor gogorraz jabetzeko.
3. Horrelako gertaera mingarriak nahiz eta urrutienekoak hurregi izaten direla esan genezake.
4. Hau polita den bezain zatarra da beste hori.
5. Egun, zenbait idazlek aurrez irabazitako errentari eustea beste helbururik ez du.
6. Makina zahar horrek zarata ateratzeko baino ez du balio.
7. Lotsagarria iruditzen zait neu ere behin baino gehiagotan horrelakoak egina naizela pentsatzea.
8. Idazle eta kirol kazetari horiei zor zaie gaur egun zenbait kirolek bere hizkuntza eta argot ia propioak izatea.
9. Bizio edo joera txarrak hartzea uztea baino errazago da /Bizio edo joera txarrak errazago hartzen dira utzi baino.
10. Janaririk onena bada ere, maizegi janez gero, aspertu egiten gaitu.
11. Egiten duguna baino negar gehiago egin beharrean gaude oraindik.
12. Pago gazte horiek hazi ahala, joango da ugaritzen kerizpea.
13. Zein lotsagarria den prakak bete lan eskuartean izanik, eztabaida antzuetan denbora alferrik galtzea.
14. Erabat kaletartu gara guztiok eta baserritarkeriatzat (hartzen) ditugu zuk aipatu dituzun gauza horiek.
15. Zuk hala pentsatzen ez baduzu ere, asko dira zuri gustatzen ez zaizkizun gai horiek irakurtzea-rren egunkaria erosten dutenak.
16. Nik ez dut esan joandako sasoiak oraingoak baino hobeak direnik.
17. Juana Bixentak pakean utz zezan eskatzen zion behin eta berriz.
18. Eros diezagukezu erloju bana Ceutan ?
19. Ifarraldean izan ezik, penintsula osoan eguraldi ederra egin du joan den astean.
20. Pena ematen dio astean bitan idatzi behar duenari, gaurko egunean bere zentzua duen gai bat paperontzira botatzeak.

## ESALDIAK BERRIDATZI-5

1. Batzuetan esan daiteke, komunikabideek, elkarren artean duten gerra dela eta, hondamendien dossier harrigarriak argitaratzeko bestetarako ez dutela balio.
2. Polizia, bonbero eta gainontzekoak bazterrak miatzen aritu baziren ere ez zuten umearen arrastorik inondik ere aurkitu.
3. Diotenez, komunikabide publikoei etorkizun zaila ezezik guztiz ezinezkoa ere iragartzen zaie.
4. Ezkonberri horien ezteietara senitartekoak baino ez dira etorri.
5. Koldok eta Nekanek elkarri gezurrak esaten zizkioten.
6. Dagokion garaian gauza bakoitza neurtzen dakienak asmatzen du hemen.
7. Agindu ere egin zidan Olamuinoko kaxkora igoko ginela bueltarakoan handik bertatik itsasoa ikus genezan.
8. Lankideen arteko giroa baino okerragoa zen etxekoa.
9. Udan gaudela! Udan gaudela! zioen, hiruk izan ezik, plazako gende guztiak.
10. Zure lagun horrek ez du zuk adina barre egiten.
11. Bestalde, komunikabideek berek isladatzen dute ongien arte horren eskasia eta gabezia.
12. Eskuan duzun hori eman diezadakezu?
13. Lotsa ematen dio hainbeste ezagun eta lagunen aurrean pailazokeriak egiten hasteak.
14. Orain hilabete istripuz hil zen auzoko alarguna etxe eta lursail askoren jabe zen.
15. Ez da oraindik urte asko, hamalau urte bete orduko lantoki baterako bidea hartzen genuela.
16. Hauteskundeak zer ziren jakin gabe urte-mordo ederra igaro bada ere oraingo aldi honetan badugu nahikoa.
17. Ezpairik gabe Euskadik artista on asko eman du.
18. Orain garia ereiteari eta/zein jotzeari utzi egin zaio.
19. Ez zait iruditzen horrelako musika ederra entzuten aspertuko naizenik.
20. Kontzientziak agintzen zion erara joka zezan gomendatu zion aitak.

## ESALDIAK BERRIDATZI-6

1. Poliziek berehala jo zuten oinazka batzuen atzetik Josetxorenak ziren ustetan.
2. Paulok eta Josetxok Teilazuriko Manex zuten nagusi irabazpide hartan.
3. Zakurrak erasan behar duela dirudien arren, ibilkariari axolarik ez.
4. Aspalditik antzeman nion berak ez ninduela nik adina maite.
5. Emandako hitza jan baino lehen bizirik erreko zen.
6. Denon antzera gizon hark ere bazituen bere irristadak.
7. Mutil harroa zen; hizketan hasten zenean, ez zuen parekorik.
8. Urte batzutan bertako morroi izan zenak zekien ongien/hoberen etxe hartako berri.
9. Etxeak leihotik hasi eta metroren bat inguru zuen solairu gabeko hutsunetik sartzen zena, zuzenean behi artera zihoan.
10. Errenteria herri estu zikin bat besterik ez dela askok uste badu ere, baserri sail polita dauka.
11. Igitaiz baino ez ziguten uzten garoa ebakitzen.
12. Arratsaldeko laurak inguru ziren harrigarrikeria hura ikusi zuenan.
13. Batere haragikeriarik gabeko musu xamur bat eman zion masailean.
14. Jonek okilak habia sugez beterik aurkitzen duen bezalako amorrua sentitu zuen.
15. Josek ez du sekula hain ondo zaindu artaldea.
16. Euskaratik euskarara ez dago askok uste duten adinako aldea.
17. Premia ekonomikoak behartu ninduelako hasi nintzen lan bila.
    Premia ekonomikoak behartu ninduen lan bila hastera.
18. Aspaldiko lagun harengana bihurtu naiz, nere liburu berri honi solfeoa jar diezaion.
19. Eman zitzaigun mintzoa, gure gogoetan berri elkarri adieraz geniezaion / diezaiogun.
20. Euskara ezin salba daiteke oztopo horiek behar bezala gainditzen ez baditugu.

**ESALDIAK BERRIDATZI-7**

1. Alde guztietan zorrak utzi ote dituen zurrumurrua zabaldu da auzokoen artean aldegin duen momentu beretik.
2. Bi xakelariak batera sartu ziren gelara baina ez zioten elkarri agurrik ere egin.
3. Nik bost urte eman ditudan eskualde horretan eztulari baino jaramon gutxiago egiten diote hilketari.
4. Zuzperraldi honek idazle kopuru berria badakar ere joera honi gehiegizko garbizaletasunaz ukitua dela egozten zaio.
5. Ubideak berritzeari, urak egindako sakonak berdintzeari, larrak ebakitzeari muzin egiten diote gaurko baserritar gazteek.
6. Egun hauetan herrian dabilkigu Joxe burumakur eta hitzik ere esaten ez duela.
7. Zenbat eta aurrerago egin karrika ilun, hezean, hainbat eta hurbilago eta indartsuago somatzen genuen beldurra eta arriskua.
8. Orduko baserri zaharretan errosario santua ia egunero errezatu ezean, ez zuten amore ematen aiton-amonek eta gurasoek.
9. Bai ausarta eta trebea atera zaigula gure mutil txikia!.
10. Astolanetan ederki ikasiak gara mutil koskor ginenetik.
11. Zirrikitu hartatik kontu haien berri jakin behar zuen, gero polizi buruari guztiak esan ziezaizkion.
12. Edonorentzat dago argi izerdia eta, askotan, malkoak isuri gabe ezin dela/ezin daitekeela familia aurrera atera gaurko egoeran.
13. Gutunak esaten dit Errenta Aitorpenean ordaindu gabeko diru kopuru hori 15 egunetako epean sartu behar dudala aurrezki kutxa edo bankuren batean.
14. Oromenderrietarrik gehienak oihan lanetik edo zur lantzetik bizi dira, ez hiltzeko lain jateari bizitzea dei badiezaiokegu.
15. Lehen ere esan dizut niri ez agintzeko, beste horri baizik.
16. Hamaika aldiz gauza berbera irakatsiagatik, ez dute inoiz ikasiko.
17. Herriko jendeak auzo hura ahaztea gogoko izateaz gain, lotsatu ere egiten zen hango murru eta teilatu erdi eroriek adierazten zuten beheraldiarekin.
18. Geunden goikalde hartatik leku isil eta sosegatua zirudien munduak.
19. Jokalariek ezezik, futbolaren inguruan dabiltzan beste guztiek ere gure herrian futbol federazio baten beharra dagoela azpimarratu dute.
20. Joxepa kaskagorra bezala, Potzolo ero gaizto horietakoa zela esan zigun norbaitek.

## ESALDIAK BERRIDATZI-8

1. Atzo Ortzaizera joaterik izan ez zutenek Zuberoako Irurin izango dute laster pastorala ikusteko abagunea.
2. Ura ekartzeko izaten zen lanik asko, etxe inguruan ganaduak edateko putzu bat izanagatik.
3. Joan eta barrikari atzeko kabila edo kortxoa atera orduko, hustu zen barrika.
4. Baserri batzuek etxe ondoan urak biltzeko egiten zuten deposítu handi batekin laguntza handia izaten zuten udarako lehorterako.
5. Ganaduari ura emateak ere ekartzen zuen lanik asko.
6. Barriketa pranko ibili ondoren, nola edo hala lehen esan dudan kale hartan jarri zuten denda.
7. Arrazoi horrekin denak gustora gelditu ez zirenez gero, hurrengo egunetan ere izan zen zer esana pranko.
8. Ilobak bi joan-etorri egin behar izaten zituen brasa bila, aitonak pipa pix(tu) zezan.
9. Zer negargarria den baserritar batentzat etxea eta ganaduak erretzen ikusi eta ezer egin ezina/ezin izatea.
10. Behin batean arto jorran ari zen Donostiatik San Markos tarteko baserri bateko neska bat tiroz hil zuten.
11. Bazen, gari jotzea egindakoan, hura dena garbitu edo haizatu beharra ere.
12. Ogia bigunago kontserba zedin, arropa edo tela zuri tartean jasotzen zen.
13. Esan ohi zen artoa ohi den tokian ez dela goserik ezagutzen.
14. Zuk ez duzu nik bezala pentsatzen.
15. Askotan, egun guztia han emango zuten erdi etzanean kantari.
16. Etxean txerria hiltzen zuten eguna egun handia izaten zen, batez ere umeentzat.
17. Mutil koskor batzuek elkarrengana bildu eta egun hartan bazkari ederra egin zutela esan zuen batek.
18. Karga mandoaren gainean jartzeko bazituzten sila izeneko aproposeko tresna batzuek.
19. Lanak ahitu ziren, eta lanak ahituta mandazaiarentzat ez zegoen hemen irabazpiderik.
20. Eta ikusirik ezin ihes egin zitekeela, pentsatu zuen mando bat askatzea.

**ESALDIAK BERRIDATZI-9**

1. Zenbat eta urte gehiago izan orduan eta estimazio hobea izaten dute gauza batzuek.
2. Badira diruak, patatak bezala, urtero usteldu behar lukeela diotenak.
3. Bertsozalegoak harrera ona egingo dio noski bere azken eskaintza honi.
4. Entzuten duguna azkenaldi honetan errazegi ahazten zaigulakoan nago.
5. Haien gurasoek ez zuten poz makala hartuko atzokoan.
6. Jonen gurasoek ez zituzten gogoko gaupasa zaratatsu eta gogaikarri haiek.
7. Plazarik plaza ibili ohi ziren bertsolariek gaur egungoek baino joera haundiagoa erakutsi zuten askotan bertso paperetarako.
8. Bertso horiek jendeari hel zekizkion, azoka eta ferietara jotzea zen biderik egokiena.
9. Geroztik, bizimodua nolabait irabaztearren esnekien salerosketari ekin zion.
10. Gure herri maite eta gorrotatu honetan, normaltasuna helburu bakartzat duen herri honetan, mintzagai baino ez dugu umorea.
11. Euskarazko liburuetan gatzik gabeko umorea zebilelako heldu nion lan honi.
12. Bigarren argitaratze honetarako, formazko ikutu batzu izan ezik, lehen-lehenean lagatzen dut liburua.
13. Zein tristea den mundu honetan bista onarekin ikusi ezina!
14. Ahaleginetan ari naiz ez batari ez besteari amorerik ez emateko.
15. Momentu gogor eta ilun haietan laguntza estimagarria eskaini genion elkarri.
16. Neu ere aspertzen naute modu horretako irratsaio luze eta korapilotsuek.
17. Bueltako kanpaiaren gisara beti kanpaikada berdinak joaz gelditzeko arriskuan egonda ere, azken boladako leloarekin natorkizu.
18. Haundiak ezezik gaztetxoak ere gaur azkar hasten dira munduan zehar ibiltzen eta bazterrak ezagutzen.
19. Antza denez, datorren asteburuan eguraldi ona egingo du.
20. Ameskaizto hartatik esnatuarekin/esnatzearekin batera konturatu nintzen begiak bustita nituela.

**ESALDIAK BERRIDATZI-10**

1. Anek esan zion oraindik ez zuela ulertzen zergatik zion horrelako beldurra deportazioari.
2. Oso bertso onak jarriko nituen itxaropenik ere ez neukan.
3. Abereetarik, edo animalietarik gizona da mintzoa duen bakarra.
4. Zakurren zaunkek asaldatutako jendearen hizketa marmarioa entzun zuen.
5. Askotan gai on bat gogoratzea bertsoak jartzea bezain zaila izaten da.
6. Darabilen euskara ederra eta estilo oparo eta ezin aberatsa dela eta Euskal Zizeron deitu zioten Sebastian Mendiburu oiartzuarrari.
7. Haurrak dira oilarraren kukurruku ozenak iratzarri ez dituen bakarrak.
8. Ezagun da zure buruak ez daukala garai batean adinako indarrik.
9. Ezer esan ez bazidan ere, maite ninduelakoan nago.
10. Andonik maite ninduela argi eta garbi esan zidanetik ez diot behin ere idatzi nahi izan.
11. Zoli aurrerantz begira zihoazen txalupakoak, Izaro itsaslehorra joko ote zuten beldurrez.
12. Azkar ibili beharko du, lan ordutan Aizarnatik Donostiara etorriko bada.
13. Lorentxok tratu on eta txarrak egin ditzake.
14. Ez da komeni plazan ibili behar duen bertsolariak bertsoak paperean jar ditzan.
15. Jakinaren gainean jartzen zaituztet, nire miraririk ikusteko itxaropenik izan ez dezazuen, ez dut egingo eta.
16. Ederra egin zion Ana Joxepak lotan zegoela bizarra moztu zionean.
    Ederra egin zion Ana Joxepak: lotan zegoela bizarra moztu.
17. Etxeko alaba eta Urretako Martin Elizondora ezkondu ziren.
18. Ez zaizu damutuko gure herriak sortu duen gizon handi honi entzutea.
19. Erderaz jakitea ona duk, euskararen kaltean izan ezean.
20. Gu hilaren azkeneko asteazkenean Zestoan izaten zen feriara hilero joan ohi ginen.

**ESALDIAK BERRIDATZI-11**

1. Kanpoko atea ireki eta zakurrak zaunka egiteari ekin zion .
2. Bulego hartan eman zizkiguten arrazoiek ez zuten ez buru eta ez hanka.
3. Gauerako Bagdadetik urruti egon nahi zuela eta, zaldirik hoberena uzteko esan zion nagusiari..
4. Ez dut ez ahaztuko, nola aitak bizikleta gorria erosi zidan.
5. Pena emango lioke edonori, horrelako gizon bat duintasuna eta gizatasuna galduta ikusteak.
6. Nire azken urteak patxada ederrean emango ote nituen ustean, utzi nion lan egiteari, baina usteak erdia ustel.
7. Lurrikara edo horrelakoren batek mugitzen ez bazuen, ez zen hura eguneroko siesta gozotik aterako zuenik.
8. Txintik atera gabe aulkitik altxa, atea ireki eta Perretxe bordako bideari eman zion/ekin zion/lotu zitzaion.
9. Aurpegi aldea ederki marraskatua izanagatik, aurre ematen jarraitzen zuen boxeolariak.
10. New York aldrebeskeria guztien Meka, eta grina txar eta drogaren paradisua izateaz gain, onbidearen gordelekua ere bada.
11. Josunek maite duen mutila hura baino hamar gehiago da lanerako.
    Josunek maite duen mutilak hark baino hamar aldiz gehiago balio du lanerako.
12. Arropa garbitzen ari ziren bitartean, iji-ajaka, broma eta jolasetan zebiltzan neskatila haien aurrean ez zuen beldurtzerik Ulisesek.
13. Behia eramanda nola bizi behar duten etxean galdetu omen dio semeak aitari.
14. Badira hamar urte gure herria jira-biraka dabilela, inon pausatzeko aukerarik gabe.
15. Etxea hutsik ikusteak eta isiltasuna nagusi izateak minduko nau.
16. Nekez bil zitekeen ezer aziendari jaten emateko elurte harekin.
17. Pakezale amorratua zaren horrek, ekar ezazu baretasuna gure etxera!.
18. Ez digu eman pentsatzen genuen adina lan etxe zahar hori berritzeak.
    Ez digu eman uste adinbateko lanik etxe zahar hori berritzeak.
19. Telemako ikuiletara etorri eta horra non aurkitu duen aita bera.
20. Hormaren kontra jarri zuen gizona eta baita astindu ederra eman ere.

**ESALDIAK BERRIDATZI-12**

1. Nik uste dut Smith jaunak paseo hartan kontatu ziguna transkribatzeak/transkribatuta uzteak merezi duela.
2. Zintan gelditu zena aldatu gabe utzi dut gehienetan.
3. Zer ez luke honek egingo ipui bat kontatzeko aukera izatearren?
4. Gauero aterako nintzateke paseatzera, ikara(rik) emango ez balit.
5. Kaleko isiltasun erori horrek aldizkarietan sarri irakurritakoak gogora erazten dizkit.
6. Liernik eta Beñatek elkarren antza dute.
7. Zaldi guztiak mataderorako zirela konprenitu nuenetik, ez nuen han segitu nahi izan.
8. Sarrerari berari begiratu besterik ez zegoen etxearen aldaketaren zentzua konprenitzeko.
9. Jestu berri hark ez zirudien hogeitamar urteko pertsona batena, ume urduri batena baizik.
10. Erreka ezezik, pinudiz basitutako mendi zokoak ere ilun zeuden.
11. Fermintxok atabalari izan nahi zuen arren, ez zuen atabala erosteko adina diru.
12. Jostun lana utzi behar izan zuenetik, bonbardinoa jo beste afiziorik ez zuen.
13. Txarangakoek noizbait kaleratzen hasi beharra zeukaten, inork hots egingo bazien.
14. Potxoliniren ezkontza bi hilabetez aurreratu zuten, txarangaren estrenua lehenbailehen izan zedin.
15. Aspertu egiten nau beti soldaduskari buruzko lelo berbera entzuteak.
16. Fermintxo izan zen mozkorraldiak tresnak puzteko airerik gabe utzi ez zuen bakarra.
17. Euskadiko Orkestra Sinfonikotik dei egin omen zioten Potxoliniri perkusiojole on baten eske.
18. Une batean geldirik geratu zen ate parean, ez aurrera ez atzera jotzen ez zuela.
19. Ordura arte baino gehiago dastatu nahi zuela publiko aurreko goxotasuna, nabari zen.
20. Donostiako Turismoetxea Fermintxoren txaranga Japoniara eramatekoa/eramatekotan zen.

## ESALDIAK BERRIDATZI-13

1. Eskean ere ijitoek ez zuten parekorik ijitoek.
2. Barrenean poza sentitzen zuen, bere bila etortzea maite zuten seinalea bait zen.
3. Egunarekin esnatu ziren, kanpoan lo egin ezkero ezin bait da/daiteke eguna argitu ondoren horretan jarrai(tu).
4. Zenbat eta gehiago zirkora hurbildu, orduan eta seguruago sentitzen zen egin behar zuenaz.
5. Berari esker zutela gauzek izena erantzun zion Hitzontzek.
6. Mutilak esan zidan ez zidala eskola ezagutzerik opa.
7. «Ez nago, ez, burutik eginda, jauna».
8. Hego haizea atera zela eta, beren asmoa bete ahal izango zutelakoan zeuden.
9. Ur azaleko aingura bota genuen eta urak ginderamatzan aldera gindoazen.
10. Jaunak, hobe nire esana entzun eta Kretatik atera ez bazinete.
11. Harrituko ninduke zuk asignatura hori aprobatzeak.
    Harrituko nintzateke zuk asignatura hori aprobatuko bazenu.
12. Nafarroako Gobernukoek esaten didate pena handia dela lanbide honek jarraitzailerik ez izatea.
13. Egia da aposturik ez balitz, herri kirolek ez luketela bizirik iraungo.
14. Gaur, indarra izatea adina meritu du lantzeak eta saiatzeak.
15. Trumoia denean, erramu bedeinkatuaren hostoak sartzen zaizkio suari, ekaitzaren kalteak uxa ditzaten (itxaropenean) edo.
16. Zintzo eta jator fama izanagatik, bazekien bereak eta bi egiten.
17. Etxetik hurbil dagoenez, bost edo sei minutu barru irtetea nahikoa huke.
18. Izeko moja batek eragin ninduen lehenengo erredakzioak idaztera, hamabi urterekin.
19. Nik bederatzi urte nituen organoa jotzen ikasten hasi nintzenean.
    Ni bederatzi urte nituela hasi nintzen organoa jotzen.
20. Hantxe egon nintzen zaldi guzti haiek mataderorako zirela konprenitu nuen arte.

# SINONIMOAK EMAN

Honako hauek eman litezkeen erantzun batzuk besterik ez dira. Beste batzuk ere onargarriak izan daitezke.

## SINONIMOAK EMAN-1

1. **ahalegindu:** saiatu...
2. **deituko:** hots egingo...
3. **demostratu:** frogatu, erakutsi...
4. **partiketan:** banaketan...
5. **etekin:** irabazi...
6. **apalagoak:** urriagoak, eskasagoak...
7. **bueltatzeko:** itzultzeko...
8. **okasio:** aukera, abagadune...
9. **zamatsutik:** pisutsutik...
10. **jaso:** altxa...
11. **agindu:** mandatu...
12. **sesio:** istilu, hika-mika...
13. **nagusi:** jabe...
14. **eskaxetan:** urrietan...
15. **lagatzen:** uzten...
16. **bixitaldi:** ikustaldi...
17. **pausoak:** urratsak...
18. **batipat:** batez ere...
19. **hondatuak:** izorratuak, maxuratuak...
20. **sarri:** maiz, askotan...

## SINONIMOAK EMAN-2

1. **irudira:** antzera, tankeran, tankerara, itxuran...
2. **lodiena:** sendoena... (baina ez: gizenena)
3. **oraindik:** artean, oraindino...
4. **txit:** oso, biziki, arras...
5. **zindoak:** sendoak, trikoak, indartsuak, osasuntsuak...
6. **bularrauspoak:** birikiak...
7. **aldiz:** bider...
8. **hosto:** orri...
9. **jaiotzen:** sortzen, ernetzen...
10. **eramango:** irabaziko, aurrea hartuko, alderik kenduko...
11. **jolasean:** jokoan... (baina ez: olgetan, jostaketan)
12. **jaurtitzen:** botatzen...
13. **lasterka:** korrika, arineketan...
14. **prest:** gertu... (baina ez: prestatuta)
15. **atzetik:** ondoren, ondotik, gibeletik...
16. **askorik:** haundirik... (baina ez: ugaririk)
17. **igarotzeko:** pasatzeko, emateko...
18. **apaina:** txukuna, dotorea...
19. **estaldurik:** ezkutaturik...
20. **lokatz:** basa, lohi, basatza...

## SINONIMOAK EMAN-3

1. **heldu:** oratu, eutsi... (baina ez: iritsi, hartu)
2. **sinatu:** izenpetu...
3. **errukarriaz:** gupidagarriaz, urrikalgarriaz...
4. **haundiuste:** harro, handi-mandi...
5. **benetako:** egiazko...
6. **une:** momentu...
7. **lasaia:** barea, trankila, nasaia, patxadatsua...
8. **gertu:** hurbil...
9. **zeharkatzen:** gurutzaten... (baina ez: inguratzen)
10. **bizkar:** kargu, gainean, mendean, esku, gain... (baina ez: lepo, lepoan)
11. **grinak:** zaletasunak...
12. **bereizten:** banatzen...
13. **sekula:** inoiz, egundo, behin ere...
14. **sarritan:** maiz, askotan...
15. **irabaziez:** etekinez...
16. **erantsi:** gehitu, emendatu... (baina ez: haunditu)
17. **utzitako:** lagatako...
18. **kargu:** mendean, menean, esku...
19. **etekina:** irabazia, emaitza...
20. **entzuten:** aditzen...

## SINONIMOAK EMAN-4

1. **Esfortzu:** Ahalegin, Eginahal...
2. **pasatzera:** igarotzera, iragatera...
3. **animorik:** adorerik, kuraiarik...
4. **erbestea:** atzerria, estrenjeria...
5. **lortu:** erdietsi, eskuratu...
6. **animatu:** berotu, adoretu...
7. **ikusten:** so egiten, ezagutzen...
8. **lana:** beharra, zeregina...
9. **pisua:** etxebizitza...
10. **oso:** txit, guztiz...
11. **inbidia:** bekaitz, bekaizkeria, erremin...
12. **omen:** ei...
13. **nahiko:** aski...
14. **gartzelara:** presondegira, espetxera...
15. **ihes:** hanka, ospa...
16. **agoantatzea:** jasatea, eramatea...
17. **maitia:** laztana, kut(t)una...
18. **gutunean:** eskutitzean...
19. **bihurtzen:** bilakatzen...
20. **narraskeriei:** zikinkeriei, txerrikeriei...

## SINONIMOAK EMAN-5

1. **bezala:** gisa, modura...
2. **laket:** gustoko, gogoko...
3. **Antxeta:** Kaio, Itsas-txori...
4. **bidaia:** ibilaldi, joan-etorri...
5. **konturatu:** antzeman (zuen), igerri (zion)...
6. **ediren:** aurkitu, topatu...
7. **beharrezkoa:** derrigorrezkoa, nahitaezkoa...
8. **jarraipena:** segida, ondorea...
9. **uztartzen:** batzen, lotzen...
10. **zail:** nekoso, gaitz...
11. **Izadiarekin:** Naturarekin, Munduarekin...
12. **hedatzen:** zabaltzen, luzatzen...
13. **eitea:** itxura, traza, forma...
14. **zabuka:** kulunka, klunka...
15. **non:** ezen, ze...
16. **bihurtu:** bilakatu, besteratu...
17. **hanka:** zango, berna...
18. **tarteka:** noizbehinka, aldika...
19. **hamaika:** makina (bat), mila...
20. **begiratu:** behatu, so egin...

## SINONIMOAK EMAN-6

1. **gaizki:** txarto...
2. **pisu:** astun, gaizto...
3. **izerdi patsetan:** izerditan blai...
4. **iratzarri:** esnatu...
5. **garbitu:** hil... (baina ez: ikuzi)
6. **koska:** kakoa...
7. **ondoan:** alboan, aldamenean...
8. **bekokia:** kopeta...
9. **garunetako:** burmuineko...
10. **Aski:** Nahikoa...
11. **nabari:** sentitzen...
12. **Kaskarraldiren:** Haserraldi... (baina ez: gaisoaldiren)
13. **nagusiak:** buruak...
14. **keinu:** seinale...
15. **Urduri:** Artega...
16. **errazago:** aiseago...
17. **nonbait:** dirudienez, antza... (baina ez: non edo non)
18. **ondoan:** ondoren, ostean... (baina ez: alboan, aldamenean)
19. **entzuteak:** aditzeak...
20. **Azpiltxo:** Platertxo...

## SINONIMOAK EMAN-7

1. **igarri:** antzeman, asmatu...
2. **esnatu:** iratzarri...
3. **itsumustuan:** tupustean, bapatean...
4. **salto:** jauzi...
5. **atzeman:** aurkitu, heldu...
6. **miatu:** aztertu, arakatu...
7. **esanera:** agindura...
8. **bota:** jaurti, jaulki, eralgi...
9. **lehenengo:** aurreneko, estraineko...
10. **jabetu:** konturatu, ohartu...
11. **behintzat:** behinik behin, bederen...
12. **akabatu:** hil...
13. **isats:** buztan...
14. **barrundatu:** somatu...
15. **azalduko:** agertuko...
16. **izukeria:** ikara...
17. **txarrik:** gaitzik, kalterik...
18. **opa:** desio...
19. **musu:** laztan, pot...
20. **plazer:** atsegin, poz...

## SINONIMOAK EMAN-8

1. **aldapa:** malda, aldatz, erripa...
2. **egindako:** jasotako, eraikitako...
3. **nornahik:** edonork, zeinnahik, edozeinek...
4. **hornitua:** osatua, betea, jantzia...
5. **Hezeegia:** Umelegia, Bustiegia...
6. **ilunegia:** goibelegia, beltzegia, itzaltsuegia...
7. **helburuz:** jomugaz, xedez...
8. **eten:** moztu, hautsi, apurtu...
9. **gogoetak:** pentsamenduak, hausnarketak...
10. **baimena:** onespena...
11. **izenpetua:** sinatua...
12. **arkaitzean:** haitzean, arrokan...
13. **kobazuloak:** leizezuloak, haitzuloak...
14. **zeharkatzen:** gurutzatzen...
15. **utzita:** lagata, abandonatuta...
16. **Aurrena:** Lehenik, Lehendabizi...
17. **aldegin:** ihes egin, hanka egin...
18. **otu:** bururatu, gogoratu...
19. **konturatu:** ohartu, jabetu, erreparatu...
20. **bota:** jaurti, egotzi...

## SINONIMOAK EMAN-9

1. **antiaju:** betaurreko...
2. **irteten:** ateratzen...
3. **itxura:** tankera, airea, eitea...
4. **Ordutik:** Harrezkero, Geroztik...
5. **adio:** agur...
6. **imajin:** irudi...
7. **emazte:** andre, andra...
8. **gogoratzean:** oroitzean...
9. **konkistatu:** lortu, eskuratu...
10. **eritzirako:** ustetan...
11. **Joandako urtean:** Iaz, Lehengo urtean...
12. **obrarik:** lanik...
13. **aidanez:** dirudienez, antza denez...
14. **nahiz:** edo...
15. **hitzetik hortzera:** ahotan...
16. **Egileak:** Autoreak, Idazleak...
17. **nobela:** elaberria...
18. **gatazken:** liskarren, burruken, istiluen...
19. **errazago:** aiseago...
20. **ulertzen:** aditzen, konprenitzen...

## SINONIMOAK EMAN-10

1. **ikaraturik:** izuturik, beldurturik, dardarrez...
2. **pausoa:** urratsa...
3. **zoro:** ero...
4. **erdietsi:** lortu...
5. **kuttunaganako:** laztanaganako, maiteaganako...
6. **erauziko:** kenduko, harrapatuko, lapurtuko...
7. **amultsuki:** goxo-goxo, maitekiro...
8. **andrearekin:** emaztearekin... (baina ez: emakume, emazteki)
9. **serioski:** benetan, egitan, zinez...
10. **eskabidez:** eskariz, eskaeraz...
11. **aditzera eman:** jakinerazi, adierazi...
12. **frutu:** emaitza, etekin... (baina ez: igali)
13. **kezkaturik:** arduraturik...
14. **konponduta:** ados, konforme, elkar hartuta...
15. **sufritu:** pairatu, nozitu...
16. **kastigurik:** zigorrik...
17. **pasadizu:** gertaera, jazoera, ixtorio...
18. **erortzen:** jausten...
19. **aurrera:** aitzina...
20. **desegin:** hautsi, apurtu...

## SINONIMOAK EMAN-11

1. **trinkotasunez:** sendotasunez...
2. **goraipatzen:** goratzen, goraltzen, goresten...
3. **gardenak:** garbiak...
4. **aintzat hartzen:** kontuan hartzen...
5. **barrundatu:** somatu, susmatu...
6. **areagotuz:** haundituz, indartuz...
7. **olatuen:** uhinen...
8. **irletan:** uharteetan...
9. **murmurio:** zurrumurru, marmar...
10. **iraulika:** bueltaka, zilipurdika...
11. **jaulkitzen:** isurtzen...
12. **gupidarik:** penarik, errukirik, urrikirik, urrikalpenik...
13. **minberatzen:** mintzen, atsekabetzen, samintzen...
14. **kateaturik:** trabaturik, behaztopaturik...
15. **sakabanatuz:** barreiatuz, zabalduz...
16. **betarik:** astirik, denborarik...
17. **adats:** ile...
18. **galtzarbe:** besape...
19. **erortzen:** jauzten...
20. **kopetatik:** bekokitik...

## SINONIMOAK EMAN-12

1. **Dardarizoka:** Dardarka...
2. **kristalezko:** beirazko...
3. **utzi:** laga...
4. **tristetzen:** goibeltzen...
5. **salto:** jauzi...
6. **sendoago:** gogorrago, estuago...
7. **nahiko:** aski...
8. **topetaraino:** leporaino, goraino...
9. **itzaldu:** amatatu, iraungi...
10. **primeran:** ondo, ongi...
11. **gutxia:** apurra, pixarra...
12. **Laino:** Hodei...
13. **zintzilikatzen:** isekitzen...
14. **bortitzek:** gogorrek...
15. **apaldu:** makaldu, indargabetu...
16. **xumeetan:** txikietan, apaletan...
17. **mintzatzera:** hitzegitera...
18. **luzatu:** jo...
19. **egoki:** on, tajuzko...
20. **miatu:** arakatu, aztertu...

## SINONIMOAK EMAN-13

1. **esperoan:** zain...
2. **lasai:** patxadan, trankil...
3. **gertatu:** jazo...
4. **egundokoak:** izugarriak, itzelak, sekulakoak, ikaragarriak...
5. **okerrena:** txarrena...
6. **botatzen:** egozten, jaurtitzen, leporatzen...
7. **notiziak:** albisteak, berriak...
8. **txorakeriak:** tontakeriak, ergelkeriak, erokeriak...
9. **kontra:** aurka...
10. **inbidiagatik:** bekaitzagatik...
11. **zimaurraren:** zikinaren, nazkantearen...
12. **amorraziorik:** amorrurik, herrarik, errabiarik...
13. **ez hartzeko aintzat:** ez hartzeko kontuan, ez jaramonik egiteko...
14. **juzku:** epai...
15. **gainerako:** osterantzeko, gainontzeko, beste, bestelako...
16. **minako:** meategiko, meatzeko...
17. **garaietatik:** sasoietatik, denboretatik, egunetatik...
18. **etsita:** desesperatuta...
19. **zaila:** nekeza, gaitza...
20. **sendatuko:** osatuko...

## EUSKARA ZERBITZUAREN ARGITALPENAK

### Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila

**GLOTODIDAKTIKA-LANAK**

*Hizkuntzen irakaskuntzaren inguruko gaiak:*

– HIZKUNTZEN IRAKASKUNTZA: TOPIKOAK ETA METODOLOGIAK. *N. Gardner* (1).
– HIZKUNTZEN IRAKASKUNTZA: GRAMATIKA ARIKETAK. *J. A. Mujika* (2).
– HIZKUNTZEN IRAKASKUNTZA: MAILAKETA GRAMATIKALA. *I. Olaziregi* (3).
– HIZKUNTZEN IRAKASKUNTZA: ZENBAIT ARTIKULU (5).
– HIZKUNTZ JOLASAK. *M. Sainz - I. Olaziregi* (15).
– BAKARKA 1. EUSKERA A DISTANCIA. *J. A. Letamendia* (18).
– BAKARKA 2. EUSKERA A DISTANCIA. *J. A. Letamendia* (22).
– BAKARKA 3. EUSKERA A DISTANCIA. *J. A. Letamendia* (29).
– TREBATZEN. OHO-ko GOIKO ZIKLORAKO HIZKUNTZ ARIKETAK. *M. Sainz* (23).
– EUSKALKIZ EUSKALKI. *R. M. Pagola* (19).
– EUSKARAREN OINARRIZKO HIZTEGIA. MAIZTASUN ETA PRESTASUN AZTERKETA. *J. M. Etxebarria. J. A. Mujika* (31).
– OINARRIZKO HITZAK. EUSKARAZKO HITZ ERABILGARRIENAK. *I. Olaziregi* (34).

*Bideo-gidoiak/Txotxongiloak/Musika*

– HAURRAK EUSKALDUNTZEN GIÑOLAREN BIDEZ I. *I. M. de Lezea-Kukubiltxo* (6).
– HAURRAK EUSKALDUNTZEN GIÑOLAREN BIDEZ II. *I. M. de Lezea* (9).
– ESKOLARAKO IPUINAK ETA TXOTXONGILOAK. *I. M. de Lezea* (14).
– IPUIN ZAHAR ETA BERRIAK. *L. Iriondo* (10).
– KONTU KONTARI. *L. Iriondo* (20).
– AMONAREN IPUINAK. *E. Genua* (12).
– IPUIN GEHIAGO. *A. Lertxundi - J. Lucas - Keinu - Maskarada* (13).
– JOLASEN. *I. Urbieta* (11).
– MUSIKA HEZKUNTZA ESKOLAURREAN. *I. Urbieta* (21).

*Euskararen Gaitasun Agiria* (EGA)

– EUSKALTZAINDIAK BATASUNERAKO ESKAINI DITUEN ERABAKIAK (8).
– EUSKARAREN GAITASUN AGIRIA. PROGRAMA (7).

- EGA. 1988-89ko AZTERKETAK (35).

OHARRA: Liburuen eskuin aldeko zenbakitxoek argitalpen-sorta bakoitzeko korrelazio-zenbakiak dira.

*Hizkuntz testak eta ebaluazioak*

- EABHEM. EUSKARA-MAILA NEURTZEKO TESTA (D ereduko eskolaurrerako). *G. Ajuria - I. Ibarra - J. Sierra* (16).
- GALBAHE E1 HIZKUNTZ TESTA. (B eta D ereduetako OHO-ko 2. Mailarako). *I. Olaziregi - J. Sierra* (26).
- GALBAHE E2 HIZKUNTZ TESTA. (B eta D ereduetako OHO-ko 5. mailarako). *I. Olaziregi - I. Sierra* (25).
- GALBAHE C1 y C2. TESTS DE LENGUA (Gaztelaniazko testak OHO-ko 2. eta 5. mailarako). *J. Sierra - I. Olaziregi* (27).
- ZORTZI-A HIZKUNTZ TESTA (A ereduko OHO-ko. mailarako). *I. Olaziregi - J. Sierra* (28).
- PIR-5 HIZKUNTZ TESTA (B eta D ereduetako eskolaurre-amaierarako). *I. Olaziregi - I. Sierra* (30).
- EIFE 1. EUSKARAREN IRAKASKUNTZA: FAKTOREEN ERAGINA (euskaraz-gaztelaniaz-frantsesez-ingelesez). *J. Gabiña - R. Gorostidi - R. Iruretagoiena - I. Olaziregi - J. Sierra* (H.U.I.S.-H.P.I.N.).
- EIFE 2. EUSKARAREN IRAKASKUNTZA: FAKTOREEN ERAGINA. *J. Sierra - I. Olaziregi* (33).

## HIZKUNTZ PRESTAKUNTZA

- BIZKAIERAREN IDAZTARAUAK. DEKLINABIDEA ETA ADITZA. *A. Arejita - J. M. Irazola - J. Uriarte* (1).
- EUSKAL ADITZA: BIZKAIERA ETA BATUA. *J. M. Irazola* (2).
- BIZKAIERAZKO JOSKERA. *A. Arejita - J. M. Etxebarria - J. M. Irazola - J. Uriarte* (4).
- HEZKUNTZ ADMINISTRAZIOKO BEHIN-BEHINEKO HIZTEGIA. *I. Artola - J. M. Berasategi - G. Nazabal - I. Olaziregi* (3).

## ZABALKUNDE LANAK

*Euskal Ikasmaterialgintza* (EIMA programa)

- IKASMATERIAL IDATZIEN BILDUMA 1990 (22). *M. K. Kamino,*
- IKUS-ENTZUNEZKO IKASMATERIALEN BILDUMA 1990. *M. Usabiaga* (17).
- EIMA. EKINTZA PLANA. AZALPEN BATERABILDUA 1986 (14).
- EIMA. LAGUNTZA DEIALDIEN EMAITZAK 1980-85 (10).

*Irakaslegoaren Alfabetatze-Euskalduntzea* (IRALE programa)

- IRALE. AURKEZPEN-TXOSTENA 1990-91 (21).

*Normalizazio Legearen Garapena* (NOLEGA programa)

- IKASTETXEEN BARNE-ERROTULAZIORAKO ESKULIBURUA. *I. Artola - J. M. Berasategi - I. Muruaga* (15).
- EUSKAL GIROTZE-EGONALDIETARAKO ESKULIBURUA. *R. M. Ardanza - I. Artola - J. M. Berasategi - L. M. Landaluze - A. Mujika - I. Muruaga* (16).
- ESKOLA-ANTZERKIA (18).
- URRUZUNO LITERATUR LEHIAKETA. LAN SARITUEN BILDUMA 1989.
- GOAZEN BARNETEGIRA (bideoa)
- EUSKAL GIROTZE BARNETEGIAK (bideoa)

*Beste txostentxo batzuk*

- IRALE (azalpen txostentxoak lau hizkuntzatan) (5).
- EGA (azalpen txostentxoak lau hizkuntzatan) (6).
- EUSKARA GAUR EGUNEKO HEZKUNTZA ARAUBIDEAN / EL EUSKERA EN LA NORMATIVA ESCOLAR VIGENTE (20).

EGA EK15020247

EUSKO JAURLARITZAREN ARGITALPEN-ZERBITZU NAGUSIA

SERVICIO CENTRAL DE PUBLICACIONES DEL GOBIERNO VASCO

**SALNEURRIA: 848 pta.**
**(B.E.Z. barna)**